

**ETA-REN
AMAIERA
AGIRIA**

DESEGITEAREN BERRI EMAN
DU ERAKUNDEAK / 5



SOINUAK ETA PANDEROAK NAGUSI

ANTZUOLAN OSPATUKO DA, ZAPATUAN,
DEBAGOIENEN TRIKITIXA EGUNA / 40

Antzuolako trikiti eskolako
kideak, herrian, zapatuko
jairako dei egiten.

XABIER URZELAI

5.000 lagun, giza katerako

Debagoieneko herri guztiek kilometro tarteak izango dituzte ekainaren 10eko Gure Esku Dago-ren ekimenean / 3



'AUTOAK 2018'
GEHIGARRIA / 21

SINADURAK

	XABIER ARREGI MURGIENDO / 6		MIGUEL LAZPIUR / 31
	OSCAR RODRIGUEZ / 12		ALAZNE GURIDI / 36
	LEIRE ELEJALDE / 15		AINZANE OIARBIDE / 48

puntua

ORAINGO ASTEAN EZ DA PUNTUA
ALDIZKARIA ARGITARATU.
HURRENGOA MAIATZAREN 11N
IRTENGO DA.

2mõ betaurreko:
gama altuko
progresiboak
+
eguzkitako progresiboak
229€

www.multioplicasgipuzkoa.com

Beasain • Donostia • Eibar • Errenteria
Irun • Lasarte-Oria • Tolosa • Ordizia

Gure betaurreko guztiak
2018 bildumakoak dira

Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

ORDAINDU/ESKURATU **AUZIA** MONDRAGON TALDEA

Demanda jarri duten Fagor Etxetresnetako bazkide ohi batzuk, Bergarako epaiketa aurreko entzunaldian. IKER OÑATE

Epaiketaren eguna iritsi da

Ordaindu eta Eskuraturen Mondragon Korporazioaren kontrako epaiketa astelehenean hasiko da Bergarako Epaitegian. Mondragoneko hamaika zuzendarik deklaratu dute testigu gisa lehen hiru egunetan. Hilaren 10ean ondorioak aurkeztuko dituzte

Miren Arregi ARRASATE

Bukatu da atzera kontaketa. Maiatzaren 7an, astelehena, emango zaio hasiera Fagor Etxetresnetako eta Edesako bazkide ohiak, Ordaindu eta Eskuratu plataformetan baturik, Mondragonen kontra ipinitako demandaren epaiketari. Lehen hiru egunetan egingo dira bistak edo auzi-saioak eta horietan deklaratu dute lekukoek. Arantxa Laskurainen, Mondragoneko idazkari nagusiaren, deklarazioarekin hasiko da epaiketa.

Auzi-jartzaileek, bi elkartetako 954 pertsonak, demostratu beharko dute Mondragon Taldeak "informazioa ezkatatu" ziela eta horregatik ez zituztela Fagor Etxetresnak eta Edesa kooperatibetan zituzten ekarpenak atara. EAEko inoizko demandarik handiena da honako hau, bai auzi-jartzaile kopurua kontuan

izanda –Fagor Etxetresnak eta Edesaren itxierak kaltetutako 4tik 1 da demandatzailea, guztira 3.600 pertsona gelditu baitziren egoera horretan–, baita eskatzen den diru kopurua kontuan izanda –47 milioi euro–.

Demandatzaileen "konfiantza"

Demandatzaileek azpimarratu dute epaileak Fagor Etxetresnetako, Edesako eta Mondragon Taldeko arduradun izan diren hainbat deklaratzera deitu izana. Auzi-jartzaileek testiguen eskatu diete "esan dezatela egia", uste baitute horrela frogatuko

NORK BEREARI EUTSIZ EGINGO DIOTE AURRE BI ALDEEK DATORREN ASTEAN EGINGO DEN EPAIKETARI

dela Mondragonek langile ohiak engainatu zituela euren ekarpenak kooperatibetan mantendu zituzten, lantegien egoeraren jakitun izanik ere.

"Konspiraziorik ez"

Bestetik, Mondragonek argi du bazkideek "ezagutzen" zituztela "Fagor Etxetresnen eta Edesaren egoera eta inbertsioaren arriskuak, kooperatibako bazkide ziren heinean. Mondragonentzat, demanda gainerako kooperatiben eta bazkideen kontra doa: "Izan ere, Mondragon ez da enpresa holding bat, non enpresa nagusiak kooperatiba guztien gaineko kontrola egiten duen".

Mondragonek nabarmendu du, gainera, Pedro Jose Malagon administrazio epaileak ebatzi zuela Fagor Etxetresnek "eta Edesak ez zirela informaziorik ezkatatu hartzekodunei".

Ordaindu eta Eskuraturen argudioak

- Auzi jartzaileek diote Mondragonen aldetik mezu "faltsu" bat jaso zutela eta informazio horri kasu egiteagatik kalte ekonomiko bat jasan dutela. Alegia, ekarpenak eta merkataritzako maileguak galdu dituztela.
- 2005etik aurrera Mondragonek erabaki zuela Fagorreko eta Edesako langileei helaraztea bazkideak zirela kooperatibaren arazoei aurre egin behar zietenak. Diote 2011tik aurrera taldeak estrategia aldatu zuela, egoeraren alderdi positiboak azpimarratuz eta negatiboak gutxituz, Fagorren eta Edesaren etorkizuna nabarmenduz.
- Mondragonek Fagorren bi eraikin garrantzitsuenak erosi zituela eta errenta "oso altuan" ematen zizkiola Fagorri. Auzi-jartzaileek diote eraikinen eskualdatzea Mondragonen mesederako egin zela.
- Demandatzaileek diote bazkide inaktiboak 2012ko batzar orokorrean helarazi zitzaizela Mondragon Taldeak kooperatibari eman diezaiokeen laguntzak baldintza bat duela. Aurrezkiak mantentzea.
- Erretiratuek konfiantza zeukatela Taldearengan eta "hark informazio okerra eman" ziela, kalte ekonomikoa eraginez. Auzi-jartzaileen esanetan, kausazko lotura bat dago informazio faltsua ematearen eta kalte ekonomikoa jasotzearen artean.

Mondragon Taldearen argudioak

- Gertatu dela sozietate baten konkurtsoa eta likidazioa egiterakoan gertatzen dena. Bazkideek ekarpenak galtzen dituztela eta sozietateari maileguak egin dizkiotenek galdu egiten dituztela.
- Mondragon Taldeko kooperatiba bakoitza burujabea dela diote. Taldeak ez duela enpresa bakoitzaren erantzukizunik hartzen, administrazio epaileak ere hala adierazi zuela. Diote ez dela engainurik izan, bazkideek ez zutela konkurtsoa espero sekula ez zelako horrelakorik gertatu; alegia, ez zutela informazio faltsurik eman.
- Mondragonek Fagorreko eraikin biak erosi zituela Ekimen Berri sozietatearen bitartez Fagorrek hala eskatuta, kooperatibak finantzazioa behar zuelako
- Mondragonek dio kooperatibistek momentu oro izan zutela Fagor eta Edesa kooperatiben berri, eta parte hartu zutela erabaki estrategikoak hartzeko prozesu guztietan. "Batzar orokorretan parte hartzea derrigorra zen; beraz, bazeukaten informazio guztia".
- "Ez da inongo konspiraziorik gertatu". Gainera, bazkideek ez dute frogatzen ekarpenak erretiratza joan zirenean trabarik izan zutenik. Taldeak ez zuen arduragabe jokatu eta ezin zaio erantzukizunik eskatu sozietate galera bat denagatik.

Gure Esku Dago-ren giza katerako giroa berotzen

Ekainaren 10ean egingo da, Gure Esku Dago-k antolatuta, erabakitze eskubidearen aldeko giza kate erraldoia. Bailaratik igaroko ez bada ere, Debagoieneko herri bakoitzak kilometro tartea izango du egokituta; 5.000 lagun beharko dira

Miren Arregi ARRASATE

Erabakitze eskubidearen aldeko Gure Esku Dago plataformak giza kate erraldoia antolatu du ekainaren 10erako, Euskal Herrian inoiz egin den handiena. Donostiatik abiatu, Bilbotik pasa eta Gasteizen amaituko da, 201,9 kilometro osatuta, Eusko Legebiltzarraren atarian. 100.000 pertsona beharko dituzte hori osatzeko. Gure Esku Dago-k antolatzen duen bigarren giza katea izango da ekainekoa, eta, lehenengoa ez bezala –2014ko ekainaren 8an egin zen lehena–, ez da Debagoienetik igaroko. Edozelan ere, bailarako herri bakoitzak bere tartea izango du egokituta.



2014ko ekainaren 8ko giza katea, Arrasaten. GOIENA

Tarteak herriz herri

Elgetak eta Antzuolak, bakoitzak kilometro erdi izango du, Malzaga eta Elgoibar bitartean. Bergarak ere, tarte berean, bi kilometroko zatia izango du. Arrasatek eta Aretxabaletak hiru eta bat izango dituzte, hurrenez hurren. Biek ere, Mañurga eta Gopegi (Araba) artean. Eskoriatzak eta Leintz Gatzagak, elkarrekin kilometro bat osatu beharko dute, Ondategin (Araba). Oñatik Zigoitian (Arabak) izango ditu bi kilometro. Horiek osatzeko, 5.000 debagoiendar beharko direla aurreikusten du Gure Esku Dago-k. Elgetatik 200; Antzuolatik 300; Bergaratik 1.000; Arrasatetik 1.500; Aretxabaletatik 500; Eskoriatza eta Leintz Gatzagatik 500; eta Oñatik 1.000.

Azken hilabeteen sartuta, herrietako taldeak buru-belarri dabilta saretze lanean. Elgetan, aste honetan dira hasteko lan horretan, dagoeneko 60 lagunek eman dute izena eta Bergaran eta Arrasaten, 200ek eta 350ek, hurrenez hurren. Aretxabaletan 150 dituzte lotuta eta Eskoriatzan, Leintz Gatzagan eta Oñatin, ez dute oraindik

EKAINAREN 10KO GIZA KATEA GIROTZEKO HAINBAT EKITALDI EGINGO DIRA HERRIETAN

datu zehatzik. Hala ere, hemen-dik aurrera, sarri izango dira herrietan izen-emate mahaiak, eta herri bakoitzeko lokaletan ere egongo da horretarako aukera. Gure Esku Dago-ren webgunean ere badago hori egiterik: www.gureskudago.eus helbidean.

Autobusak, kilometro tartera

Herri bakoitzak autobusak antolatuko ditu kilometro tartetara joan ahal izateko. Elgetan eta Antzuolan, esaterako, bina autobus jarriko dira. Bakoitzak bi joan-etorri egingo ditu. Bergaran, autobusak ipintzeaz gain, oinez eta bizikletaz joateko irteerak ere ari dira antolatzen. Arrasaten, Aretxabaletan eta Oñatin bi aukera egongo dira, goizez joan-etorria egitekoa edo egun osoko irteera egitekoa. Bigarren hori aukeratuta, Gasteizera ere joan ahalko dira

herritarrak, autobusez. Egun erdiko irteera 7 euro kostako da; egun osokoa, berriz, 10. Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan ere ipiniko dituzte autobusak.

Ekitaldiak, egunera begira

Ekainaren 10eko giza katea girotu eta motorrak berotze aldera, hainbat ekimen antolatuko dituzte herrietan hilabete honetan zehar. Herri gehienetan oraindik zehazteke dago zeintzuk izango diren ekimen horiek, baina Arrasaten eta Oñatin iragarri dituzte dagoeneko. Arrasaten, esate baterako, maiatzaren 19an, Klik Eguna ospatuko dute. Kale animazio, txistulari eta trikitilaririk ez da faltako. Herri mailako giza kate bat eraikiko da, eta, gainera, Herritarron Itunerako arrasatearrek erabakitze eskubidearen alde emandako arrazoi bildumaren laburpen bat erakutsiko dute. Oñatin, maiatzaren 12an landuko dute Herritarron Ituna eta maiatzaren 19an, Klik Eguna ospatuko dute han ere. Kale animazioa, musika eta luntxa egongo dira, giza-katearen egunera begira herria girotze aldera.

Askotariko ekintzak artzaintzara gerturatzeko

Debagoieneko Artzainen Eguna egingo dute hilaren 6an, domekan, Elgetan. Goizeko hamarretan hasiko dira ekintzak. Ordu horretan zabalduko da artzainen azoka. Hamahiru postu egongo dira, eta, besteak beste, artisauak egongo dira artilea lantzen. Nola ez, askotariko gaztak izango dira probatzeko eta erosteko. 10:00etan, Intxortako ibilbide tematikoa

egingo da eta ordu berean, bildotsa burruntzian egiten hasiko dira. 11:00etan, gatzatu tailerra egingo da eta 12:00etan, haurrendako tailerra, *Artiletik harira* izenekoa. 11:30ean, gazta dastatzea hasiko da eta 12:30ean, burruntzian egindako bildotsa pintxotan banatzen hasiko dira herriko emakume taldekoak. Goizean zehar, ahariaren pisua asmatzeko jolasean parte hartu ahal izango dute bisitariek. Eskualdeko artzaintza ezagutzera ematea du helburu azokak.

8.315 euro ibarretik Baionara, Bernat Etxepare Lizeora

Baionako Bernat Etxepare Lizeoak martxan duen *Hazten gaitu, hazten dugu* diru bilteta kanpainari 8.315 euroko diru ekarpena egin diote Debagoieneko hiru ikastolek: Arizmendik, Aranzadik eta Txantxikuk. Eskaintza pedagogikoa zabalteko dirua biltzea zen Baionako lizeoak martxan ipini zuen ekimenaren helburua. 300.000

euro lortu gura zituen, horrek eskatutako inbertsioari aurre egiteko. Hala, besteak beste, elkartasun krosak antolatu zituzten martxoan bost herritan –Oñatin, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Bergaran eta Arrasaten–. Jende askok egin zuen bat egun hartan Bernat Etxepare Lizeoaren aldeko ekimenarekin. Hain zuzen, elkartasun krosa izan dute eguneko ekintza nagusi, eta, esan moduan, 8.315 euroko diru-ekarpena egitea lortu dute.

ULMA Agrícola, S. Coop. Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

Eguna: 2018ko maiatzaren 11a
Ordua: 14:30an lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena
Tokia: ULMA Taldeko auditoriuma – Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDIA

1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BAZKIDEAK IZENDATZEA BATZAR MONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2017KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA, ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO, ETA 2018KO GESTIO PLANA BERRESTEA HALA BADAGOKIO
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2017KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO
 - 4.1 2017ko urteko banakako kontuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
 - 4.2 2017ko urteko kontu bateratuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
5. KAPITALAREN ORDAINKETA. 2017KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA
6. 2017KO EKITALDIKO EMATZAK BANATZEA
7. KOOPERATIBAKEN BARNE ARAUDIAREN 43. ARTIKULUAK INTERESEN MONETARIZAZIOA NEGOZIOAREN EGOERA FINANTZARIOAREN ARABERA MAILAKATZEARI BURUZ DIOENA ALDATZEA, HALA BADAGOKIO
8. JARDUERA SOZIALA ULMAN ETA IEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA APLIKATZEA (IPDK)
 - 8.1 2017an IPDKetarako egindako erabilerari buruzko deialdia
 - 8.2 2018an IPDKko zehaztekoak aplikatzeko proposamena
 - 8.3 ULMAren 2018ko jardura sozialaren aldean azalpena
9. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK
10. ZABANTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
11. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
12. AHALMENAK ESKUORDETZEA
13. GALDE-ESKEAK

OHARRAK: Batzildien proposamena maiz ULMA Agrícola, S. Coop. en ("Kooperatiba") egotzen edukiagutia diruak eta/edo kideak, erabilerari aplikatzeko proposamena eta kideen laguntza (irabazirik) egindako gaitu biltzea. Batz. Nagusiaren deialdiaren aurrean jarduera hori izan daiteke. Hala ere, batzildien gaitu biltzearen zati Kooperatibaren egotzen diruak eta/edo kideak erabilerari aplikatzeko proposamena ditzaketen beste erabilerak ere izan daitezke. Hala ere, erabilerak ezin izango dira aplikatu. Hala ere, batzildien gaitu biltzearen zati Kooperatibaren egotzen diruak eta/edo kideak erabilerari aplikatzeko proposamena ditzaketen beste erabilerak ere izan daitezke.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2018ko apirilaren 27a

Arizmendiarrietaren balioak berreskuratzen

Iragana gogoan, Jose Maria Arizmendiarrietaren bizitza gaurkotzeko lanean dabil Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarteak. Haren ideiak, balioak eta ikuspegia hedatzeko ahaleginean, hainbat egitasmo ditu esku artean. Eta erronka berriak ditu finkatuta

Iker Oñate DEBAGOIENA

Asko dira iragana gaurkotzeko ahaleginean diharduten elkarteak. Tartean da 2007an sorturiko Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarteak. Herritar talde batek sortu zuen, Jose Maria Arizmendiarrietaren kooperatibismoaren aitzindariaren ideien, ikuspegiaren eta balioen transmisiorako. "Ikusi genuen kooperatiba munduan ere ahanzturan erortzeko arriskuan zirela horiek", aitortu du Miguel Angel Laspiurrek, elkartearen presidentea. Gaur-gaurkoz, 374 bazkide ditu Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarteak.

Gauzak horrela, enpresaren alorretik harago doa elkartearen jarduna. "Ikaragarria badirudi ere, Arizmendiarrietak bere garaian egindako hausnarketak baliagarri dira gaur egun ere. Eta ez enpresa munduan bakarrik", dio Laspiurrek. Besteak beste, elkarlanean dihardute Estatuko zein nazioarteko zenbait unibertsitateekin: Mondragonen esperientzia ezagutarazi dute 200 unibertsitatetan baino gehiagotan –Tolosan (Frantzia), Parisen, Oxforden, Perun eta Kuban izan dira, besteak beste–.

Datorren urterako erronkak

Eta erronka berriak dituzte finkatuta ikasturte berrirako –horietako batzuk gaur arte egindakoaren jarraipena dira–. Esate baterako, erdigunean jarriak dituzte gazteak; izan ere, haiengana hurbildu gura dituzte Arizmendiarrietaren "balio humanistak". Ahalegin horretan, hain zuzen ere, gazte talde bat dago elkartearen, eta haren proiektu ezberdinetan esku hartuko dute haiek.

Horrez gain, hasiak dira Arizmendiarrietaren lanak gaurko euskarrietara egokitzen, Liburutegi Birtualaren bitartez. "Sarean eskainiko ditugu hark bere



Arizmendiarrietaren Lagunak Elkartearen bazkideak, urteko batzarrean. GEMMA MUÑOZ

ENPRESENDAKO EREDU "HUMANISTA" HEDATZEKO AHALEGINEAN DABIL ELKARTEA

garaian idatzitakoak, herritarrek eskuragarri izan dezaten", argitu du Laspiurrek. Gaur-gaurkoz, dokumentua katalogatzen dihardute elkartearen kideek. Horren ostean hasiko dute digitalizatzeko prozesua.

Pertsonak erdigunean

Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarteak badu enpresei zuzenduriko egitasmoak ere. Esaterako, pertsonak erdigunean jarriko dituen negozio ereduak hedatu gura dute: Eusko Jaurlaritzara eta Nafarroako Parlamentura eroango dituzte horren inguruko legez besteko proposamenak. Aurreikuspenen arabera, erakundeek "laster" jorratuko dute enpresei bideraturiko "eredu humanistaren" gaia. Eta onartzea "garrantzitsua" da haren hedapenarentzat.

Arizmendiarrietaren ibilbidea, zineman

Gaizka Urresti bilbotarrak zuzenduriko *Arizmendiarrietak. El hombre cooperativo* dokumentala estreinatuko dute gaur, 18:00etan, Amaia antzokian. Eta ostean izango da ikus-entzunezkoa ikusteko aukerarik ere: bihar –19:30ean eta 22:00etan–, domekan –19:30ean– eta astelehenean –20:30ean–.

Hain zuzen ere, Jose Maria Arizmendiarrietaren ibilbidea ezagutarazi guran sortu dute dokumentala, Arizmendiarrietaren Lagunak Elkartearekin. Gauzak horrela, ikus-entzunezkoak hainbat testigantza ditu oinarrian; horien artean, kooperatibismoaren sorreran –eta garapenean– zeresana izan dutenak kontaturikoak dira nagusi.

Larrialdi galeriak eraikiko dituzte AHTaren obretan

Larrialdi galeriak egingo dituzte AHTaren zazpi tuneletan; tartean dira Induspekoa –Eskoriatza eta Aramaio artekoa– eta Udalatx-1ekoa –Arrasate eta Elorrio lotzen dituen–. Hain zuzen ere, 36 milioi euro pasako aurrekontua onartu dute obra horiek egiteko –BEZa barne–. Batez ere, segurtasuna handitu gura dute horien bidez: "Balizko

gorabeheren aurrean, bidaiariaren eta pertsonen ebakuaziorako segurtasun maila handitzea dakarte azpiegiturok". Hori horrela, tunel nagusiarekiko paraleloak diren galeriak eraikiko dituzte.

Modu horretan, Europar Batasunak ezarritako 1303/2014 araudira egokituko dira azpiegiturok. Hain zuzen ere, horretan, trenbide sareetako tunelen segurtasunari loturiko hainbat jarraibide ditu adostuta Europar Batasunak.

Automobilismoaren sektoreko egitasmo berria martxan dago

Automobilismoaren sektorearen egitasmo berriarekin dihardute Batz kooperatibak eta Ikerlan ikerketa zentroak: azeleragailu elektroniko adimenduna. "Gaur-gaurkoz, digitalizatuago eta automatizatuago daude ibilgailuak; eta, besteak beste, elementu mekanikoen orde, elektronikoak jartzea dakar horrek", azaldu dute bultzatzaileek. Hori horrela, "automotzio industriaren IV. iraultza" izenekoaren barruan aurkeztu dute egitasmoa. Beraz, esan daiteke automobilgintza sektorea jasaten ari den bilakaeraz jakitun eraiki dutela proiektua. Horren harira, jada garatuak dituzte zenbait prototipo.

Besteak beste, azeleragailu elektroniko adimenduna baliagarri litzateke gidariaren azeleratze beharrei buruzko informazioa ibilgailuaren sistemara transmititzeko.

Besteak beste, azeleragailu elektroniko adimenduna baliagarri litzateke gidariaren azeleratze beharrei buruzko informazioa ibilgailuaren sistemara transmititzeko.

ULMA Forja, S. Coop.		Oñati
OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA		
Eguna: 2018ko maiatzaren 11a		
Ordua: 9:00etan lehen deialdia eta 9:30ean bigarrena		
Tokia: MU Enpresagintzako auditoriuma – Oñati (Gipuzkoa)		
GAI ZERRENDIA		
1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BAZKIDEAK IZENDATZEAK BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO		
2. 2017KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTEA, ETA, ONARTZEAK HALA BADAGOKIO, ETA 2018KO GESTIO PLANA BERRESTEA		
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA		
4. 2017KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTEA ETA, ONARTZEAK HALA BADAGOKIO		
4.1. 2017ko ekitaldiko buruzko urteko kontuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio		
4.2. 2017ko ekitaldiko urteko kontu bateratuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio		
5. AUDITOREA IZENDATZEAK EDO BERRAUTATZEAK		
6. KAPITALAREN ORDAINKETA. 2017KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA		
7. 2017KO EKITALDIKO EMATZAK BANATZEAK		
8. KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIAREN 43. ARTIKULUAK INTERESEN MONETARIZAZIOA NEGOZIOAREN EGOERA FINANTZARIOAREN ARABERA MAILAKATZEARI BURUZ DIOENA ALDATZEAK, HALA BADAGOKIO		
9. JARDUERA SOZIALA ULMAI ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA APLIKATZEAK (IPDK)		
9.1. 2017an IPDKetik egindako erabilerari buruzko deskargua		
9.2. 2018an IPDK ko zehazteko aplikatzeko proposamena		
9.3. ULMAren 2018ko jardura sozialaren ikuspegiaren azalpena		
10. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK		
11. KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA IZENDATZEAK		
12. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEAK		
13. ZABINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEAK		
14. KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK BERRITZEAK		
15. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA		
16. AHALMENAK ESKUORDETZEAK		
17. GALDE-ESKEAK		
OHARRAK: Batzordeari proposamenak egin ULMA Forja, S. Coop. en ("Kooperatiba") egitasmo erdigunean dabilen urteko lehenik, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen laguntza (deskargak) egindako gaitasunarekin, Batz. Nagusiaren deialdiaren aurretik aztertzea aldi luzean ditzuten iradokiz. Iradokiz. gaitasunarekin zuzen kooperatibaren egitasmoa ditzuten erabilerari zuzendutako egitasmoak ditzuten iradokiz. Iradokiz. gaitasunarekin zuzen kooperatibaren egitasmoa ditzuten erabilerari zuzendutako egitasmoak ditzuten iradokiz. Iradokiz. gaitasunarekin zuzen kooperatibaren egitasmoa ditzuten erabilerari zuzendutako egitasmoak ditzuten iradokiz.		
KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA		
Oñati, 2018ko apirilaren 26a		



Egitura guztiak erabat "desegin" ditu ETAk

Maixol Iparragirre eskoriatzarrak eman du ETArekin behin betiko desgaitzearen berri. Era berean, "ekinbide politikoa bukatutzat" jo du erakunde armatuak. Aldez aurretik iragarritako erabakiaren ostean, Kanboko ekitaldia gaur

Eneko Azkarate ARRASATE

Azken adierazpena egin du ETak bere ibilbidearen amaieraren berri emanez eta desegiten dela adieraziz. Kanbon gaurko iragarrita dagoen ekitaldiaren bezperan egin du iragarpena.

Atzo, eguena, egin zuen irargarpena. Genevan, Henri Dunant zentroan, batu ziren nazioarteko 30 eragileren aurrean egin zuen ofizial erabakia, audio bidez.

Josu Urrutikoetxeak eta Mai-xol Iparragirrek irakurri zuten erakundearen adierazpena, eta "ekinbide politikoa bukatutzat" jo dutela esan zuen Iparragirre preso eskoriatzarrek.

Aurrez grabatutako formatuan irakurri zuten testua Urruti-koetxeak eta Iparragirrek, hiru erabakiren berri emanez: bate-tik, ETak bere "egitura guztiak erabat desegin" dituela. "Ez da berriro posizio politikoak adie-razten, ekimenak sustatzen eta gainerako aktoreak interpelatzen dituen eragile bat izango" adie-

**"GAUR ETORKIZUNARI
BEGIRATU NAHI
DIOGU, BAKEAN
BIZIKO DEN
EUSKADIREN
GEROARI, HAIN JUSTU
ERE"**

ANDONI ORTUZAR, EAJ

**"ETA-K EZ DU
KRIMENEN
ZIGORGABETASUNIK
LORTUKO, EGITEN
DUENA EGITEN
DUELA"**

MARIANO RAJOY, PP



Maixol Iparragirre. GOIENA

razi zuten ETako bi bozeramail-
leek.

Beste eremu batzuetan lan

Bestetik, iragarri zuten ETako militante izandakoek "beste eremu batzuetan" jarraituko diotela, "Euskal Herri bateratu, in-

**"ETA-REN ERABAKIARI
ONGI ETORRIA EMAN
NAHI DIOT. ARDURAZ
JOKATZEN DU 60
URTEKO ZIKLOARI
ITXIERA ORDENATUA
EMANEZ"**

ARNALDO OTEGI, EH BILDU

**"ETA-KO TERRORISTA
IZATEAK EZIN DU
ABANTAILARIK IZAN
JUSTIZIAREN
AURREAN.
HILTZAILEAK DIRA"**

ALBERT RIVERA, CIUDADANOS



Josu Urrutikoetxea. GOIENA

dependente, sozialista, euskaldun eta ez patriarkalaren aldeko borrokari, norberak egokien irizten dion tokian, betiko arduraz eta zintzotasunaz".

Erabaki horien ondotik, testuingurua interpretatzen du ETak bere azken agirian, era-

**"ETAREN
ZENTZUGABEKERIA
ETA BASAKERIA
SALATZEKO JARRI
BEHAR IZAN GENUEN
XINGOLA URDINA
BERRESKURATU DUT**

IDOIA MENDIA, PSE-EE

"ETA-REN DESEGITEAK POZTEN GAITU. BERANDU HELDU DEN ARREN ETA AUTOKRITIKA FALTA DEN ARREN

PABLO IGLESIAS, PODEMOS

kunde armatuaren sorreratik hasita: "Frankismoaren atzaparretan itota eta Estatu jakobinoak asimilatuta, Euskal Herria hiltzorian zegoela jaio zen ETA" dio. Eta, 60 urteren ostean, "bere buruaren jabe izan nahi duen herri bat bizi" dela dio, eremu eta arlo ezberdinetan "askok egindako lanari esker, belaunaldi ezberdinek egindako borrokari esker".

Gatazkari heldu

"Biolentzia politikoaren erabilera ezaugarritu duen aroa" itxi nahi duela adierazten du ETak segidan, "Euskal Herriaren eta estatuen arteko gatazkan". Eta, hain zuzen ere, gatazkari "bere osotasunean" ez eustea leporatzen die ETak estatuei, "konponbidea emateak ekarriko lukeen egoeraren heldur". Izan ere, erakunde armatuak dio "estatuek tematuta segitzen" dutela, Euskal Herria "aurreko ziklo horretan kateaturik mantentzeko, konfrontazio politiko soilaren duten ahultasunaz jakitun".

Erakunde armatuak dio ez
diola beldurrik egoera horri.

"askatasunaren eta bakearen aldeko prozesuak beste bide batetik egin dezan aurrera". 2011n borroka armatua behin betiko uzteko hartutako erabakiaren ondoko segida logikoa dela dio ETAK.

Gatazkaren ondorioei aurre egiteko, gatazkaren "muin politikoari eta historikoari" helteko orduan, "indar metaketa, herri aktibazioa eta ezberdinen arteko akordioak ardatz izango dituen herri prozesu bat eraikitzea" ezinbestekoa izango da aurrerantzean, ETaren ustez.

Erabakitzeko eskubidea

Bestealde, nazio aitorpena lortzeko, erabakitzeo eskubidearen "egikaritzea" izango da "gakoa" ETArekin ustez. Eta gogora ekartzen du "ezkerreko independentismoak" Euskal Estatua sortzeko norabidean egingo duela lan. Erakunde armatuak amaitzen du esanez, fase historiko berri horren mesedetan hartu dutela azken erabakia: "ETA herritik sortu zen eta orain herrian urtuko da".

	Servicios de Mantenición, S. Coop.	Oñati
OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA		
Eguna: 2018ko maiatzaren 10a		
Ordua: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena		
Tokia: ULMA Taldeko auditoriuma – Oñati (Gipuzkoa)		
GAI ZERRENDA		
1.	AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BAZKIDEAK IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO	
2.	2017KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA, ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO, ETA 2018KO GESTIO PLANA BERRISTEA	
3.	ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA	
4.	2017KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO	
4.1.	2017ko ekitaldiako bukatuko urteko kontuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio	
4.2.	2017ko ekitaldiako urteko kontu bukatuko aztertzea, eta, onartzea hala badagokio	
5.	AUDITORIO IZENDATZEA EDO BERRAULTZEA	
6.	KAPITALAREN ORDAINKETA. 2017KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA	
7.	2017KO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEA	
8.	KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIAREN 43. ARTIKULUAQ INTERESEN MONETARIZAZIOA NEGOZIOAREN EGOERA FINANTZARIOAREN ARABERA MAILAKATZEARI BURUZ DIOENA ALDATZEA, HALA BADAGOKIO	
9.	JARDUERA SOZIALA ULMAN ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA APLIKATZEA (IPDK)	
9.1.	2016an IPDKetarako egindako erabilerari buruzko deialdea	
9.2.	2017an IPDK-ko zenbaterokak aplikatzeko proposamena	
9.3.	ULMAren 2018ko jardura sozialaren aldean auzapena	
10.	BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK	
11.	KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA IZENDATZEA	
12.	KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA	
13.	ZAINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA	
14.	KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK BERRITZEA	
15.	HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA	
16.	AHALMENAK ESKUORDETZEA	
17.	GALDE-ESKEAK	
OHARRAK: Batzideari jagoenaren nize ULMA Servicios de Mantenición, S. Coop.-en ("Kooperatiba") egitasun edonaguri dimitzeko urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta lehenengo lehen deialdiari egindako gertaerak, Batz. Nagusiaren deialdiak erpinak atzeratuak izan diren. Hainbat, batzide partetzi jatorriak nize Kooperatibaren egitasun dimitzeko edonaguri araudia, proposatutako aldatutako lehenengo eta bigarrena lehen deialdiari lehen deialdiari, eta lehen deialdiari eta bigarrena eta deialdiari.		
KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA		
<i>Oñati, 2018ko apirilaren 25a</i>		



ZABALIK

XABIER ARREGI MURGIONDO

'Zero segregazioa!'

Nire aurreko zutabetxo honen bitartez saiatu naiz erakusten eta gogoeta proposatzen, ezer zenbatzen ez duen, baina, era berean, asko adierazten duen zero zenbakiaz baliatuz, gizarte-esparru ezberdinetan sortutako leloen oinarrian dauden egitasmoen, ametsen edota ikuskera berrien gainean.

Zero zabor! ikuskerak, esate baterako, asko lagundu digu ikusten hondakinen arazoari aurre egiteko, egiteke ditugunak.

O km! aldarrikapenak agerian utzi du euskal presoen kolektiboari aplikatzen zaion mendeku-politika.

Zero zarata!-k, berriz... amets bat izaten jarraitzen du pertsona eta kolektibo askorentzat.

Oraingoa, lelo bezala ikusi ez, baina iturri ezberdinetatik ezagutzen ari garen datuetan eta adierazpenetan antzeman daitekeen kezka eta aldarrikapen batekin natorkizue: gizartearen bilakaeraren eta aplikatutako –edo saihestutako–

AHALIK ETA AZKARREN NEURRIAK HARTU BEHAR DITUGU, EGOERARI BUELTA EMAN NAHI BADIOGU

hezkuntza-politiken ondorioz, gure hezkuntza sistemaren eskola-mapak, gure bailarakoak barne, erakusten digun segregazioa egoera larri eta ulergaitzaren gaineko gogoeta eta

salaketa ere.

Segregazio egoerak sortzen dira, labur esanda, baliabide eta aukera ekonomiko eta formatibo urriak dituzten familien seme-alabak eskola gutxi batzuetan kontzentratzen ditugunean, ghettoak sortuz.

Datuek erakusten digute, batetik, urtez urte eta etenik gabe gordintzen ari direla segregazio egoerak, eta, bestetik, datu azpimarragarria, sare publikoko eskolek pairatzen dutela, nagusiki, egoera.

Sakon hausnartu eta ahalik eta azkarren neurriak hartu behar ditugu, egoerari buelta eman nahi badiogu.

Hezkuntza Sailaren lehentasunak beste batzuk ei diren bitartean, bide horretan badihardute, dagoeneko, pertsona eta kolektibo ezberdinak.

Ea bada, hezkuntza eragile guztiak, behingoz, lelo honi begira jartzen garen, denbora galdu gabe: *Zero segregazioa... gure eskoletan!*

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Inklusioa

MIREN AMURIZA

HTTPS://LABUR.EUS/LBRON
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Lan-munduarekin lotutako datu esanguratsuak zabaldu dira aurren ere Maiatzaren Lehenaren bueltan, aniztasun funtzionalen bat duten behaginei buruzkoak, esaterako. Espainiar estatuan, lautik batek baino ez ei dihardu lanean.

Aktibo dauden horien artean, aniztasun sentzorialak dituztenak gehiago dira aniztasun intelektualak dituztenak baino eta emakumezkoak gutxiengoak, kasu batzuetan zein besteetan.

Estatu frantsesean, halaber, aniztasun funtzionalduna izatea omen beharginak diskriminatzeko motibo lehenetariko bat jatorriarekin, sexuarekin edota adinarekin batera (kasu askotan gurutzatzen dira faktoreotako bat baino gehiago ere).

Niri neuri, tamalez, atentzio gehiago ematen dit oraindik bulego, fabrika, komertzio, ikastetxe batean, gurgildun aulkiarekin dabilen behargin bat topatzeak, adibidez, ez topatzeak baino (tamalez diot, zer pentsatua ematen baitit hain ikuspegi murrizta edukitzeak).

Ondoriozta nezakeen, esaterako, nire, gure inguruan ez dagoela gehiengoaren abiaduran mugitzen edo komunikatzen ez den inor.

Ordea, hala ez dela jakinik, kontrakoaz oroitu; gure ingurunea dela (lanekoa nola aisialdikoa), gehiengoaren funtzionamenduarekin bat egiten ez dutenentzako inklusiboa ez dena.

Gure ingurune eraikia. Eraikia, beraz pentsatua (hobetoxeago edo okerreago).

Pentsatua, beraz birpentsatu, berrasmatu litekeena. Dezakeguna.

goiena“

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administratzaile zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa
arduraduna Marta Leturia.

Sailtako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amala Mundiñano,
Ziortza Martin,
Imanol Elortza.

Administratzaile

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Artzain Eguna egokia da artzaintza ezagutarazteko"

JABIER ARANDO ARTZAINA

Eneko Azkarate ARETXABALETA
Debagoieneko VI. Artzain Eguna ospatuko da domekan Elgetan. Han izango da Jabier Arando. Mendiolako Uriaga baserriko semea, kalera etorria. Urteetan, Fagor Arrasaten makinak muntatzen han eta hemen ibilia, baserri munduan murgildu izan da astialdian. Bolinaga auzoan txabola bat dauka, 30 bat ardi-buru eta ortu eta guzti. 68 urte egingo ditu aurki.

Debagoieneko Artzain Eguna eta halakoak inportanteak dira artzaintza balioan jartzeko?

Bai, horixe, oso ondo daude. Bestela, erabat ahaztuta dago-eta artzainen lana. Kaletarrak, gazteak, umeak... artzaintzaren mundura gerturatzeke modu oso ona da, gazta edo arkumea urtean bitan jateaz harago. Beharrezkoak dira halakoak. **Aurten seigarrena da. Aurreko edizioetan ere izana zara?** Bai, egon izan naiz, bai. Uste dut badoala eguna errotzen.



Jabier Arando, bere herrian, Aretxabaletan. MIRARI ALTUBE

Gainera, artzaintzaren inguruan, animaliak edota gaztak ez ezik, bestelako erakusketak edo azokak ere antolatzen dira. **Ze esango diezu azokara bertaratzen direnei?**

Hemengo gazta edo esnekiak, arkumeak eta okela, oro har, kontsumitu ditzatela. Ona dela. Bertakoa eta naturala. **Ze eroango duzu Elgetara?** Sei bat sasi-ardi. Han izango gara azalpenak-eta ematen.

Hiru gazte eta beste hiru nagusi, lau zpabost urtekoak. **Baserritik kalera etorria, beti atera izan duzu astia baserriko lanetarako.**

Bai. Ardiak-eta beti gustatu izan zaizkit. Eta kalean bizi arren, beti ibili izan naiz baserri inguruan. Gaur egun, 30 bat ardi-buru dauzkat, sasi-ardiak, okelatarako erabiltzen ditudanak; arkumetan, batez ere. Erdiak inguru Gabonetan saltzen ditugu eta besteak, martxo-apirilean... datozenean. Horrez gain, lau bat behor ere baditugu. Gaztarik ez dugu egiten.

Orturik baduzu?

Alabak dauka ortu txiki bat, eta han ibiltzen gara laguntzen, aste barruan, bereziki, denbora-pasa.

Gomiztegiko Artzain Eskolatik urtero ateratzen dira dozena bat artzain berri. Gazteendako aterabidea da?

Lan handia egiten dute, eta artzain gazteendako primerakoak dira. Dena den, artzain gazteendako, huts-hutsetik artzaintzan hastea oso zaila da. Hasieran, gastuak ez dira nolanahikoak, eta sorreratik zorretan hastea zama handia da. Oinarri bat izanez gero, etxeko baserria, gurasoen babesa..., posible da; bestela, oso nekeza.

HAU BE BADOGU!

Armagintzaren aurkako karabana abiatu dute



Euskal Herrian ere armagintzarendako lan egiten duen industria salatzeke hainbat herritatik igaroko den karabana abiatu dute.

@Arabaoe: "Ez Euskal Herrian, ez inon. Armagintzarik ez. SAPA, Aernova, Sener... ehun bat euskal enpresa inguru armagintzan inplikaturik daude. #EhKarabana #MugakZabalduz".

Maiatzaren 1ean, aldarrikapen ugari



Sare sozialetatik kanpo gai gutxi gelditzen dira gaur egun. Maiatzaren 1eko aldarrikapenek ere tokia izan zuten martitzenean, eta, besteak beste, #MaiatzarenLehena, #M1Duina eta #Maiatzak1 euskal traolak trending topic izan dira:

@pezil: "Gure lan eskubideen alde! #LanBiziHerriDuina-ren alde! #maiatzak1".

'La Manada' auziko sententziaren aurka

Pasa den astean eman zuten aditzera 2016ko San Fermin jaietan bost gizonen emakume bat bortxatu ondorengo epaiketaren sententzia -9 urteko kartzela-zigorra abusuengatik-, eta sare sozialetan haserrea erakutsi dute erabiltzaileek. Astebate geroago, #Ezdaez, #ezdaabusuabortxaketabaizik eta gaztelerazko traol berberak erabilienak izaten ari dira.

ITURRI ONETIK

Emakumeak dantzan Corpusetan

Oñatiko Corpus jaien inguruko erritual eta dantzak mendeetako usadio dira. Bakarrenetakoak. Jarraitzaile eta deboto asko dituzte. Mendekoste ondorengo bigarren egunean ospatu ohi dira, baina azken urteotan domekara -prozesioa- eta asteburu osora pasatu dira ekitaldiak. Ekainaren 1ean, 2an eta 3an ospatuko dira; berritasun aipagarriarekin: lehenengoz, emakumezkoak ere ariko dira dantzan. Berdintasuna bultzatzeko lanean dabiltza azkenaldian, eta aurten gauzatuko da.

ALBISTE IZAN ZEN

2008-05-03

Ino Galparsoro Arrasateko alkatea, espetxera

Isaias Carrascoren erailketaren ondoren, 2008ko apirilaren 30ean Espainiako Auzitegi Nazionalen deklaratu ostean, Soto del Realera bidali zuen Ino Galparsoro Arrasateko alkatea Baltasar Garzon epaileak. "Talde terroristarekin kolaboratzea" eta "ANVren jardueren etetea hautsi izana" leporatu zion. Erabaki horren ostean, maiatzaren 3an manifestazio jendetsua egin zen Arrasaten, alkatea aske uzteko eskatzeko.



Eskerrik asko!

NEREA VILLA

INTXORTA 1937 KULTUR ELKARTEA
ELGETA

Intxorta 1937 Kultur Elkartearen izenean eskerrak eman nahi dizkiegu duela 81 urte Elgetan gertatutakoa gogoratzeko Elgetako Udalak eta Intxorta 1937 Kultur Elkartek antolatu dugun jardunaldietan parte hartu dutenei. Berezik, apirilaren 22an *Intxortako ate*-n bildu ziren senideei eta herritarrei, Elgeta-Kanpanzar frontean hil zituzten erresistenteak omentzeko.

Baita *Elgetako gainbehera* antzezlanean parte hartu zuten boluntarioei ere: aktore profesionalei; aktore amateurrei; neska-mutikoei; Andoni Larrañagaren taldekoei; PCE-EPKri; antolakuntza eta atrezzoko lantaldeei; Intxorta, Oskarbi eta Mendi Mendia elkartei; materiala utzi zigutenei; autoa, kanoia, ospitaleko kamilla eta denda –Euskadiko fronteen berregileak– eta sirena ekarri zituztenei; Elgetako Udalari eta Turismo teknikariari; Banak antzerki taldeko zuzendari Rafa Herceri, ausartu baitzen denbora gutxiarekin erronka aurrera eramaten. Mila-mila esker.

Betiko zelai berdea eta lubakiak alde batera utziz, Elgetak kolpe militarren ostean jasan zuen basakeria antzeztu nahi izan dugu. Gure historiako pasarte mingarri bat izan da ardatza: tropa faxisten sarrera herrian.

Herritarrek jasandako bortxaketa eta erailketak edo garaiko faxisten ereserkia entzuteak tripako minak eragin dizkigu guztioi, nazka eta gorrotoak bihotzaren barrenak mugiaraziz. Gaur egun lortutako askatasuna inportantea izan arren, gure herrian faxismoari aurre egin ziotenen harrotasuna adierazten jarraitzen dugu eta ez gara geldituko egia, justizia eta erreparazioa lortu arte.

PPren eta PNVren arteko akordioa: argitu beharrekoak

JOSE ANTONIO AMUNDARAIN,
ALBERTO ETXEBERRIA, XABIER OREGI,
JAVIER KORTABARRIA, JOSEMARI
ICIAR ETA MIGUEL MARTIN
DUINTASUNA TALDEA
OÑATI

PPk eta PNVk adostu duten akordioa 2018rako eta 2019rako bakarrik izango da. Gero, %0,25era bueltatuko gara, ez da ziurtatzen aurrera begira pentsioak KPIaren arabera balioberrituko direnik. Ez da baliogabetzen PPren erreforma. Eros ahalmena ez da errekupe ratzen akordioaren ondorioz. %0,25 ezkutatu egiten da 2 urterako, hauteskundeak datozelako, interes alderdikoia gatik.

Pentsio baxuen arazoak berdin jarraitzen du. 247.000 pentsiodun dira hilean 700 eurotik behera jasotzen dutenak; hau da azpi-azpian dagoen benetako auzia.

Gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izan dadila eskatzen jarraitzen dugu. 310.000tik gora

pentsiodunek jasotzen dute 1.080tik behera, %56,6k.

Bere pentsioaren osagarria DBE (RGI) kobratzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko pentsiodun batentzat, PPk eta PNVk lortutako akordioak ez du eragin ekonomikorik.

Gehienez, DBEk bizikidetasun unitateko pertsona batentzat ematen duen 732,38 eurora hel daiteke.

PNVrekin paktatutako %1,6ko igoerak eta Ciudadanosekin paktatutako %2ko eta %3ko igoerak ez diete eragingo orain 639,30 euro dutenei –pentsioa gehi gutxiengo osagarria–, absorbiblea delako.

Eta ez die eragingo 639 euro baino gutxiago kobratzen duten alargunei; %40 Euskal Autonomia Erkidegoan eta %54 Nafarroan.

Pentsio altuenak kobratzen dituztenek bai –hilean 2.580 euro–, horiek izango dute igoera ederra, 40 euro baino gehiago hilean.

Iraunkortasun faktorea, oraingoz, 2023ra arte atzeratzea proposatzen da, baina ez da baliogabetzen. PSOEk, 2011ko erreforman, iraunkortasun faktorea 2027rako ezartzea eskatzen zuen.

Harrotuta dabilta PNVtarrak, egin duten akordiori esker pentsiodunen arazoak amaitu balira bezala, baina lehen bezala gaude. Espainiako aurrekontua ez da onartu, eta, onartzen badute ere, ez da ezer konponduko. Arazoa atzeratu besterik ez dute egin. Gaurko ogia, biharko gosea.

Bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoan, hor daude 247.000 pentsiodun, bizirik irauteko kalamidade ugari pasatzen ari direnak –emakume alargunak, batez ere; beste guztiak ahaztu gabe–.

Mobilizatzen jarraitu beharra dago, egiteko asko geratzen delako: 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eta hemengo bertako sistema publikoa lortzea.

Jose Maria Arizmendiari etaren gogoetak: lana

MIKEL LEZAMIZ
ARIZMENDIARRIETAREN LAGUNAK
ELKARTEAREN IZENEAN
ARRASATE

Langilearen Eguna aprobetxatuz, Jose Maria Arizmendiari etaren mezu-sorta bat aukeratu dugu, lanarekin lotuta:

–Lana da nork bere burua gauzatzeko, elkartasunerako, norbera hobetzeko eta hobekuntza kolektiborako bidea; zalantzan jartzeko zailagoa den kontzientzia gizatiar eta sozial baten adierazgarria da.

–Ez al da ba lana kapitala baino elementu nobleago, zaharrago eta gizatiarragoa, eta, honenbestez, ez al du estimu handiagoa merezi? Ezin justifikatuzko anbizioa ote da haren ordezkariak gidaritzaren nagusitasuna nahi izatea.

–Ondo lan egitea gauza bat ondo eta modu onean egitea da. Ez da tautologia. Ondo egindako gauza bat, hau da, baliagarria, behar bati

erantzungo diona, zeinaren kostua prezioa baino txikiagoa izango baita, eta prezioa bidezkoa eta onartua izango baita. Modu onean egindako gauza bat, teknikarekin, antolamenduarekin, ahalegin boluntarioak elkartuta eta batuta, eta betiere lan egiten duen gizakia errespetatuz, zeren eta helburuak ez baititu bitartekoak guztiz justifikatzen eta gizakia, maila altukoa nahiz baxukoa izan, beti baita garrantzitsuena.

Gogoeta gehiago hemen: <https://labureus/VTq26>.

Krosetako ekarpena: 8.315 euro. Eskerrik asko guztioi!

IÑAKI TELLERIA
KROSEN ANTOLATZAILEEN IZENEAN
DEBAGOIENA

Debagoieneko hiru ikastolak –Aranzadi, Arizmendi eta Txantxiu– eskerrak eman nahi dizkizuegu martxoaren 23an Baionako Bernat Etxepare lizeo berria eraikitzen laguntzeko krosean parte hartu zenuten ikasle, irakasle, familia eta herritarrei.

Egun hartan Aretxabaletan, Arrasaten, Bergaran, Eskoriatzan eta Oñatin egin ziren krosei esker eta haren bueltan antolatu ziren ekimenei esker –tonbolak, bigarren eskuko azokak, dantzak, txosnak...–, 8.315 euro lortu ziren Baionako ikastola berriari laguntzeko.

Eskerrik asko, beraz, elkartasun keinua eginez ekarpen horretan laguntza eman zenuten guztioi!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA





25 URTE

Ador

Hagin Klinika

*Mila esker
urte hauetan
bidelagun
izateagatik*



Aniztasunaren hilabetea

Estreinakoz kultur aniztasunaren hilabetea izango da maiatza Arrasaten. Herriko hainbat elkarteren elkarlanaren fruitua da, eta Arrasaten aniztasunean bizi direla ikustarazteko eta elkarbizitza positiboa bultzatzeko ekintza ugari prestatu dituzte

Xabi Gorostidi ARRASATE

Arrasaten atzerritarrak gero eta gehiago dira, eta gero eta nazionalitate ugariagoetakoak. Datu batzuk ematearren, 2018ko urtarilaren 1ean, adibidez, 1.566 atzerritar zeuden herrian, biztanleen %7,06 –2017an datua %6,56 zen–.

Nazionalitateka aztertuta, 64 herri ezberdinetako pertsonak daude herrian. Maroko eta Pakistan dira kopuru handienak dituztenak, 292 eta 241 biztanle, hurrenez hurren, baina gaintzeko nazionalitateak nahiko banatuta daude, eta horrek dakarren kultura aberastasuna ez da makala.

Errealitate hori aintzat hartuz, kultur aniztasunaren hilabetea antolatu dute, lehen aldiz, herriko hainbat eragileren artean. "Arrasaten kultura aniztasun handia dago, eta denon arteko elkarbizitza positiboa lortzeko beharra ikusi dugu. Kultura aldetik herri koloretsua gara, eta jendarteari zabaltu nahi diogu positiboa den zerbait dela", adierazi du Arrasateko Udaleko Prebentzio eta Aniztasun teknikari Tamara Perezek.

Elkarlanaren emaitza

Arrasatearren eta atzerritik etorritakoen arteko harremanak sendotzeko asmoz, hamaika ekintza prestatu dituzte maiatzean zehar egiteko.

Udaleko Aniztasun Sailaz gain, honako elkarte hauek ere parte hartu dute: Saharaldeba, IMME, Ekin Emakumeak, EPA, SOS Arrazakeria, Gurutze Gorria, Emakumeen Mundu Martxa eta

Kultur aniztasunaren hilabetea

- **Maiatzak 4** Formakuntza saioa gaztetxean, 18:30ean. *Atzerritartasun tramiteak, eta babes eta asiloa* izenburuarekin.
- **Maiatzak 5** Auzoko programaren jaia Soraluzen, goizean zehar.
- **Maiatzak 10** Marokoko ipuinak, 18:00etan, Kultureteko Jokin Zaitegi gelan.
- **Maiatzak 11** Saharar festa, 18:00etan, Seber Altube plazan.
- **Maiatzak 12** Bazkari kultur-anitza, gaztetxean.
- **Maiatzak 13** *Emakumeon aniztasuna* mural kolektiboaren margotzea.
- **Maiatzak 14** Arrasateko bizilagun berriei ongietorria.
- **Maiatzak 16** *La inmigración de origen extranjero en el País Vasco y Arrasate, mitos y realidades* hitzaldia. Ikuspegi Inmigrazioaren Euskal Behatoki zuzendariak eskainiko du, 18:00etan, Kultureteko areto nagusian.
- **Maiatzak 18** *Bideak gurutzatzen* dokumentala eta mahai-ingurua. 18:00etan Kultureteko areto nagusian.
- **Maiatzak 21** Kultur Aniztasunaren Mundu Eguna, 18:00etan, Seber Altube plazan, henna tailerra, erakusketa eta aniztasun argazkia egingo dira.
- **Maiatzak 24** Ramadaneke egun bat nolakoa den erakutsiko dute, 18:30ean, Seber Altube plazan.



Antolatzaileak Monterronen, prentsaurrekoa egin ostean. IMANOL SORIANO

Txatxilipurdik. "Iaz munduko arrozen ekitaldia egin genuen, eta urte honetan halako ekintzak egiten jarraitzeko asmoa genuen. Halako ekintzekin, norbere kul-

turaren berezitasunak elkarri erakusteko aukera daukagu. Baina, ezberdintasunak azaleratzeko baino gehiago, finean, antzekotasun handiak dauzkagula ikusteko balio dute ekimen hauek. Ez dugu elkar erlazioatzeko ohitura handirik, baina, egiten dugunean, gero eta gehiago jabetzen gara horretaz", azaldu du Tamara Perezek.

Atzeritarren datuak

Hauek dira 2018ko urtarilaren 1eko datuak.

Demografia

Biztanleria	22.175	%100
Atzeritarrak	1.556	%7,06

Jatorri nagusiak

- **Maroko** 292 lagun.
- **Pakistan** 245 lagun.
- **Kolonia** 137 lagun.
- **Honduras** 101 lagun.
- **Aljeria** 93 lagun.
- **Portugal** 87 lagun.
- **Bolivia** 58 lagun.
- **Nikaragua** 48 lagun.
- **Sahara** 43 lagun.
- **Txina** 40 lagun.

ITURRIA: ARRASATEKO UDALA

Parte hartzearen beharra

Baina helburua betetzeko, edo, behintzat, bertara hurbiltzeko, antolatzaileek ezinbestekotzat jo dute herritarren parte hartzea. "Arrasatearren ekintzetan parte hartzea da lortu nahi duguna. Alboan bizi arren, hartu-eman gutxi izaten ditugu herrian bizi diren atzeritarrekin. Elkarbizitzaren erronka denona da, eta, bi aldeek parte hartu gabe, nekez lortuko dugu elkarbizitza hori".

Kartel irabazlea

Pablo Murilloren diseinuak ilustratuko du kultur aniztasunaren hilabetea: "Mezu positiboa bidali nahi izan dut".



Atzeritarrei ateak zabaltzea helburu

AGAKOko kideek bat egin dute kultur aniztasunaren hilabetearekin, eta bi ekintza gaztetxean bertan egingo dituzte.

"Ohartu ginen Arrasaten kanpotik etorritako jende asko egon arren ezer gutxi dakigula eurei buruz. Oso kontaktu gutxi daukagu eurekin, eta, azken finean, Arrasateko herritarrek dira, gu ere garen bezala", esan du Amagoia Muniozgurenak, AGAKOko kideak.

Gai horri buruzko hausnarketak egin izan dituzte batzarretan, eta, hori dela eta, Ekin Emakumeekin eta halako elkarteekin harremanak hasi zituzten.

"Egitarauko bi ekintza gaztetxean egingo ditugu, baina bai bazkaria eta bai formakuntza saioa aitzakia bat izango dira atzeritarrei gaztetxeko ateak zabaltzeko. Gaztetxea herriarentzako dela uste dugu, eta zenbat eta anitzagoa, hobeto".

Bi ekintzetako lehena gaur 18:30ean egingo duten formakuntza saioa izango da. "Ezer gutxi dakigu kanpotik Euskal Herrira etortzeko bizi duten prozesuari buruz. Paperak lortzeko tramiteak oso luzeak dira, eta egoera horiek nola bizi dituzten jakiteko interesa genuen".

Bigarrena maiatzaren 12an egingo den bazkari multikulturala izango da. "Bazkarirako lantalde ezberdinak sortuko dira, eta nork bere erara prestatuko ditu jakiak gaztetxeko sukaldean".



Gaztetxeko atea. X.G.

OHARRAK

Erretiratuei omenaldia

Maiatzaren 26an egingo da, eta bazkarirako txartelak hilaren 7tik 11ra bitartean jaso beharko dituzte Abaroako bazkideek.

Abaroako irteerak

Maiatzaren 15ean Iruñera joango dira egun-pasa eta maiatzaren 31tik ekainaren 13ra arte, aldiz, Alacanteko Calpe hirira oporretan.

Ibai-Arteko dendetan erosketa magikoak maiatzean zehar

Arrasate txartelarekin ordaintzen duten bezeroek erosketa magikoak egin ahal izango dituzte. Maiatzaren 2tik 31ra, erosketa txartelean *magiari* esker hitzak agertuz gero, debalde aterako zaie erosketa. Kanpainaren baitan, Ibai-Arteko kideek magiarekin lotutako objektuekin apainduko dituzte euren dendak.

Alderdi politikoak, 'La Manada' auziko epaiaren aurka

Euren ustez, ez zen sexu abusua izan, sexu eraso baizik, eta horrek "etsipena eta haserrea" eragin du talde politikoen artean.

Hori plazaratzeko, sei puntu-ko adierazpen instituzionala adostu zuten aho batez. Besteak beste, honako hau aipatzen zen bertan: "Sententziak jasotzen duenarekin gure erabateko desadostasuna adierazten dugu, eta, bereziki, jazotakoa sexu-abusu jarraitu gisa aitortu delako. Zentzu honetan, gure babesa erakutsi nahi diegu aipaturiko sententzia inpugnatu edo inpugnatuko duten erakundeei, beharrezkoak diren errekurtsorako bitartekoak erabiliz".

Arrasatek ez duela inolako eraso matxistarik onartuko esateaz gain, ondorengo deia egiten zieten arrasatearrei: "Udalak herritar orori dei egiten dio sententzia hau arbuia eta biktimari babesa adierazteko deituko diren mobilizazioetan parte hartzera".

Gurasoentzako tailerrak sexualitate askeari buruz

Gurasoak trebatzen jarraitzeko asmoz, adinka banatutako hiru tailer antolatu ditu Udal Sexologia Zerbitzuak datorren aste-rako.

"Seme-alabak zoriontsu izaten laguntzeko, egiten dituzten galdarak erantzuteaz gain, beraien gorputza ezagutu, onartzen lagundu, komunikatu, hitz egin, entzun, izan ditzaketen iritziak errespetatu behar ditugu. Pertsona bakoitza bakarra delako, seme-alabei bizitzeko eta adierazteko modu propioa eraikitzen laguntzea da gurasoen eginkizunetarikoa bat", azaldu dute Sexologia Zerbitzuko antolatzaleek.

Saioak astelehenean, martitzenean eta egueztenean egingo dituzte, eta Montse Velasco pedagogo eta sexologoak gidatuko ditu.

Kulturateko Jokin Zaitegi gelan egingo dituzte; gaztele-raz -14:45etatik 16:15eara- eta euskaraz -18:00etatik 20:00etara-.



GELMAko etxebizitzak (Arrasate)






4 logela
102,29 m² erabilgiri
307.500 € - erzu



2, 3 eta 4 logelako etxeak
343.500 € - erzu

HARTU HITZORDUA ETXEBIZITZA PILOTUA IKUSTEKO

Eta ezin badut nire etxea saldu?

EZ KEZKATU zurea saldu arte ez duzu eskrituratuko

%100eko arrakasta azkeneko 5 urteetan





BIBAI
INMOBILIARIA
"12 URTEREKO ESPERIENZA"

Tel 943 25 38 21
E-mail info@inmobibai.com
Deba kalea 3 Arrasate
www.inmobibai.com



Harremaneko, Caritasko eta Udaleko ordezkariak, elikagaiak banatu aurretik aterako argazkian. XABI GOROSTIDI

Elikagaiak banatzeko hiru aldeko akordioa

Eliza Ebanjelikoak Gipuzkoako Elikagaien bankuko elikagaiak banatzeari utzi zion duela urtebete. Orain, Harreman GKEren, Caritasen eta Udalaren arteko akordioari esker, beharra duten Arrasateko 604 lagunek elikagaiak jaso ahal izango dituzte berriz

Xabi Gorostidi ARRASATE

Urtebetez egon da etenda Gipuzkoako Elikagaien Bankuko jakien banaketa Arrasaten. 2011tik 2017ra Eliza Ebanjelikoak egin zuen banaketa zerbitzua, baina, lokal barik geratu ostean, urte hartako martxoan egin zuten azken banaketa. Ordutik hona ez da zerbitzu hori egon Arrasaten, baina, hiru aldeko akordio bati esker, berriz banatuko dira elikagaiak behartsuenen artean. Udalak, Harreman GKEk eta Caritasek sinatu dute, eta, hasiera batean, urtebeteko iraupena izango du.

"Esaera txinarrak dio: *Emaizu arrain bat norbaiti, eta egun batez izango du zer jan. Baina arrantzan erakusten badiozu, egunero izango du zer jan*. Filosofia horrekin bat egin dugu beti, eta Elikagai Bankuaren banaketa egiteko zalantzak izan genituen. Baina konturatu gara herrian beharra dagoela, eta gure ekarpena beharrezkoa zela", azaldu du Harreman GKEk.

Rolak banatuta

Akordio horrekin, Udalak Mesedeetako ikastetxeko bi gelaren alokairua ordainduko die moiei, banaketa eta biltegitratzea egin ahal izateko. Horrez gain, garraio gastuak -jakiak Elikagaien Bankuak Bergaran duen biltegitik Arrasatera ekartzearenak- eta lokaletako argiteria eta mantentze gastuak ere hartuko ditu bere gain.

Harremaneko Elikagaien Bankuko boluntarioek elikagaiak batzeko, biltegitratzeko eta hartzaileen arabera dosifikatzeko ardura hartuko dute. Dosifikatzearena "ez da lan makala", kontuan izanda janaria ez zaie la pertsona banatuta heltzen, kiloka baizik.

HILEKO HIRUGARREN EGUENEAN EGINGO DUTE BANAKETA, MESEDEETA KOEN IKASTETXEAN

Banaketa hileko hirugarren asteko egunean egingo dute, eta hori ahalik eta erosoan egiteko Eroskik 45 erosketa-karrotxo eman dizkie. "Boluntario gehienak erretiratuak dira, eta karrotxoen laguntzarekin errazago egingo dute lan. Eroskiri eta lagundu digutenei eskerrak eman nahi dizkiegu", azaldu du Amaia Aspiazu zinegotziak.

Caritasi dagokionez, beharra dutenen zerrenda osatzeko eta hileroko maiztasunarekin eguneratzeko ardura hartuko du.

604 laguneko zerrenda

Gaur egun, hori da zerbitzu horren beharra duten pertsonen kopurua Arrasaten. Diru sarrearik ez dutenek, edo DSBE -beste inongo sarrearik gabe- jasotzen dutenek jaso dezakete zerbitzu hori, betiere, Arrasaten erroldatuta badaude. Zerbitzua baliatzeko, Gizarte Zerbitzuetan, BAZen edo Lanbiden hartu beharko da eskaera orria, eta ondoren Caritasera eraman.



NIRE USTEZ

OSCAR RODRIGUEZ

The end

Luis Candendo Perez, Jose Fernando Artola Goicoechea, Ignacio Mateu Isturiz, Jose Artedo Quiles, Esteban Maldonado Llorente, Jesus Pascual Martin Lozano, Juan Moreno Chamorro, Manuel Leon Ortega, Juan Antonio Diaz Roman, Angel Astuy Rodriguez, Jose Reyes Corchado Muñoz, Pedro Galnares Barrera, Antonio Lopez Martinez-Colmenero, Luis Santos Hernandez, Argimiro Garcia Estevez, Mario Leal Baquero, Antonio Ramos Ramirez, Isaias Carrasco Miguel.

Beste inor, behingoz, ez erailtzeko hitza eman diguten honetan, gizalegezkoa zaigu ez ahaztea norbanako horiek Antzuolan, Aretxabaletan, Bergaran, Eskoriatzan, Oñatin edota Arrasaten ETak eraildako pertsonak direla. Gure herrietan, kaleetan eta etxebizitzetako atarietan eraildako pertsonak. Izen horiek, orain, tamalez, ez dute hainbesteko garrantzirik. Orain, funtsezkoena bestelakoa dugu: geure buruari galdetzea ea, zinez, axola zitzaigun, ala beste nonbaiterantz ez ote ari ginen so egiten ari? Betirako bukatu ei den burugabekeria izugarri hori bukatzeko zer edo zer egin al genuen?

OHARRAK

Herri Urrats

Senperera joateko autobusa antolatu du Debagunek. Txartelak AEDren egoitzan har daitezke -12 euro, eta bazkideek 10- maiatzaren 10a baino lehen.

Ipuin kontaketa

Marokoko ipuinak landuko dituzte Bibliotekan hilaren 10ean. Jokin Zaitegi gelan kontatuko dituzte, 18:00etan.

Bi puntako bertsolari AEDk antolatzen duen bertso afarirako

Aitor Sarriegi eta Amaia Agirre bertsolariak izango dira AEDk SUDCeekin elkarlanean antolatzen duen bertso afariko gonbidatuak. Maiatzaren 18an egingo dute saioa, Alkartu elkartearen, eta bertara joateko txartelak 20 euron eskuratu daitezke AEDren egoitzan eta Monte eta Jai Zale tabernetan. Sarrerak hartzeko azken eguna: maiatzaren 15a.



EMAKUMEEN MUNDU MARTXA

Azken erasoei erantzuna

Nahi baino sarriago ikusten den argazkia da, baina Emakumeen Mundu Martxakoak ez daude erasorik erantzunik gabe utziko prest. Azken egunetan gertatutako bi eraso matxisten aurrean aski dela eta nazkatuta daudela adierazi zuten eguaztenean Herriko Plazan elkartu ziren herritarrek.

Lehen aldiz jokatu dute igoera fasea etxean

Bosgarrenean, Arrasateko zaleen aurrean izango dute Lehen Nazional Mailara igotzeko erronka. Hiru egunetan, hiru lehia. Lau taldetatik onena denak lortuko du txartela. Aurreko igoera, 2013an, Santoñan lortu zuen Ford Mugarrik

Mireia Bikuña ARRASATE

40 urte bete ditu Arrasate Eskubaloitza Taldeak. 1978an sortu zenetik, lehen aldiz jokatu du Lehen Nazional Mailara igotzeko fasea etxean, Arrasaten, Iturripen, hilaren 11tik 13ra. Denboraldiko unerik erabakigarria etxeko zaleekin disfrutatu gura dute. "Hein handi batean, zaleengatik ekarri dugu igoera fasea Arrasatera. Aurre-fasean Iturripeko harmailetan egon zen giroa eta babesak indarra eman digu", esan du Josu Herrero jokalaria. Zaleak saritzeko, eta eskubaloia badagoea erakusteko.



Ford Mugarriko kideak, igoera ospatzen, Santoñan. GOIENA

Kopa txapelketan

Eta zale horiei sari biribila emateko –alegia, igoera lortu ahal izateko–, buru-belarri dihardute lanean, kopa txapelketan. "Denboraldian zehar minutu gutxi jokatu dutenei aukerak emateko eta bigarren taldeko jokalaria gure dinamikan sartzen joateko". Kopako partidua aste bukaeran eta astegunetan jokatu dituzte. "Tentsioan mantentzeko modu bikaina da hori. Entrenamenduak eta partidua", dio Herrerok. Baina aitortzen du oraindik ez dutela igoera pentsatu. "Lauko finalera helduta, aukerak hor daude. Baina oraindik ez dugu horretan pentsatu. Orain, oraingoak".

Beste faseak

Bi denboraldi egin zituen Ford Mugarrik Lehen Nazional Mailan: 2013-14 eta 2014-15. Santoñan (Kantabria) lortu zuen txartela. Hirugarrenean. Aurretik, 2010-11 denboraldian Montcada i Rexacen (Bartzelona) egon ziren, eta 2011-12an Gijonen eta Elxen. Azken igoera fasean, 2015-16an, Alcañiz (Valentzia) lehiatu ziren, sari barik.

Musakolako bizikleta martxan 350 ziklistak parte hartuko dute

XI. aldiz egingo dute mendiko bizikleta irteera, 09:00etan hasita. Hortaz, antolatzaileek ipinitako gehieneko kopurua bete egingo da. "Aurrez, 325ek eman zuten izena. Domekan, beste 25endako lekua egongo da", esan du Iban Diaz antolatzaileak.

Ibilbidean aldaketa txiki batzuk egin behar izan dituzte. Iazkoaren antzekoa da, baina beritasunekin: bidexka berri bat ipini dute.

Aldi berean, hasiberriendako beste irteera bat egongo da. "Arrasateko emakume talde batek eskatu zigun ibilbide errazago bat markatzea. Bereziki, emakumeak mendiko bizikletara hurbiltzeko. Hogei kilometroko bat zehaztu dugu. Gutxienez, zazpi emakume egongo dira irteeran", dio Diazek.

Azkenik, neska-mutikoendako ibilaldia ere egongo da. Egunean bertan eman beharko dute izena: 10:00etan, Ziar-Ola elkartean. 10:30ean hasiko dute irteera, gurasoen laguntzarekin.

LIRAIN
ESTETIKA ZENTROA

%10eko
deskontua

Ex gara osasun zentroa.
RPS: 48/14

943 79 52 17
Bianca Ferrer, 1
20500 ARRASATE

Eskaintza baliagarria maiatzaren 31 arte.

PRESTA ZAITEZ UDA HONETARAKO

Lirainen garbi dugu tratamendu batek emaitza ona izateko ezinbestekoa dela diagnostiko zuzena egitea. Diagnostikoa egin ondoren, Lirainen teknologiarik aurreratuenak eskaintzen dizugu, saio gutxitan emaitza hoberenak lortzeko:

VelaSmooth

VENUSFREEZE

KRIOLIPOLISIA

TALKA-UHINAK

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe, diagnostiko pertsonalizatuak.



Jose Mari Etxabe Txosa eta Imanol Barrenetxea-Arando, gaur irekiko duten erakusketan, Kulturaten. ENEKO AZURMENDI

Azken hamar urteetan landutako taila ikusgai

ARTE Arrasateko Tailaginen Elkartek 'Egurraren Lilura' erakusketa zabalduko du gaur, egubakoitza, 18:30ean, Kulturateko klaustroan; 23 tailugileren lanak egongo dira ikusgai maiatzaren 26ra bitartean, astelehenetik zapatara, 17:30etik 20:30era

Eneko Azurmendi ARRASATE

ARTE taldearen hirugarren erakusketa izango da aurtengoa. 2003an egin zuten lehena, Harresi aretoan, eta 2008an bigarrena, Kulturaten. 10 urte geroago, hirugarrena zabalduko dute, eta azken hamar urte hauetan landutako taila erakutsiko dute *Egurraren lilura* erakusketaren bitartez.

Erakusketaren talde izaera nabarmendu gura izan dute. "Oso lan onak daude, eta, era berean, horren onak ez direnak ere bai. Baina gure lanak dira eta gutako bakoitza oso harro dago norbere lanarekin", azaldu du Jose Mari Etxabe Txosa-k, elkarteko kideak. Izan ere, taldean denetik dago, tailuntzan duela urte askoan taila egiten dihardutenak.

Imanol Barrenetxea-Arando elkarteko kidearen esanetan, erakusketaren helburua hau da: "Arrasateko herriari erakustea zer egiten dugun elkartean,

ze maila daukagun eta jendea animatu dadin gure elkartera hurbildu eta tailuntza mundua barrutik ezagutzera. Ondoren, gustatuz gero, ateak zabalik ditugu edonorentzat. Ea tailuntza Arrasaten luzaroan mantentzerik dugun", adierazi du. Izan ere, kideen %80 erretirodunak dira, eta jende gaztearen beharra dagoela nabarmendu dute.

Bestalde, emakume kopuruak ere kezka puntu bat sorrarazten diela diote. Emakume bakarra da bazkide gaur egun. "Gu ere harritu egiten gaitu horrek. Nahiago genuke guk ere emakume gehiago animatuko balira. Hemen ateak zabalik ditugu guztiontzat", onartu du Barrenetxea-Arando.

ERAKUSKETAREN HELBURUA DA ELKARTEA BERA ETA TAILUNTZA MUNDUA EZAGUTZERA EMATEA

Lehenengoz, izena

Aurreko bi alditan ez bezala, aurtun izena jarri diote erakusketari: *Egurraren lilura*. "Egurra beti ikusten dugu altzarietan, hormetan edota zuhaitzetan. Gu harago goaz, eta beste lilura bat ematen diogu egurrari. Azken finean, lilura egurrean dago. Egin behar den bakarra da soberan dagoena kendu", dio Barrenetxea-Arando.

48 bazkide elkartean

ARTE elkartea 1982.urtean sortu zena, zurezko taila landu, sustatu eta zabaltzeko asmoarekin. Urtero formakuntza ikastaroak antolatzen dituzte, has tapenekoak –udazkenean– eta hobetzekoak –neguan–.

Gaur egun, 48 bazkide ditu, eta landutako tailuak ere izan du eboluziorik. "Aniztasunean irabazi dugu. Euskal taila, taila geometrikoa, eguneroko lan tresnak, erliebeak, eskultura tradizionalak, eta abar lantzen ditugu ARTEn".



GOIKOBALU

Esperientzia ederra Bartzelonan

Goikobalu abesbatzakoak gustura ibili dira Bartzelonara egindako bidaian, eta, Juan Antonio Barriocanal abesbatzako presidenteak adierazi duenez, "esperientzia ederra" izan da. "Oso harrera ona egin ziguten eta une oro gure gainean egon dira. Txalotzekoa izan da gurekin izan duten jarrera, eta oso pozik itzuli gara", azaldu du.

Txabela Bragasen antzerki emanaldia gaur gaztetxean

Txabela Bragas talde bizkaitarrak antzerki emanaldia eskainiko du gaur, egubakoitza, gaztetxean, 21:00etan –sarrera doan da–. *Las heridas de la planta del pie tardan más tiempo en curarse* izango da antzerkiaren izena. AGAKOK antolatu du gaurko emanaldia, eta, bide batez, herritar guztiak animatu nahi izan ditu emanaldiaz goatzera.

Arrasate Musikalek bi elkartruke egingo ditu datozen egunetan

Bihar, zapatua, Arrasateko eta Leongo musika eskoletako big band taldeek kontzertua eskainiko dute Herriko Plazan, 20:00etan. Pasa den astean arrasatearrak egon ziren Leonen, eta oraingoan leondarrak datoz hona. Pasa den asteko kontzertu bera eskainiko dute bihar. Arrasate Musikaleko big band taldea 24 musikariz osatua dago eta Leongoa, hamaseiz.

Bestalde, astelehenean –maiatzak 7– Arrasateko eta Bergarako orkestra gazteek eskainiko dute kontzertua parrokan, 20:00etan. Aurrez, kalejira bat egingo dute Arrasateko kaleetan. Arrasateko musikariak 24 dira eta Bergarakoak, berri, 40.

Arrasate Literatur Lehiaketako sari banaketa, egunean

AEDK antolatzen duen Arrasate Literatur Lehiaketaren 31. edizioko sari banaketa ekitaldia egingo dute egunean –maiatzak 10– Kulturateko areto nagusian, 18:30ean, eta aurtengo idazle gonbidatua Alaine Agirre bermeotarra izango da. Hiru modalitate edo genero ezberdinetan banatu dute lehiaketa: ipuinak, poesia eta bertso-paperak.

Valentziako abesbatza batekin abestuko du Arizmendikoak bihar

Arizmendi Ikastolako abesbatzak eta Valentziako Marni eskolako abesbatzak elkartrukea egingo dute. Asteburuan, valentziarrak etorriko dira hona eta hainbat ekintza egingo dituzte: Arrasaten bisita gidatu bat egingo diete Arrasate Zientzia Elkarteko kideek eta Arantzazu eta Donostia ere ezagutuko dituzte.

Bihar, gainera, kontzertua eskainiko dute bi abesbatzek, San Frantzisko elizan, 20:00etan. Euskal kantuak, Valentziako kantuak eta 2018ko Eurovisión jaialdiko *Tu canción* kantua ere abestuko dute elkarrekin. Ostean, luntxa egingo dute.

Arrasatearrak ekainaren 8tik 11ra joango dira Valentziara.



Eguaztenean Etxaguenen egindako bilera. J.I.

Ordenantza berria dator, auzoetako hilerrietarako

Horren berri, besteak beste, ematen ari da Udal Gobernua auzoetan egiten ari den bileretan. Horrez gain, beste gai batzuk ere badarabiltzate bilerotan: konposterako aukerak, eraikinen azterketa tekniko eta bideen inbentarioaren bigarren fasea

Julen Iriondo ARAMAIO

Aurreko astean beste hainbat auzotan bezala, oraingoan Etxaguenen egin dute bilera auzotarrarekin Udal Gobernuko ordezkariak. Informazioa eman eta jasotzeko bilerak izaten ari dira. Informazioa ematekoak, hiru gairen bueltan: 50 urtetik gora dituzten eraikinen azterketa tekniko; etxeko konposta egiteko aukerak; eta hilerriena.

Hilerriei dagokienez, osasun arloko betebeharrak era- ginda aldaketak izango dira auzoetan. Elizateei dagozkien hilerrietan orain arte bertan kudeatzen zituzten hezurak eta: gorpuak hilobiratzetik denbora bat pasata, elizako hezurtegie- biltzen zituzten hezurak. Au- rrerantzean, ordea, ezingo da halakorik egin, eta derrigorra izango da hezurak erretzea.

Udalak hartuko du bere gain horren ardura, familiak errauts haiek beretzat nahi ezean, be- hin- tzat. Horrela balitz, familiaren kontu izango litzateke gastua.

Gorpu edo hezurak erre egi- ten diren kasuetarako, gainera, hilerrietan haiek gordetzeko guneak atontzeko asmoa du Udalak, kontuan hartuta gero eta gehiago direla, lurperatu beharrean, hori egitea erabaki- tzen dutenak. Hori guztia erre- gulatze-ko ordenantza bat pre- statuko du Udalak.

Bileretan jorratzen ari diren beste gai bat da eraikinen az- terketa teknikoarena. 50 urtetik gorako eraikinek egin behar dute –ez bada egiturako obraren bat eginda dutela eta ez dela ordutik mende erdi pasa–, eta Udala laster hasiko da dagokien etxeetara gutunak bidaltzen; izan ere, Jaurlaritzak ezarrita- ko betebeharra da, baina udalen

**AZTERKETA TEKNIKOAK
EGIN BEHAR DUTEN
ERAIKINEN ZERRENDA
PRESTATZEN ARI DA
ARAMAIOKO UDALA**

esku utzi ditu zenbait lan. Zen- tzu horretan, Lierni Altuna al- kateak zioen Jaurlaritzatik bi- dalitako datu baseak akats ugari dituela, eta azterketa egin behar duten etxeen zerrenda egokitzen ari direla. Auzotarrak, bestalde, kezka agertzen ari dira, hainbatek susmoa duelako, adi- bidez, dirua ateratzeko baino ez ote den Jaurlaritzak ezarritako betebeharrak.

Bestetik, eta auzoetako bizila- gun askok eta askok konposta euren kabuz eta etxean egiten duten arren, horretarako bali- a- bideak –konpost-gailua, airezta- tzaileak...– eta informazioa Uda- laren bidez ere lor ditzaketela gogorarazten ari dira bilerotan.

Bideen inbentarioa

Informazioa jasotzeari dagokio- nez, Udal Gobernua bideen in- gurukoak kontrastatzen ari da auzoetan, publikoak zeintzuk diren zehazteko. Datozen aste- tan egingo dituzte halako bilera gehiago, falta diren auzoetan.

San Martin jaiak iragartzeko kartel lehiaketa, martxan

Edonork parte hartu dezake helduetan –16 urtetik gora–, eta aramaioarrek umeetan. Bi lan –originalak– aurkeztu ditzake bakoitzak, eta testu hau izan beharko dute: *San Martin jaiak 2018. Ekainak 29 eta 30 eta uz- tailak 1 eta 2*. Maiatzaren 28an amaituko da lanak udaletxean aurkezteko epea. Sariak: 60 euro umeetan eta 150 nagusietan.

Gorbeialdeko bertso eskolen topaketa, hurrengo barikuan


Kultura etxean izango da, 17:00etan. Dozena erdi bat bertso eskolatako 100 lagun inguru elkartuko dira, bat-batean zein aurrez prestatutako bertsoekin jarduteko. Biharamunean, Ara- bako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finala izango da: hilaren 12an, Legutition, Aitor Ugarte eta Martin Abarrategi aramaioarrak izango dira lehian.



JAVIER ARANDIA

Txapelketa ederra, txapela falta

Julen Olaizolak Matienako sanprudentziotako pilota txapelketako finala jokatu zuen martitzenean, Arbaizarekin batera. Arandia eta Solatxi – Bizkaiko txapelkunak – izan zituzten kontrario, eta horiek nagusitu ziren, emaitza estuarekin, 18-22. Huts askoko partidua izan zen. Final- laurdenetan eta finalerdietan oso partidu onak egin zituen Olaizolak.



NIRE USTEZ

LEIRE ELEJALDE

Kafea gustatzen ez zaidanetik

Umetan, inperfekzioaren existentziak muga zuen. 14 urterekin paretak sudur puntan jarritako kolore biziarekin pintatu, eta sikatutakoan zinta gaizki jartzeagatik atearen koadroa erdi berdea zegoela antzeman nuen. Pintoreak etorri zirenean, berriz, inoiz baino politago zegoen gela. Ez nituen koadroak begiratu. Ikastolako lanen atzerapenak helduen munduan lekuri ez zutela neritzon, ertzainek kafea hartzeko denborarik ez zutela, abokatuak jende prestatua zirela eta juezak miretsi beharreko profesionalak, ondo zegoena eta gaizki zegoena desberdintzeko gai zirenak eta azken honen errepikapena eragozteko neurriak hartzen zituztenak. Eta hazi egin nintzen.

Bat-batean jende despistatua sartu zen amarekin lanera, bat-batean uniformedun autoritateak tabernako atean agertzeak eragin zidan izualdia baretu zitzaidan barran eseri eta pare bat kafe edaten zituztela ikustean eta bat-batean erizainak ez zekien zauria infektatuta zegoenik.

Orain 18 betetzeko beldur naiz, konponbidea okurrituko ez zaidalakoan.



Atxorrotzeko Gurutze Santuaren ermita, pareko haitzetik aterata. IMANOL BELOKI

Mendiaz gozatzera Atxorrotx egunean

Ohiturari jarraituz, maiatzaren lehen domekan Atxorrotx eguna ospatuko da. Goizean tontorrera igoko dira herritarrek eta arratsaldean Fernando Eskoriatza plazan jarraituko du festak, Unaik eta Imanolek eskainiko duten erromeriarekin

Imanol Beloki ESKORIATZA

Urtero moduan, ohiturari jarraituz, Eskoriatzako Atxorrotx eguna ospatuko dute eskoriatzarrek maiatzeko lehenengo domekan; hau da, etzi.

738 metro dituen tontorrera igoko dira herritarrek. Gurutze Santuaren ermita bisitatu, mokadutxo bat jan eta goiza bertan

pasatu ostean, Fernando Eskoriatza plazan jarraituko du festak arratsaldean.

Eskoriatzako Udalak eta Atxorrotx GKEk antolatutako jaia goizeko bederatzietan hasiko da, txistularien dianarekin. Hain zuzen ere, herritarrek esnatu, eta Atxorrotxera joateko dei egingo dute. 10:30 aldera Atxo-

rrotxera igoko dira herritarrek, eta, horretarako, hainbat aukera izango dituzte; izan ere, bide ezberdinetatik igo daiteke Atxorrotxera: batzuk herrigunean hasi eta zementuzko bidean gora joango dira; beste batzuk, aldiz, Bolibar auzoan bira egingez. Horiek dira ohiko bideak, baina izango dira Leintz Gatzaga-

Atxorrotx eguneko egitaraua

Eskoriatzako Udalak eta Atxorrotx GKEk antolatutako jaia:

- **09:00** Diana, txistulariekin.
- **10:30** Atxorrotxera igoera.
- **11:00** Meza.

Fernando Eskoriatza plazan

- **18:00** Herritarrek egindako tortilla-pintxoak salduko dira plazan.
- **18:00** Erromeria Unai eta Imanol trikitilari eta pandero-jolearekin.

Oharra: Atxorrotxen jarriko den tabernan eta plazako tortillen salmentan ateratako dirua Atxorrotx GKEk bere proiektuetarako erabiliko du.

ko Dorleta santutegian gora joango direnak, edo Zapatei baserrian gorako bidea hartuko dutenak. Hala, iristen diren guztiek mokadutxo bat jan eta zerbait edateko aukera izango dute, Atxorrotxen taberna jarriko dute eta.

Kanpaiak jo, ekaitzak uxatzeko

Behin tontorrera iristean, Gurutze Santuaren ermitako kanpaiak jotzeko ohitura dute askok, eta, seguru asko, goiz osoan entzungo dira kanpai hotsak. Gainera, bertako kanpaiak joz gero ekaitzak uxatzen direla esaten duenik ere badago.

Horrez gain, Atxorrotzeko tontorrera igotzen diren haur gehienek sartu-irtenak egingo dituzte kobazuloan, elkarri sustoak eman...

Eguerdialdera, herrigunerantzago bidea hartuko dute ber-

taratutakoek, eta antolakuntzak eskatu du jaitsi aurretik nork bere zakarrak jaso ditzala, eremu osoa ahalik eta garbien geratzeko. Bazkalostean, Fernando Eskoriatza plazan jarraituko du Atxorrotx egunaren ospakizunak.

Dantzarako aukera arratsaldean

Arratsaldeko seietan, herritarrek eramandako tortilla-pintxoak salduko dituzte, eta, mokadutxoari laguntzeko, Unai Inurra-tegi eta Imanol Intxausti trikitilari eta pandero-joleek girotutako erromeria izango da.

**KANPAI HOTSAK,
EKAITZAK UXATZEKO;
ETA KOBAZULOAN
SARTU-IRTENAK, UMEEN
GOZAMENERAKO**



IBARRAUNDI MUSEOA

Bisita askoko erakusketa

Ibarraundi museoko *Eskoriatza atzo eta gaur* erakusketa ikusteko azken eguna gaur izango da, 10:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara bitartean. Antzinako eta gaur egungo argazkien bidez, Eskoriatzaren itxura nola aldatu den ikusteko aukera

izango dute bertaratzeko direnek. Argazkien ageri den moduan, zaharren egoitzako egoiliarrek izan ziren lehendabizikoak erakusketa ikusten. Beraien gaztaroko istorioez gogoratu eta elkarri hainbat kontu kontatzeko aprobetxatu zuten.

Biolin emanaldia izango da gaur, egubakoitza, Zaldibar antzokian

Arrasate Musikaleko eta Eskoriatzako Beheko Errota musika eskolako biolin irakaslea da Amaia Arzamendi, eta bi musika eskoletako ikasleekin batera hari kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, 18:30ean, Zaldibarren.

Urtero antolatzen dute, baina beste urte batzuetan ikasle gutxi batzuekin eskaini izan dute, eta aurreko ikasle guztiak batuko dira bertan. Haiekin batera, Isabella Blezien izango da pianoarekin laguntzen, eta, Eli Auzmendiaren gidaritzapean, Arrasateko talde txikia ere igoko da oholtzara. Ekainaren 7an, berri, Arrasateko parrokiaren eskainiko dute kontzertu bera.

Atxorrotx Kultura Elkartearen egunerako egitaraua prest dago

Atxorrotx Kultura Elkartearen eguna maiatzaren 12an ospatuko da, eta, urtero moduan, musika oinarri izanda, hainbat ekintza antolatu dituzte. Haurrentzako puzgarriak egongo dira eta taloa eta sagardoa hartzeko aukera izango da goizean, Fernando Eskoriatza plazan. Gero, paella-jana izango da, Inkernu kanpoaldean, eta 18:00etan, eguneko lehenengo emanaldia izango da: Iker Lauroba eta Leire Berasaluze musikarien kontzertu akustikoa Inkernu tabernan. Ostean, buruhandiak, Guda Dantza taldearen kontzertua 19:30-, ziza errifaren urteroko zozketa, eta, amaitzeko, DJ Parucho 22:30ean, Inkernun.



Aroa Garro, lehiaketaren irabazleetako bat, amona Timoti Segura alboan duela kontakizuna egiten. GOIENA

Maitasuna, irakurketa eta ezagutza zabalduz

Liburuaren Astearen 'Ezagutuz ulertu eta ulertuz maitatu' ekimenaren barruan, euren amonen kontakizun apartak eskaini zituzten, pasa den egubakoitzean, lehiaketako irabazle Olaia Balbasek eta Aroa Garrok, Zaldibar antzokian

Imanol Beloki ESKORIATZA

Ipuin kontaketa eta bestelako ekimenak, bigarren eskuko azoka, eta aurreko bosgarren aldian izan duen *Ezagutuz ulertu eta ulertuz maitatu* lehiaketa egin dute, Eskoriatzako bibliotekak antolatuta. Arizmen-di Ikastolako Almen guneko eta Luis Ezeiza Herri Eskolako seigarren mailako 57 ikaslek hartu dute parte, eta aurreko egubakoitzean egin zuten sari-banaketa ekitaldia, Zaldibar antzokian.

Aitona-amonekin ikasiz

Lehiaketara begira, aitona-amonen kontakizunak batu dituzte Almen-Arizmendi eta Luis Ezeiza ikastetxeetako ikasleek. Aitona-amonen eta biloben arteko harremanak sustatzeko baliagarria izateaz gainera, liburuetan kontakizun ez diren gauza asko ikasten dituzte elkarrekin. Hala, lehiaketako irabazleak, Olaia Balbas eta Aroa Garro, oholtzara igo ziren beraien amo-

nen bizitzak kontatzera. Garro amonarekin igo zen, Timoti Segurarekin, eta Balbas, berriz, izebarekin, amona oporretan zegoen eta.

Bikain borobildutako astea

Eskoriatzako bibliotekari Iñaki Agirianok adierazi du helburuak bete dituztela, orokorrean, Liburuaren Astea ondo joan delako, eta azken eguneko ekitaldiarekin ere ederto borobildu dutela: "Askotan joaten gara aitona-amonak bisitatzera, baina ezagutu, ez ditugu benetan ezagutzen, eta ekimen ederra dela uste dut. Ikasleek asko eskertzen dute ariketa, euren aitona-amonek eskaini dizkieten datu guztiak, nola kontatu diz-

ALMENEKO ETA LUIS EZEIZAKO SEIGARREN MAILAKO 57 IKASLEK HARTU DUTE PARTE LEHIAKETAN

kieten, eta abar. Transmisio hori oso garrantzitsua dela uste dut. Gainera, lan oso politak jasotzen ditugu urtero. Hori horrela, ez da erraza izan irabazleak aukeratzeko, zeri eman garrantzia... Irizpide batzuk jartzen ditugu, eta, bat aukeratzeko, istorioan kontakizun dena hartu dugu kontuan; bestea aukeratzeko, berriz, nola kontakizun den, edo nola idatzita dagoen".

Musika eskolakoak oholztan

Saioa gidatzen Dorleta Kortazar ipuin kontalaria aritu zen. Molly neskatilaren kontakizunarekin hasieratik harrapatu zuen Zaldibar antzokian bildutakoen arreta.

Beheko Errota musika eskolako ikasleak ere igo ziren agertokira, eta *Beenan eta begigorri munstroa* izeneko kontakizun musikatu ederra eskaini zuten. Pianoaren laguntzarekin, bost zatitan banatutako kontaketa egin zuten.

LEINTZ GATZAGA 17



Gatzaren mezulariak, Oionera bidean. GATZ MUSEOA

Gatzaren mezulariak aurreikusi baino lehen iritsi ziren Oionera

Zazpi lagunek 84 kilometroko bidea egin zuten Leintz Gatzagatik Arabako Errioxako Oion herriraino

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Pasa den zapatuan, zazpi lagun ateratu ziren Leintz Gatzagatik, oinez, GR-38an barrena – ardoaren eta arrainaren ibilbidea –, Oionera bidean. Zorionez, ez ziren eguraldi iragarpenak bete, eta giro ederrean egin zuten 84 kilometroko ibilbidea. Leintz Gatzagatik goizeko seietan abiatu ziren, eta hamahiru ordu behar izan zituzten. Leintz Gatzagako gatz eta Hiruerreketa-ko ura eroan zuten Oionera.

Ibilbidea egin zutenak egun bat lehenago elkartu ziren bidearen antolaketa lanak egiteko eta xehetasun guztiak markatzeko. Izan ere, asmoa 20:30ean bertan egotea zen, eta, gauzak ondo bidean, aurreikusi baino lehenago iritsi ziren.

San Prudentzio jaiak ospatu dituzte apirilaren 27tik 29ra bitartean Oionen, eta *gatzaren mezulariak* zein gatzagarrik

gonbidatu gisa izan dira Oionen. Neka-neka eginda iritsi ziren Arabako Errioxako herrira, baina asko gozatu zuten bidean. "Baso dotoreak igaro genituen, ibilbide benetan ederra osatu genuen", dio Oier Etxebarriak, ekimenaren antolatzaileetako batek.

Harrera bikaina

Zazpi lagun iritsi ziren 19:30ean Oionera; lau lagunek osorik egin zuten ibilbidea, baina, guztira, hamabik hartu zuten parte, horietako zortzik tarte batean edo bestean. Arabako Errioxako herritxoan zituzten zain, herriko jaietan erabat murgilduta, Oiongo alkatea eta Leintz Gatzagako txistulariak eta hainbat herritar.

Harrera beroa egin zieten guztiek *gatzaren mezulariei*, eta 21:00etan, produktuen trukaketa egin zuten Leintz Gatzagakoek Oiongoekin.

Gatz Museorako lan poltsa osatzeko deialdia egin dute

Leintz Gatzagako Gatz Museoko bisita gidatuak egiteko eta beste lan batzuetarako lan poltsa osatzeko deialdia egin berri dute. Lana bi urterako izango da, eta izena emateko azken eguna maiatzaren 25a da.

Bisita gidatuak, Gatz Museoko denda eta harrerako lana egitea, gatzak produzitzea, Facebook eta Twitter sare soziale-

tako kudeaketa egitea, azokak eta promozio ekintzak, Gatzaren Eguna... halakoak dira egitekoak. Deialdirako izen-ematea Leintz Gatzagako udaletxean egin beharko da, bulegoko lanorduetan.

Hala, lana eskuratu nahi duenak hainbat baldintza bete beharko ditu, eta horiek *leintz-gatzaga.eus* helbidean daude. Xehetasun edo informazio gehiago nahi duenak, bestalde, 943 71 47 46 telefono zenbakira deitu beharko du.

Berdintasuna lortzeko bigarren plana abian da

'Aretxabaletako emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. plana' hasi da lantzen Udala oraintsu, eta urtea bukatu bitartean jardungo dute horretan udal ordezkariak, teknikariak eta herriko eragileak; helburua da plan operatiboa eta egingarria zehaztea

Mirari Altube ARETXABALETA

Lehenengo Berdintasun Plana 2012an jarri zuen abian Udalak, eta iaz, bost urte pasatu ostean plan horrek emandakoa berrikusi zuten. "Nahiko plan korapilatsua zela konturatu ginen eta hura errazteko asmoarekin bigarren bati ekin diogu", jakinarazi du Karmele Uribarrik, Ongizate Saileko zinegotziak. Hain zuzen, udal ordezkariak, sail guztietako teknikariak eta herriko eragileekin egingo dute lan, "plan operatibo bat" zehazteko.

Herriko eragileekin elkarlanean

"Berdintasuna erabat barnertuta dagoen zerbaite izatea gura dugu; ez dakit plan batekin lortuko dugun, baina horretan ahaletinduko gara. Izan ere, arazo larri bat dugu gizartearen eta horri aurre egiteko modu bakarra da familian, hezkuntzan, erakundeetan... barnertzea berdintasuna", dio Uribarrik. Hala, lehenengo planaren ondorioak berrikustearekin batera udal teknikariak hasi dira lanean: "Arlo bakoitzean zer egin daitekeen hasi gara begira, eta gero, udal ordezkariak eta herritarrekin ere elkartuko gara", jakinarazi du Jone Arriolabengoa, Berdintasun teknikaria, eta zinegotziak gaineratu: "Sail bakoitzean bi edo hiru pauso adostuko dira, gutxi baina zehatzak, eta jarraipena egiteko samurrak izango direnak".

Udaleko sail bakoitzetik herriko talde garrantzitsuenek dei egingo diete lanketan parte har dezaten: "Oraindik ez dugu erabat zehaztuta prozesua, baina badakigu herriko eragile nagusienek bertan egon behar dutela. Seguru asko, Udaleko sail bakoitzetik dei egingo diete horiei: adibidez, Euskaratik Loramendi elkarteari; Ongizate Basotxori eta Gu Haziak Gara taldeari...".



Martxoaren 8an egindako elkarretaratze jendetsua. MIRARI ALTUBE

Uribarriren ustetan, feminismoa "iratzartzen dabil": "Aretxabaletan ez ezik, gizartearen orokorrean aurrerapausoak eman direla uste dut. Martxoaren 8aren ostean, feminismoa bere papera aldarrikatzen dabil", eta gaineratu du: "Herriko talde feministarekin berriro gaude harremanetan eta hori aprobetxatu beharra dugu, eskarmentu handiko taldea delako. Poliki-poliki gure herrian ere esnatzen goazela esango nuke".

"Datozen lau urteetarako plana izango da"

JONE ARRIOLABENGOA
BERDINTASUN TEKNIKARIA

Berdintasun arloa lantzeko Daiteke aholkularitza zerbitzua hartu zuen Udalak iaz udaberrian, eta hango Jone Arriolabengoa aramaioarra martitzen guztietan izaten da udaletxean (08:00-14:00).

Zeintzuk dira zure egitekoak?

Urte hasieran berdintasunari dagokion plan operatiboa onartzen da eta hor jasotakoak aurrera errotan ditugu gero. Kanpainak dinamizatzea ere



M.A.

tokatzen zait; Martxoaren 8a eta Azaroaren 25a, esaterako. Baita *Beldur barik* proiektua, jaietako sentsibilizazio kanpainak, ikastaroak... **Eta orain, berdintasun planari ekin diozue...** Bai; 2012an egindakoa oinarri hartuta, beste bat diseinatzen hasi gara datozen lau urteetarako. Eta udazkenean, indarkeria matxistaren aurkako protokoloari beste buelta bat emango diogu.



Kofradiak Iralabarri plazan duen bulegoa. SAN MARTIN-SAN JOSE KOFRADIA

Kofradiako kideak bazkideen zerbitzura izango dira bulegoan

Iralabarri plazan duten lokala zabalik izango dute hilabetearen ordu pare batez argibideak emateko

M.A. ARETXABALETA

Hildakoei azken agurra era duinean emateko sortua izan zen San Martin-San Jose kofradiak Iralabarri plazan du bulegoa. "Herritar askok, baina, ez dakite, eta horren berri eman gura diegu, nora jo jakin dezaten", diote zuzendaritza batzordeko kideak.

Hilabetearen egun batez zabalik

Ia 4.000 bazkide dituen kofradiako kideen zalantzak argitzea eta argibideak emateko egutegia zehaztea adostu dute orain: "Joan zen astearen kofradiako

zuzendaritza batzordeko kideak elkartu ginen eta erabaki genuen komenigarria zela kofradiako bazkideei arreta egunak eskaintzea; bestela, batzar egunean bakarrik elkartzen gara eta". Hori horrela, hilabetearen ordu pare batez ateak zabalik izango dituzte; hona hemen zehaztu dituzten egunak: maiatzak 14, ekainak 4, uztailak 2, irailak 3, urriak 1, azaroak 5 eta abenduak 3. Eta ordutegia izango da 18:00etatik 20:00etara.

Kontsultak posta elektronikoki bidez ere egin daitezke: aretxabaletakofradia@gmail.com.

Pentsioen gaineko hitzaldia antolatu du EH Bilduk hilaren 9rako

Guk gure pentsioak izenarekin azken hilabeteotan zeresan handia ematen dabilen pentsioen gainean argibideak emateko, hitzaldia antolatu du Aretxabaletako EH Bilduk. Datorren eguaztenean, maiatzaren 9an, izango da (18:00), Arkupen, eta bi lagun gonbidatu dituzte horretarako: EH Bilduko legebiltzarkide Nerea Kortajarena Ibañez eta Duintasuna elkarte-kide Marian Esnaola Uriguen.

Pentsio sistemaren gaineko kontuak argituko dituzte eta pentsio duinak eskatzerakoan zer esan gura den azalduko dute, besteak beste; era berean, gutxieneko pentsioa 1.080 euro izatea aldarrikatuko dute.

Emakume Gazteen Asanblada deitu dute domekarako

Martxoak 8 eta gero zer? leloarekin, batzarra deitu du *Atxabaltan Mzortzi eta gero zer* taldeak datorren domekarako, maiatzak 6, Durana kaleko udaletxe zaharrean (17:00).

Batzarrerako deia herriko emakume gazteei egin diete, eta gogorarazi gura izan dute Martxoaren 8a pasatu ostean oraindik "arrazoi asko" daudela lanean jarraitzeko, eta "beharra" ere egon badagoela. "Eta orain aukera ere badaukazu", gaineratu dute. Horregatik, hain zuzen, egin diete emakume gazteei elkartzeko deia: "Guztion dako egongo da lekua, eta Emakume Gazteen Asanbladari ekingo diogu orduan".



Atxabalta Mugi-ren arduradun Maialen Alkorta kiroldegiko sarreraren. MIRARI ALTUBE

Jarduera fisikoak duen garrantziaz jabeazazten

Atxabalta Mugi egitasmoak bi urte bete ditu, eta poliki-poliki pauso sendoak ematen dabil. Erabiltzaile kopuruak gora egin du, eta ikastaro eta jarduera sorta antolatzen du, batez ere, nagusiendako; hurrengo erronka da nerabeen sarea osatzea

Mirari Altube ARETXABALETA

Herritarrengan jarduera fisikoa sustatzea helburu duen Atxabalta Mugi egitasmoak dagoe-neko bi urte ditu. Athlon kooperatibak du horren ardura, eta Maialen Alkorta bergararrak hartu du otsail arte dinamizatzailer lanetan ibili den Iñaki Olaetxearen lekua.

Aholkuak eta jarraipena

Nagusiak dira ohiko erabiltzaileak, Basotxo erretiratuen elkar-teko kideak: "Osasun etxetik paziente asko bideratzen dituzte; bereziki, honako profil hau dutenak: sedentarioak, hipertentsioa dutenak, diabetes IIa, hiperkolesterolemia eta antzekoak", dio Alkortak, eta gaineratu du: "Orain, Udaleko Gizarte Zerbitzuarekin adostu dugu handik ere guregana bideratzea". Dena den, ez da derrigorra bi bide horietatik gerturatzea Atxabalta Mugi-ara, ateak zabalik dituzte edozein norbanakorendako. Durana kalean –Murruxiko mendizale

elkartearen lokalean– egoten da Alkorta astelehenetan (09:30-13:30) eta Ibarra kiroldegian eguaztenetan (14:30-18:30). Gerturatzen direnek jarduera fisikoa egiteko aholkuak jasoko dituzte, eta ondoren, jarraipena egingo diete.

Erorketen gaineko lantegia

Aholkuak eman bakarrik ez, ikastaroak eta jarduerak ere antolatzen dituzte. Aurtengo ikasturtean, esaterako, bi ikastaro jarri dituzte abian kiroldegian: batetik, KOI dago –koordinazioa, oreka eta indarra–, astelehen eta eguaztenetan (16:00-16:45); eta bestetik, yoga, martitzen eta eguenetan (16:00-17:15). "Horietan parte hartzeko ez da zertan kiroldegiko bazkide izan,

NAGUSIAK DIRA OHIKO ERABILTZAILEAK, ETA ORAIN, NERABEEKIN HASI GURA DUTE

baina bai Atxabalta Mugiko erabiltzaile. Hilabetearen kuota finko bat dute bi ekintzok", dio.

Bestetik, maiatzaren 23an, eguaztena, erorketen gaineko lantegia egingo dute Arkupen (10:00-12:00). 65 urtetik gorakoen dako da eta aurrez eman behar dute izena; hona bideak: osasun etxean (943 71 19 59); Basotxon (943 79 78 46) eta Gizarte Zerbitzuetan (943 71 18 62). Horiez gain, Basotxorekin elkarlanean, ibilaldiak antolatuko dituzte maiatzerako eta ekainerako.

Nerabeen sarea

Hurrengo erronka nerabeei hel-tzea da. Hain zuzen, nerabeen sarea osatu gura dute herriko hainbat esparrutako ordezkari-ekin batera, besteak beste, ikas-tetxeetakoekin, kale hezitzaileekin eta udal ordezkariekin. "Gaztetxoengan jarduera fisikoa sustatu gura dugu. Horren gainean hausnartu eta ekintza zehatzak aurrera eramatea izango da helburu nagusia".



M.A.

"Pentsio duin" eskean

Jaiegunetan ere ez dute hutsik egin Aretxabaletako erretiratuek eta pentsiodunek, eta, beste astelehen batez, pentsio duinak eskatzeko elkartu ziren apirilaren 30ean, "erabat kezkatuta". Haien eskaerarekin bat egin zuten hainbat senide eta herritar batzuk izan zituzten lagun agerraldian.

'Izarrik gabeko zerua' diskoko kantekin dator Igor San Juan

Igor San Juan musikari aretxabaletarrak *Izarrik gabeko zerua* diskoko kantak eskainiko dizkie herritarrei bihar, zapatua, Arkupeneko oholtzan, 22:00etan (sarrera, 4 euro).

Gaztelupeko Hotsak-ekin orain dela bi urte kaleratu zuen diskoa, Durangoko Azokarako, hain zuzen ere. Estilo asko jaso zituen hor; besteak beste, jazz, bossa nova eta swinga, baita sehaska kanta bat eta balada bat ere. Eta eskarmentu handiko hainbat musikarirekin egin zuen lan; Mikel Azkarate saxofoi-jotzaile bergararrarekin, esaterako.

Bihar, herrikideei eskainiko dizkie kanta horiek guztiak eta gehiago kontzertu intimoan.

'Ez dok hiru! Akustikoa' eskainiko du Tartean-ek etzi

Tartean antzerki taldeak formatu txikirako egokitu duen *Ez dok hiru! Akustikoa* lana eskainiko du domekan, maiatzak 6, Arkupen, 19:00etan (sarrera, 4 euro).

Mikel Martinez eta Patxo Telleria aktore ezagunak eta Adrian Garcia de los Ojos piano-jolea izango dira oholtza gainean. Euskal musikari egindako omenaldi bero eta hunkigarria da lana, eta umorez beteko du oholtza elkar ezin hobeto ezagutzen duen bikoteak: "Euskal Herriko kantutegian oinarritutako ikus-kizuna da. Eroa, harrigarria, irigarria azalez... baina azal horren poro bakoitzari geure musikarekiko maitasuna dario".





Aretxabaletako tomatearen historia batzen duen liburua.. MARC BADAL

Tokiko tomatearen historia ikertu dute

Maiatzaren 10ean, eguenean, 'Aretxabaletako tomatea. Bioaniztasuna, lurraldea eta jakintza partekatua' izeneko liburua aurkeztuko dute Arkupe kultura etxean. Bertan, liburuaren egile Marc Badal izango da azalpenak ematen

Imanol Beloki ARETXABALETA

Aretxabaletako tomatea, tomate arrosa edo tomate mozkorra izenez ezaguna dena oso famatu eta estimatu egin da azkeneko urteetan Gipuzkoa osoan. Hainbat lehiaketatan arrakasta izan du, eta, tokiko baratzeetako tomate mota horrek interesa piztuta, ikerketa abiatu zuen Marc Badal idazleak. Horrekin batera, Aretxabaletako tomatearen inguruko doktoretzatesi antropologikoa egiten ari den Marta Barbarekin elkarlanean, tomate mota horren historia ezagutzeko hainbat elkarriketa egin dituzte, eta, ikerketa-lan sendoaren ostean, *Aretxabaletako tomatea. Bioaniztasuna, lurraldea eta jakintza partekatua* izeneko liburua idatzi du Badalek.

Ikerketa-lan sendoa

Hori horrela, Marc Badal katalanak idatzitako liburua maiatzaren 10ean aurkeztuko dute, Arkupen, 18:30ean, eta hura

izango da bertan liburuaren nondik norakoak azaltzen.

"72 orri ditu, eta irakurtzeko arina den liburu honetan, Aretxabaletako tomatearen historia kontatu nahi izan dut; nondik datorren, edo nola etorri zen. Tomate mota horrek izan duen hedapena, eta hori egiteko erabili den modua... Horretarako, hainbat elkarriketa egin ditugu

ekoizle ezberdinekin, eta liburuaren aurkezpenean elkarriketa horietako protagonista batzuk ere izango dira Arkupen", adierazi du Marc Badalek, liburuaren egileak.

Tokiko tomatea hedatze aldera
Liburuaren gaineko azalpenak eman ostean, tokiko tomate mota ezberdinak banatuko dituzte hitzaldian. Izan ere, funtsean, hori izan da lan hori egiteko helburu nagusietako bat: "Tokiko baratzeetako tomate mota gutxi geratzen dira gaur egun, eta, kultura hori sustatzeko, herritarren artean zabaltzea da asmoa".

Ikerketa interesgarria

Aretxabaletako tomate mota horren historia zati bat ezagutzen dute herritar askok, baina, ikerketarekin, bitxikeria interesgarriak batu dituzte. "Zer bilatu dugun, ezin dut esan. Nahiago dut jendeak liburua irakurtzea eta deskubritzea".



MARC BADAL
IDAZLEA

(Bartzelona, 1976) Cristina Enea Fundazioko Haziera hazien artxiboko koordinatzailea da.



Ibai Zangitu, Ibarren, baloiarekin. IBAI ZANGITU

Erregional Mailan 13 urte pasa ostean, agur esan dio Zangituk

Azken sei urteetan Arizmendi taldetik pasatako jokalariek afaria egingo dute Basabe jatetxean

Goiena komunitatea

Ibai Zangitu / ARETXABALETA

Eskerrik asko dano! Regionalian 13 urte jokatu ostian ailegau da Ibarren azken partidua jokatzeko eguna! Badau futbol bat, ez dana telebistan agertzen, entrenamenduak gaueko 9etan diena, jokatzia egatik ordaindu egin biher dana, norbere kotxian milaka-igual flipau in naz- kilometro egin biher diena... baina, batez be, jende zoragarria ezaguetako aukeria emuten dotzuna. Ni horreaz geraketan naz, pribilegiua sentiduten naz zuekin momentu on honeik paseteko

aukeria euki dotelako. 13 urtetan, Eibar milioi bat aldiz bisitatu dot, irabazi egin dogu, galdu, txartelak be dezente jaso dittut... Honekin batera, eskerrik asko munduko partidutxarrenak ikusi eta astero-astero hor egon dan Zangitu fatherrei! Aupa UDA! Aupa Arizmendi! Hori hola, zapatu honetan ospakizuna egingo dogu, Arizmendi taldetik azken sei urtietan pasautako jokalarixok afarixa egingo dogu-eta, Basabe jatetxian.

Post-data: pofesionalek komunikaua idazten badaue, nik be bai, zergatik ez!

Basabeazpiko Udaberri Jaia zapatuan ospatuko dute

Haurrei, gazteei eta gurasoei zuzenduta, egitarau zabala eta osatua prestatu dute egunaz disfrutatzeko

I.B ARETXABALETA

Arizmendi Ikastolako Basabeazpi guneko kideek Udaberri Jaia ospatuko dute zapatu honetan. Aurtengoa hamahirugarren edizioa izango da, eta egitarau zabala prestatu dute egunerako.

10:30ean hasiko da jaia, Basabeazpi aurrean, eta 10:45ean, haurrentzako eta gurasoentzako jolasak eta herriko txoko ezberdinak bisitatzeko ibilaldia izango dira, Haur Hezkuntza-koendako eta Lehen Hezkuntza-koendako. 12:00etan, berriz, kalejira egingo dute; 12:30ean,

herriko plazan, erraldoi eta buruhandiak eta talo tailerra izango dira; eta 14:00etan, bazkaria egingo dute. Menua honako hau izango da: arroza, saiheskia eta postrea.

Argitxo ere bertan izango da

Bazkalostean, umeentzako tailerrak egingo dituzte, eta euskal karaokea ere izango da. Amaitzeko, haur eta heldu guztien lagun den Argitxoren agurra izango da. Horrekin batera, txokolata beroa hartzeko aukera izango da Basabeazpin.

AUTOAK

2018



Citroën Space Tourer.



Ford Ecosport.



Seat Ateca.

MODELO BERRIAK

SEGURTASUNA, EROSOTASUNA ETA
NORTASUNA, TEKNOLOGIAZ BALIATUTA

BIGARREN ESKUKOAK

BEZERO GUZTIEN BEHARRETARA
EGOKITZEN DIREN PREZIOAK

AZTERKETA MEKANIKOAK

EKOIZLEEK ESANDAKO MAIZTASUNAREKIN
ETA BETI PROFESIONALEK EGINDA

IAT, ARE ZORROTZAGO

HILAREN 20AN INDARREAN SARTUKO DEN
DEKRETUAK ALDAKETAK EKARRIKO DITU



Opel Grandland X.



Nissan Leaf.



NISSAN QASHQAI BERRIA BETI LEHENENGOA



NISSAN INTELLIGENT MOBILITY

GAURSA
Gamarrako Atea, 46 A-B 01013 - Gasteiz - Araba - Tel. 945 262 501
 Kontsumo mistoa: 3,8 - 5,8 l/ 100 km. CO₂ isurpenak: 99 - 134 g/km. Kontsumo homologatua europar legeriaren arabera.

Nortasuna dute egungo autoek

Erosotasuna helburu, bezeroaren beharretara egokituriko ezaugarriak daroatzate gaur egungo autoek. Eta, nola ez, auto etxeek oso aintzat hartua dute segurtasunaren garrantzia. Etengabeko berrikuntza prozesuan murgildurik da sektorea

Teknologia. Horixe dute egungo autoek bidelagun. Besteak beste, segurtasuna, erosotasuna eta nortasuna areagotzeko bitarteko dute hori. Eta auto-etxe guztiek dihardute horren bidetik, nork bere erara. Hori bai, sekula ere ez dute ahaztu markaren berezko nortasuna. Hala, aukera zabala dago Udalaitez, Citroen Chapime, Ford Mugarri, Gaur-sa Arabauto eta Takolo kontzesionarioetan eskuragarri.

UDALAITZ AUTOAK NORK BERE AURKI DEZAKE

Eskaintza zabala aurki daiteke Udalaitez kontzesionarioan, lau auto-etxerekin baitihardu elkar-lanean: Audi, Volkswagen, Seat eta Skoda. Hala, askotarikoak dira euren bezeroen profilak; nork berera egokituriko autoa aurki dezake.

Audi markari dagokionez, Q2 autoa azpimarratu du Jon Galdosek, kontzesionarioko langileak. Adibidez, diseinua du auto horrek indargune: "Berritzailea da, apurtzailea, kirol-automobi-

len itxurakoa. Horregatik guztiatik esan daiteke desberdina dela. Ez dagoela haren modukorik". Oro har, bezeroek gustuko dute modelo.

Gainera, kirol izaera horretara hurbiltzen laguntzen dioten bestelako prestazioak daroatza Q2 modeloak: 85 eta 140 kW arteko motorrak ditu bezeroak eskuragai –TFSI edo TDI–; eta, gura duenarendako, eskuragai dago lau gurpileko traxzioa duen autoa.

Bestetik, Volkswagen Tiguan autoa dakar gogora Galdosek. Gidariak autoa bere egiteko aukera zabala eskaintzen du modeloak. Eta Volkswagen Digital Cockpit pantaila lagungarri da horretan; autoaren informazioa antolatzeaz aparte, lehentasunen arabera ordena daiteke, adibidez. Halakoez gidatze lasaia eta segurua bermatzea dute helburu; laguntza sistemak eta erosotasunerako ekipamenduek laguntzen dute horretan.

Eta Seat auto etxean ere bada azpimarratu beharreko modelorik; hor dago Seat Ateca autoa. Besteak beste, aipatu beharrekoa da hark duen Off Road sistema;

baldintza meteorologiko eta lur-zoru ezberdinetara egoki daiteke horri esker. Driving Experience botoia sakatu besterik ez da egin behar horretarako –gidariak gidatze modu ezberdinen artean aukeratzen du: normala, *eko*, *sport*, bakarkakoa, *off road* eta elurretakoa–. Beste alde batetik, txasis egokigarriarendako kontrol sistema daroa; unean-unean errepidearen baldintzara egokitzeko aukera eskaintzen du horrek.

Bukatzeko, Skoda Kodiaq autoaz mintzo da Galdos. Txekiar Errepublikako auto-etxeak ezaugarri teknologiko aurreratuak jarri dizkio modeloari, gidariari gidatzea errazteko asmoarekin. Besteak beste, smartphone bidez kontrola daitezke automobilaren zenbait funtzio –autoaren eta smartphonearen arteko konexioa ahalbidetzen du SmartGate sistemak–. Zehatz esanda, autoaren zenbait datu bidai daitezke horri konektaturik dagoen gailura. Era berean, Phonebox sistema daroa –mugikorra kargatzea eta horren estaldura handitzea ahalbidetzen du horrek–.



Audi Q2: diseinu berritzailea gidariaren eskura.



Volkswagen Tiguan: lau gurpilen gaineko potentzia.

CITROEN CHAPIME HISTORIA DUEN MARKA

Historia handiko marka da Citroen. Eta ez da sekula zaharturik gelditu; etengabe dabil berritzen. "Aurrerakoia zen iraganean; eta aurrerakoi izaten segitzen du gaur egun", aitortu du Mikel Loitik, Citroen Chapi-

me kontzesionarioko langileak. Tartean, kolpe-motelgailuen suspentsio hidrauliko progresiboa asmatu du berriki.

Gaur-gaurkoz, C3 Aircross eta Space Tourer by Tinkervan modeloen promozioan murgildurik dira kontzesionarioko kideak. "Tamaina eta altuera egokia dute autoek. Gainera, ibilgailu osoak dira, dakartzaten ezauga-



7 urteko **garantia**
auto berri guztietan

Debagoieneko kontzesionario ofiziala
Arrasate • San Andres Auzoa 6
943 79 07 44/54 • 670 82 71 86
www.mugarri.eus



Seat Ateca: askotariko lurzoruetara egoki daiteke.



Citroën C4 Cactus: gidatze eroso eskaini guran.



Skoda Kodiaq: puntako teknologia, gidariaren eskura.



Citroën Space Tourer: bezeroaren beharretara moldagarri.

rri teknologikoei eta prestazioei esker", diote.

Besteak beste, prestakuntza teknologiko ugari dakartza Citroën C3 Aircross modelook. Loitiren esanetan, "gidariarentzat lagungarri dira horiek guztiak". Hainbaten artean, gehien-
go abiadura igartzeko sistema, gura bako bide aldaketa kasue-
tarako abisua, aparkatzeko sen-

tsoreak eta abiadura erregula-
tzeko edo mugatzeko prestazioa
daroatza. "Halakoak oso mese-
degarri dira gidariaren eta era-
biltzaileen segurtasunarendako",
aitortu du Loitik. Hori guztia,
crossover kontzeptuaren barnean.

Eta horretan geratu barik,
azken belaunaldiko motorizazio
ezaugarriak ere bere eginak ditu
Citroën C3 Aircrossek –gasolinan

eta diesellean-. Tartean, etenga-
be berritzen ibiltzearen eragin
dute hori. Eta saririk ere badu
erdietsia halakoengatik; horien
artean da aurten eskuraturiko
Best Buy Of Europe izenekoa.

Bestetik, aintzat hartu beha-
rreko espazio erabilgarria du
modeloak. Esaterako, mugitu
egin daiteke bigarren lerroa.
Maletategiaren tamaina molda-

tzea ahalbidetzen du horrek –410
eta 520 litro arteko tamaina-.

Horrez aparte, esan moduan,
Space Tourer by Tinkervan mo-
deloaren promozioan murgildu-
rik da Citroën Chapime. Eta
horrek ere teknologia aurrera-
tua eskaintzen dio erabiltzaileari.
Tartean, errepideko abiadu-
ra mugak atzematen dituen
sistema daroa –kamera bat du

haizetakoaren gainean-; horren
bidez, erabiltzaileak eskura du
abiadura mugatzeko aukera.

Eta modeloaren kanperizazio
kanpaina dute martxan jarria.
–Tinkervan enpresarekin ari
dira elkarlanean-. Horrek autoa
aisialdirako egokitzeko aukera
dakarkio bezeroari. "Auto apro-
posa da norbanakoen zein fa-
milien aisialdirako. Eta, nola
ez, bermatua du diseinuaren,
teknologiaren, konektibitatearen
eta segurtasunaren egokitasuna",
argitu du Loitik.

Luzerari dagokionez, Citroën
etxeak hiru tamaina ditu esku-
ragarri: XS (4,60 metro), M (4,95
metro) eta XL (5,30 metro). Eta
1,90 metroko altuera du. "Edozein
garajetan" sartzeko aukera es-
kaintzen du horrek.

Bestetik, aipatu beharrekoa
da aurrera begira jarriak direla
Citroën etxeokak: "Nobedadeak
izango ditugu opor inguruan.
Ongi etorriak izango direnaren
esperantza dugu. Baina oraindik
ezin dugu ezer aurreratu".

FORD MUGARRI FIDAGARRITASUNA, LAU GURPILETAN

Era askotako autoak aurki dai-
tezke Ford Mugarrin. Eta horiek
guztiak barnean daroate marka-
ren nortasuna. Horien artean,
Ford Custom eta Ecosport autoak
azpimarratu ditu Rafa Etxabek,
kontzesionarioko arduradunak.
Eta uste osoz heltzen dio berea-
ri: "Markak bera bezala, fidaga-
rritasun handiko modelook dira".
Zazpi urteko garantia dute au-
took..

Bezeroen joerez jakitun, besteak
beste, aisialdirako ekipa daitez-
keen furgonetetan –Ford Cus-

COMFORT IS THE NEW COOL

INSPIRED BY YOU

CITROËN rufagadu TOTAL. Salneurri gomendatua C4 Cactus Pure Tech 100 S&S Lite berlina berriarentzako. 13.500€ (BEZ-a gertatzen, promozio erakutsia barne) aurreko prezioarekin. 3 hilabetez daguen ibilgailu hori erretzatzeko dituen bezeroentzako eta Pro Financial Services Spain EPC S.A. bidez 5.000 euroko finantzazio indibidual 39 hilabetezko gutxieneko iraupenkompromisoarekin, penintziaz eta balazko uztararekin. Salneurri gomendatua finantzazio 42 duen bezeroentzako: 13.950€. Aukeratuak modurik C4 Cactus Shine Pure Tech 100 S&S urdin kolorekoak, 13.950€-tik aurrera. Ekipamenduak eskuragarri izango diren araber. Automodurik Citroën Espazio. S.A. C/O. Espazio. 62 - 28907 Madrid. CIF: A-628444743. Kanizuaen erabiltzaileak (l/100 km) / CO2 isaperrak (g/km): CITROËN C4 CACTUS BERLINA BERRIA: 3.6-5.3/94-119



CITROËN C4 CACTUS BERLINA BERRIA

Advanced Comfort eserlekuek
Eselidura progresiboa
hidraulikoa (PHC)

Mirror Screen,
Apple CarPlay™-rekin
Android Auto™ eta MirrorLink

Gidatzeko 12 laguntza sistema

EAT6 abiaduraketa automatikoa

Citroën Connect Nav

13.500-tik €
AURRERA

San Andres 5, 20500 ARRASATE
Bisita gaitzazu! Tel: 943 79 45 22

TALLERES CHAPIME Debagoieneko Citroën kontzesionario ofiziala



Ford Custom: bezeroaren eskarira egoki daiteke.



Ford Ecosport: emisio eta kontsumo gutxiko autoa.

tom- sakontzen hasia da Ford Mugarri. Eta horiek dituzte salduenak. Hori bai, modeloa ez da aisialdira mugatzen: "Erabilerak partikularra eta komertziala ere eman dakizkioke. Askok aukera eskaintzen du".

Bestetik, aipatzekoa da modeloaren segurtasun maila: kalifikazio gorena erdietsi du Euro NCAP ebaluazio programan -bost izar-. Etxaberen esanetan, "hori ez da oso ohikoa furgonetan kasuan". Halakoengatik, Ford Custom modeloa indartsu dabil merkatuan. Eta Europako auto onena izendatu zuten 2014. urtean.

Horrez aparte, modeloak daroan Ecoblue motorrari erreparatu dio Etxabek. "Emisio eta kontsumo gutxiko motorra da; oso fidagarria, gainera. Hori horrela, bezeroak ez du diru askorik gastatu beharrik izango horren mantenuan", argitu du.

Oro har, teknologiarik dagokionez, auto osoa da Ford Custom. Besteak beste, gidatze kontrol egokitua daroa, talkak saihesteko sistemarekin. Horri esker, gehienez harrapatu gura duen abiadura zehaztu dezake gidariak -autoak ez du muga hori gain-

dituko-. Eta aurreko autoarekin segurtasun neurria mantentzeko sistema ere badaroa; zirkulazioa moteltzen bada, autoak berak abiadura motelduko du, esaterako.

Bestalde, berriki merkaturaturiko Ford Ecosport SUV autoa dakar gogora Etxabek. "Erosotasun handia eskaintzen du. Eta bezero askorendako izan daiteke egoki: jende helduarendako, familiendako, gazteendako...", aitortu du. Hori horrela, demanda handiko autoa da: "Indarrez sartu da merkatuan".

Beraz, erabilerak handia eman dakioke modeloari. "Espazioa eskaintzen dio erabiltzaileari, erosotasuna. Baina, era berean, baliagarri da herrian edo hirian erabiltzeko", azaldu du Etxabek. Gainera, lau gurgileko trakzioa duen autoa eskura dezake bezeroak -aukeren artean dago hori-.

Kasu honetan ere aipatu beharrekia da modeloaren motorra, Ecoboost izenekoa. CO2 eta nitrogeno oxidoa murrizteaz gain, diesel gutxiago erabiltzen du; eta, hori guztia, potentzia galdu barik. Izan ere, normalean erabiltzen ez diren gasak dara-

bilzkien turbokonpresore sistema daroa. Horrek, potentzia irabaztea dakarkio motorrari. "Oso fidagarria da", gaineratu du Etxabek.

GAURSA ARABAUTO NISSAN: ETENGABE BERRITZEN

Nissan etxeko autoak dituzte eskuragarri Gaurisa Arabauton. "Gizarteak ezarritako tendentzia berrietara egokitzen dihardugu etengabe, eta aitzindari gara askotan", dio Asier Guardenok, kontzesionarioko langileak. Eta bi adibide aipatu ditu horri dagokionez: lidergo elektrikoa -eurena da munduko auto elektriko salduena- eta *crossover*-a -liderrak dira segmentuan-. Hori horrela, Leaf eta Qashqai modeloak aipatu ditu Guardenok. "Horiek liderrak dira euren segmentuetan", aitortu du.

Besteak beste, Nissan auto etxekoak "pozik" dira Leaf auto elektrikoak izandako harrerarekin: "Europa mailan, 20.000 autoko eskaera egon da lau edo bost hilabeteren buruan". Guardenoren hitzetan, auto "berezia",

da. "Emisiorik gabeko autoa da %100ean", gaineratu du. Horren eraginez, bere erabileran murriztagoa da motorraren kontsumoa.

Horrez aparte, aipatzekoa da autoaren e-Pedal sistema. Pedal bakarreko gidatzea ahalbidetzen du horrek. "Horri esker, posible da soilik azeleragailuaren pedalarekin gidatzea, balazta pedalaren beharrik izan barik", azaldu du. Alegia, gidariak azeleragailua zapaltzeari uztean, abiadura murrizten -balaztatzen- doa autoa. Eta geldi mantentzeko, ez da beharrezkoa balazta pedala zapaltzea, *hold assist* sistemari esker.

Bestalde, modeloaren ezaugarriez mintzo, Nissanek autoaren teknologia eta praktikotasuna ditu erdigunean jarriak. Besteak beste, ProPilot sistema dute bezeroendako eskuragarri. Horri esker, bidean mantentzeko sistema, abiadura kontrolatzekoa eta aurrekoarekiko distantzia mantentzekoa daroatza. "Hala-koengatik, esan dezakegu gaur-gaurkoz automobilen abangoardia dela Leaf modeloa. Oso barneratua daroatza lider batek izan beharreko grina eta izaera",

dio. Gainera, jasoa du aitortzarik: teknologia ekologikoa dutenen artean, munduko auto onena izendatu dute berriki.

Eta, esan moduan, Qashqai autoaz ere mintzo da Guardenok. "Hamar urte daroatza *crossover* segmentuaren gorenean. Bere izaera, praktikotasuna eta kalitatea dira horren eragile", argitu du. Eta, gainera, etengabeko berrikuntza prozesuan dago murgildurik, garaian garaiko beharretara egokituz. Auto salduenaren saria jaso du hala-koengatik.

Tartean, Nissanek landutako mugikortasun adimendunerako sistema daroa autoak. Besteak beste, atzeko zirkulazioaren kontrolerako bitartekoa dakar horrek. Horri esker, aparkalekutik irtetean, une oro, atzeko zirkulazioa ikusteko aukera izango du gidariak -atzeratzen-. Eta, bestetik, aurrez aurreko talken aurkako sistema daroa -auto aurrean oinezkorik pasatzen ari den ere igartzen du horrek-. Modu horretan, gidariak abisua jasotzen du talkarako arriskurik badago, hori saihesten lagunduz edo horren eraginak arinduz.



OPEL GRANDLAND X SUV BERRIA.
AZKEN TEKNOLOGIAREKIN SORTUA. ZATOZI!





Opel Grandland X: egoera askotara egokitzeko gai.



Opel Crossland X: nortasuna duen autoa.



Nissan Qashqai: bere segmentuan lider hamar urtez.



Nissan Leaf: emisiorik gabeko auto elektrikoa.

OPEL TAKOLO AUTOAK BEZEROAK BEHAR DUENERA EGOKITZEN

Opel markako autoak eskura daitezke Takolo Autoak kontzesionarioan. Eta ez doakie gaizki: azken urteetan ibarreko marka salduen artean dago Opel. Horretaz jakitun, eskaintza berritzen dihardute etengabe. Eta, besteak beste, SUV estiloa euren eginak dituzten bi auto aipatu ditu Ibon Rubiok, kontzesionario-rioko langileak: Crossland X eta Grandland X. "Sekulako indarra hartu du SUV kontzeptuak. Beraz, halako autoetan sakontzen hasiak gara", aitortu du Rubiok.

Uste osoz heltzen dio bereari: "Premium gamako materialak izateaz aparte, prestazio asko eskaintzen dituzte; hori guztia, aurrekontu on batekin", aitortu du Rubiok. Eta gogorarazi du Alemaniako marka dela; "fidagarritasuna" ematen dio horrek.

Aipaturikoen artean, Grandland X modeloa dute berriena. Eta, besteak beste, azpimarraztekoa da autoak daroan Onstar sistema –Crossland X modeloak ere badu hori, Opelen beste hainbat autok bezala–. Horri

esker, ibilgailua lokalizaturik dago une oro –24 orduz, 365 egunez–. "Esaterako, estaldura bako lekuren batean egon eta espero gabeko egoera batean egonda –gurpila zulatu, etab.–, botoia sakatu eta asistentzia eska daiteke", argitu du Rubiok. Edo airbagak eta ABS sistemak salto eginez gero, norbait kontaktuan jarriko litzateke gidariarekin. "Badaezpada, ezbeharren bat izan bada...", dio Rubiok. Horrez aparte, autoak teknologia berrienak eta azken araudira egokituriko motorra daroatza.

Bestetik, Crossland X modeloa dute eskaintzen artean. Meriva autoa ordezkatzeko sortu zuten, eta kontzesionario-rioko langilea "pozik" da emaitzarekin: "Sekulako autoa da. Kritika baikorrek in zapaldu zuen merkatua; eta berean segitzen du, indarrez. Bezeroek gogoko dute modeloa". Besteak beste, segurtasunerako eskaintzen dituen bitartekoak eta espazioaren zabalerak dira autoaren indargune.

Rubioren esanetan, auto segurua da –prestazio ugari ditu horretarako–. Tartean da Opel Eye sistema. Horri esker, autoa kapaz da errepidetako seinaleak

eta trabak igartzeko –horretarako, kamera daroa aurrealdean–. Besteak beste, bidean ezusteko trabaren bat egonez gero, erantzuten laguntzen dio gidariari. "Esaterako, errepidetan, ustekabean, baloi bat topatuz gero, automatikoki balaztatuko du autoak", argitu du Rubiok. Eta ardatzen arteko distantziak ere horretan laguntzen du: espazio handia dago horien artean –egonkortasuna ematen dio autoari–.

Bestetik, Crossland X itxura berritzailearekin sartu da merkatuan, bi tonu –kolore– nahasteko aukera eskainiz; gaur-gaurkoz, goraka doa horren tendentzia. "Halako aukerek nortasuna ematen diote autoari", dio Rubiok.

Eta, bukatzeko, esan beharrekoa da mugatu barik dutela autoaren eskaintza esparrua; alor askotara egoki daiteke, dituen ezaugarriei esker: "Auto osoa da. Alor askotan izan daiteke baliagarri. Batetik, egokia da adinekoendako; batez ere, altuerarengatik. Horrez aparte, ederra da haurrak dituzten familientzat, espazio zabala duelako. Finean, egoera askotara molda daiteke".



KANPAZAR

TXAPA, PINTURA ETA MEKANIKA
Marka guztietako autoen konponketak
ESPEZIALISTAK : ALFA ROMEO, FIAT ETA SUZUKI

Bizkaia etorbidea z/g ARRASATE
Tel.: 943 79 41 98 • kanpazarfiat@telefonica.net

IAT azterketa, edo gazteleraz ezagunagoa den ITV, buruhauste handia izaten da ibilgailu *adindunak* dituzten gidarientzat. Edozelan ere, maiatzaren 20tik aurrera azterketa gainditzea are zailagoa izango da, inspektio zorrotzagoak egiten hasiko baitira.

Ez hori bakarrik: prezioek gora egingo dutela aurreikusten da. Orain arte egiten ez ziren proba batzuk egin behar direnez, denbora luzeagoa behar da ibilgailu bat aztertzeko, eta egunean auto gutxiago jaso ahalko dituzte zentroek. Horrek fakturazioaren jaitsiera eragingo du, eta hori konpentsatzeko egingo dute prezio igoe-
ra.

Legeak behartuta

Espainiako Ministroen Kontseiluak 2017ko urriaren 20an errege dekretu bat onartu zuen, IAT azterketarekin lotuta. Bi helburu nagusirekin onartu zuten: bide segurtasuna hobetzea eta ingurumenaren kutsadura gutxitzea.

Dekretu hartan, IAT zentroen kalitatea hobetzeko hainbat irizpide zehazten ziren, alderdi hauetan: langileen kualifikazio maila, langileen formakuntza, instalazioen baldintzak, instalazioetako ekipamendua eta azterketa pasatzeko prozedurak.

Bigarrena, beste leku batean

Bost aldaketa nagusi planteatzen ditu legedi berriak. Horietako lehenari esker, nahi den zentroa aukeratu daiteke azterketa bigarren aldiz gainditzeko. Aurreko legediaren arabera, ez bazen lehenengo azterketa gainditzen, gidaria behartuta zegoen bigarrena leku berean pasatzera. Baina maiatzaren 20tik aurrera norberak aukeratu ahal izango du non pasatu nahi duen bigarren azterketa.

Ordenagailu bidezko kontrola

Gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio ibilgailuek eragiten dituzten isurketak ahalik eta txikiengan izateari.

Hori dela eta, auto-ekoizleek kontrol neurriak jartzen dituzte, motorretan emisioen kutsadura maila mugatzeko. Diesel autoetan, are gehiago. Horien artean daude gasak birbideratzeko balbulak (EGR)



Pertsona bat pegatina zaharra kentzen, berria jarri aurretik.

IAT azterketa, are zorrotzago

Aldaketa garaia da IAT zentroendako. Errege dekretu berri bat jarriko da martxan maiatzaren 20tik aurrera, eta hainbat eragin izango ditu: proba berriak, azterketa luzeagoak, eta azterketen prezioen igoera, besteak beste

Berrikuntzen aurrean, mesfidantza

Dekretu berria martxan jartzeko bi aste falta dira, baina IAT zentroetako arduradunek ez dituzte gauzak argi ikusten.

"Langileen kualifikazio mailarena segidan aplikatuko dela uste dut, baina beste guztiaren aplikazioa askoz motelago joango da. Kanpotik ekarritako ibilgailuena ez dut batere garbi ikusten. Horietako asko ez daude hemen ibiltzeko homologatuta, eta kontrol hauei esker detektatzen ditugu.

Arraroa egiten zait hori desagertzea, batez ere, askotan harrapatzen ditugulako legea betetzen ez duten ibilgailuak", azaldu du Bergarako IAT zentroko zuzendari Fernando Legazek.



Autoak, Bergarako IAT zentrori sartzeko zain. XABI GOROSTIDI

Prezio igoera

Prezio berriei buruz ez diete ezer jakinarazi oraindik. "Autonomia erkidego bakoitzak bere prezioak zehazten ditu abendu aldean. Guri, oraindik ez

digute ezer esan prezio berriei buruz. Nire ustez, aurrerago egin behar litzateke igoera, behin jakinda egunean zenbat ibilgailu gutxiago hartzen ditugun.

eta partikulen aurkako filtroak (FAP).

Horren aurrean, erabiltzaile askok motorren zentralita modifikatzen edo birprogramatzen dute, auto bizkorragoak izateko. Era horretan, kutsadura mugatzeko sistemak malgutzen dituzte, eta motorrak abiadura handiagoak hartzea ahalbidetu.

Baina IAT azterketa berrietan ordenagailu bidezko prozedurak ezarriko dituzte. Ibilgailuen motorrak birprogramatuta dauden edo ez ikuskatzeko, zentroetako teknikariek ordenagailu bat konektatuko dute autoen motorretara.

Motorra emisio mugen barruan birprogramatuta izanez gero, posible izango da azterketa gainditzea, baina, muga horiek errespetatzen ez badira, ez da gainditzeko aukerarik izango.

Hilabete lehenago

Azterketa hilabete konkretu batean pasa behar izaten da, baina legedi berriarekin posible izango da hilabete lehenago pasatzea. Horrek ez du azterketaren balizko iraupena aurreratuko, eta aurretik zehaztutako hilabetean pasatzea bezala izango da.

Motorren birprogramazioa ikuskatzeko prozedura berriarekin, azterketa gutxiago egin ahalko dira eguneko. Horrek atzerapenak ekarriko ditu txandak eskatzeko orduan, eta, hilabete bat aurreratzeko aukerarekin, atzerapenen eragin negatiboak arintzea lortu nahi dute.

Europar egindakoak, onartuta

Orain arteko araudiarekin, atzerrian autoa edo motorra erosiz gero derrigorrezkoa zen jatorrizko estatuan matrikultatzea eta bertako IAT azterketa gainditzeko.

Baina legedi berriarekin, Europar Batasuneko beste edozein estatutan egindako azterketak balekoak izango dira. Hala, Herbehereetan bigarren eskuko ibilgailu bat erosiz gero, bertan egindako azken azterketa indarrean egongo da epez kanpo geratu arte.

Langile kualifikatuagoak

IAT zentroetan lan egiteko baldintzak lehen baino zorrotzagoak izango dira orain.

"Profesionalek egin behar dituzte azterketak"

CARLOS RUIZ KANPAZAR GARAJEKO ARDURADUNA

Kanpazar Tailerrean azaldu dute autoa egoera onean mantentzeko ze azterketa egin behar diren; eta diote olioia eta filtroa aldatzea baino gehiago dela azterketa egitea

Auto ekoizleek adierazten dute autoen azterketa zenbatean behin egin behar den. Kanpazar Tailerreko Carlos Ruizek dio garrantzitsua dela ohar horiek jarraitzea. Izan ere, ondo zaindutako auto batek askoz ere matxura gutxiago izaten ditu.

Azterketak egitearen garrantzia nabarmendu gura duzu.

Oso garrantzitsua da auto ekoizleek zehaztutakoa jarraitzea; horrez gain, azterketa egitera zoazenean, profesionalak esango dizu autoa ze egoeratan dagoen eta zer aldatu beharko litzatekeen. Ez da bakarrik olioia eta filtroak aldatzea, hori baino



Carlos Ruiz eta Asier Dalama mekanikaria.

gehiago da. Banaketa-uhala zaintzea ere oso garrantzitsua da. **Gurpil-azalen (kubiertak) eta balazten mantentzea gidatzeko moduaren arabera da?**

Bai; ekoizleek ez dute adierazten noiz aldatu behar diren. Izan ere, gidatzeko moduarekin dute zerikusia. Azkar dabilenak eta bihurtutako azkar sartzen denak gehiago gastatuko du gurpil-azala. Horretarako dago profesionala; marrazkia eta kautxua egoera onean dauden begiratu-ko digu.

Olioia urtero aldatzea gomendatzen duzue. Hori beti da horrela?

Batzuek gutxi erabiltzen dute autoa, eta ez dute ekoizleak ezarritako kilometro kopurua egiten. Hortaz, urtean behin aldatu beharrean, luzatu egin dezakete pixka bat. Izan ere, gaur egun, kalitate oneko olioak

erabiltzen dira. Baina beti jakin behar dugu olioaren maila non dagoen; maximoaren eta minimoaren artean egon beharko luke. Hori horrela ez balitz, olioia aldatu beharko litzateke; bestela, matxura izango dugu eta.

Bidaia luze bat egin aurretik autoa begiratzea gomendatzen duzue?

Uztailean azterketa egin baldin badiot eta abuztuan oportetara baldin banoa, ez dut zertan berriro azterketa egin. Baina autoak 8.000 kilometro pasa baditu, ezin dut pentsatu: "Oraindik ez ditu 10.000, bueltan egingo diot azterketa".

Nola jakin dezakegu gurpilak gaizki ditugula?

Gidatzerakoan autoak ihes egingen badigu, gurpilak gaizki dituen seinale da. Gaur egun, autoek segurtasun neurri mordoa dituzte –ABS, ASR, egonkortasuna kontrolatzeko–; baina egoera txarreko gurpilekin ez dute ezertarako balio.

Argiak ere tailerrean aldatu behar dira?

Garrantzitsua da. Lanparak aldatu eta gaizki utziz gero, arazoak sor daitezke –su hartu duen autorik ere badago–.

Kontuan hartu

- Olioaren maila zaindu.
- Gurpil-azalaren marrazkia begiratu.
- Profesionalengana jo.

Economy ordezk piezak: 5 urtetik aurrerako ibilgailuendako kalitatea



Urtean poderioz, zure ibilgailuaren jatorrizko piezek higidura sufitzen dute; horregatik, **Economy gama** sortu dugu: Volkswagen kalitatea eskaintzen dituzten ordezk piezak.

5 urtetik aurrerako ibilgailuentzako soluzio bikaina eskaintzen dizugu; gainera, prezio ekonomikoagoetan oinarrituta. Nola lortu dugu hau? Erresistentzia berberaren diseinuaren aldaketarekin eta berriroko muntatzearekin.

Gainera, beste abantaila osagarri batzuk eskaintzen ditu gama honek; esateko, ordezk piezen diseinuan erabiltako **gel mallako teknologia**.

Economy gama osatzen duten ordezk piezak zeintzuk diren azalduko dizugu; aurrerantzean, baina, gama honetan pieza gehiago egongo dira.

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

Volkswagen Service

Zure Volkswagenak kalitatezko zainketa behar du; eta zuk, preziorik onenak.

Volkswagen jatorrizko ordezk piezak*



Das Auto.

Economy freno-pastillak
Iraunkortasun handia.
Egiaztatutako iraupen luzea.
Frenaketa ona.



Economy isilgailuak
Korrosioarekiko erresistentia.
Enkaje perfektua.
Balo-bizitza: 8-10 urte artean.



Economy bateriak
Mantentze-lanik ez.
Balo-bizitza luzea.



Economy buja
Fidagarritasun handia.
Kontsumo-efizientzia.
Balo-bizitza luzea.



Economy freno-diskoak
Frenaketa-potentzia ezin hobea.
Balo-bizitza luzea.



Economy eskuilak
Garbiketa ezin hobea.
Zarata txikia.
Erresistentzia handia.



Economy motelgailuak
Segurtasun osoa.
Portaera egokia marboan.



Economy alternadoreak
Zure ibilgailuak uneoro sortzen dituen kontsumo elektrikoak jasaten ditu.
Zure ibilgailuari egokitutako karga ezaugarriak.



Economy homozinetika-juntura
Iraunkortasun eta fidagarritasun handia.
Zure ibilgailuaren ezaugarriak kontutan hartuta diseinutako pieza.



Economy ordezk piezak: Volkswagen kalitatea prezio paregabe.

Aukera zabala bigarren eskuko autoetan

Debagoieneko auto kontzesionarioek bigarren eskuko autoen eskaintza oparoa dute; kontzesionarioen esanetan, 10 urte bete dira aurtan krisia hasi zenetik eta hori nabari da oraindik; hori dela eta, bezeroen beharretara egokitzen diren prezioak dituzte

Azken urteetan, bigarren eskuko autoen eskaria handituz joan da eta gaur egun ere, oraindik bezero askok eskatzen dute bigarren eskuko auto bat. Debagoienean hainbat auto kontzesionario ditugu eskaera horri erantzuteko eskaintza paregabearekin. Rafa Etxabe Ford Mugarriko salmenta arduradunaren esanetan, oraindik nabari da krisiaren eragina bezeroek eskatzen duten auto profilean. "Bezeroek denetarik erosten dute, baina auto merkeak nagusitzen dira orain, jendeak gehiago begiratzen dio diruari orain lehen baino".

Bi maila bereiziz gero, Etxaberen esanetan, auto onak edo oso onak daude, batetik, eta normalak eta ez hain onak, bestetik. "Bigarren multzo horretako autoak dira gehien saltzen direnak, 1.500 eta 6.000 euro arteko tarte horretan dauden autoak. Auto normalak eta txikiak. Gero, sei hilabete eta sei zazpi urte arteko autoak ere dezente saltzen dira".

Azpitarratu du orain jendeak benetako beharra duenean erosten duela autoa, eta ez lehen bezala, "kapritxoak. Merkatua aldatuta dago, zentzu horretan. Lehen, gurasoek seme-alabei auto txiki bat erosi behar izanez

gero, auto berria erosten zieten. Orain, berriz, bigarren eskukoak nabarmentzen dira".

Internet, arazo

Azken urteetan, Internet kalte asko egiten ari zaie kontzesionarioei, Etxabek adierazi duenez. "Partikularren arteko salerosketak asko ari dira handitzen azken urte hauetan, eta Internetek kalte handia egin digu, alde horretatik. Bigarren eskuko autoei dagokienez, saltzen diren erdiak baino gehiago dira

Internet bidez partikularren artean salerositakoak", dio.

Gaineratu du lanpostu asko murrizten ari direla Interneten ondorioz, eta horrek automobilgintzan ere egin duela kalte. "Herrian lanpostu gutxi daudela eta lanik ez dagoela kexatzen gara, eta, ondoren, Internet bidez egiten dugu guztia", dio.

Eskaintza zabala

Behoko taulan ikusten denez, modelo, prezio eta gama ezberdinak autoak eskaintzen



Bigarren eskuko autoak bezeroentzako ikusgai, garaje batean.

dituzte Debagoieneko auto kontzesionarioek, bezeroen beharrei erantzuteko eskaintzarekin. Gaurisa kontzesionarioak Nissan markako autoak ditu bezeroen eskura; Chapimek, berriz, Citroen markako autoak eskaintzen ditu; Ford Mugarrik denetarik du: Ford, Toyota edota BMW; Opel Takolon, az-

kenik, Audi, Volvo, Opel eta BMW marketakoak daude salgai.

Guztiek ere herritarrek animatu gura izan dituzte bertaratu eta bigarren eskuko autoak probatzera. Izan ere, bigarren eskukoak izan arren, gehienek kilometro gutxi dituzte eginda, eta berri-berri daude oraindik.

Bigarren eskuko autoen eskaintza

GAURISA

Nissan Micra 1,2 Acenta 80 cv
2016 / 9.576 km / 7.900 euro.

N. New Micra 0,9 Acenta 70 cv
2017 / 383 km / 10.900 euro.

N. Juke 1,5 DCI Acenta 110 cv
2017 / 7.023 km / 13.900 euro.

N. Qashqai 1,5 DCI Acenta 110 cv
2017 / 6.436 km / 16.900 euro.

N. X-Trail 1,6 DCI N-Connecta 130 cv
2017 / 4.873 km / 22.600 euro.

N. Evalia 1,5 DCI Premiun 110 cv
2017 / 8.230 km / 16.800 euro.

CITROEN CHAPIME

Citroen C3 Blue 100 FEEL
2017 / 1.500 km / 16.500 euro.

C. C4 Cactus Puretech 110 FEEL
2016 / 18.689 km / 12.750 euro.

C. C3 Picasso Blue 100 COLLECTION
2016 / 25.558 km / 12.300 euro.

C. Elysee Blue 100 EXCLUSIVE
2016 / 61.656 km / 10.200 euro.

C. Berlingo Blue 120 '20 urte'
2018 / 0 km / 17.500 euro.

C. GC4 Picasso Blue 120 EAT FEEL
2016 / 12.500 km / 17.900 euro.

FORD MUGARRI

Ford Kuga 2000 TDCi
2014 / 46.000 km / 20.800 euro.

Ford Focus 1,6 TDCi
2013 / 60.000 km / 11.900 euro.

Ford CMax 1,0 EcoBoost 125 cv
2014 / 60.000 km / 11.800 euro.

Toyota Land Cruiser 3000 d4d
2006 / 220.000 km / 16.500 euro.

BMW 320 d 163 cv
2006 / 165.000 km / 7.900 euro.

BMW X5 d
2005 / 220.000 km / 10.500 euro.

OPEL TAKOLO AUTOAK

BMW 520 D touring 184 cv
2013 / 94.000 km / 21.800 euro.

Opel Astra cdti 130 cv
2013 / 31.000 km / 12.200 euro.

Audi A4 Avant tdi 136 cv
2012 / 93.000 km / 19.400 euro.

Opel Crossland cdti 100 cv
2018 / 0 km / 15.500 euro.

Volvo XC 70 D3 163 cv
2013 / 102.000 km / 24.600 euro.

Volvo XC 60 D3 136 cv
2013 / 65.000 km / 25.600 euro.

ESKANTZA BALIAGARRIA, AKATS TIPOGRAFIKORIK EZ BALDIN BADAGO

Motorrak ere badu bere tarte 'Puntua'-n

ANIMA ZAITEZ

Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailak gozatzeko...
Bazkidetu orain. Urteko kuota 56€.
Deitu: 943 25 05 05. kluba@goiena.eus



Artzaintza, plaza erdigunera domekan

Elgetako Mendizaleen Plazan egingo dute, etzi, Debagoieneko Artzainen VI. Eguna. Askotariko eskaintza izango da 10:00etan zabalduko den azoka berezian. Nekazaritza jarduera hori balioan jartzea da ekimenaren erronka nagusietako bat

Larraitx Zeberio ELGETA

Udalak emandako datuen arabera, artzaintzarekin lotutako hamabost esplotazio daude erregistratuta Elgetan, eta kalkulatzen dute 150 bat ardi egongo direla herrian. "Azken urteetan jaitxi egin da. Esplotazio kopurua, akaso, ez asko, baina artaldean tamaina bai. Orain, artalde txikiagoak daude, hogeitatu ardi ingurukoak, eta produkzioa etxerako edo ingurukoendako izaten da", azaldu du baserritarren batzordeko buru Sebastian Arantzabalek.

Domekako azokan hamalau bat postu egotea aurreikusten dute antolatzaileek, eta lau bat izango dira elgetarrak. Larrabil baserriko Enrike Ormaetxeak ardiak erakutsiko ditu, eta bestelakoetan Larrabiltxoko Luis Mari Arantzetak ezia salduko du. Azokan egongo dira salgai, baita ere, Galgorriko gozoak eta pastelak zein Elgetako Baobeer garagardoa.



Ardiak ikusgai, iaz, Aretxabaletan egindako Artzainen Egunean. IMANOL SORIANO

ELGETAN HAMABOST BAT ESPLITAZIO ETA 150 BAT ARDI EGONGO DIRELA KALKULATZEN DA

Gazta, gatz, txakolina, eta bildots pintxoak erosteko aukera egongo da azokan. Askotariko jarduerak ere izango dira. Artilearekin lan egiten duen Sandra Cliville artisauak ere erakustaldia egingo du.

"Bailaran gazta onak egiten dira"

AGURTZANE DIAZ

DEBA GARAIA LANDA GARAPENA

Eskualdeko artzainek egiten duten lana ezagutzera ematea da azokaren helburu nagusia. **Zein indar du artzaintzak eskualdean?**

Eskualdea oso industriala da eta asko kostatzen zaigu nekazaritzak duen jarduera balioan jartzea. Ematen du oso txikia dela, eta ez da horrela. Bailara honetan badaude artzainak eta artaldeak, eta gazta onak egiten dira. Lan hori ikusteko modua edukiko



GOIENA

dugu azokan. Artzain eskola ere badugu Oñatin, eta azkeneko urteetan eskualdeko gazte batzuk gerturatu dira bertara.

Mota askotako gaztak egongo dira aukeran?

Egongo dira Idiazabalgo jatorri izendapena duten gaztak, baina baita ere bestelako ontze prozesua dutelako izendapen horretatik kanpo gelditzen direnak. Esate baterako, gazta urdina, gazta zaharra...

Domekako egitaraua

Domekan, maiatzak 6

- **10:00** Azokaren irekiera.
- **10:00** Argazki erakusketa buztin gelan.
- **10:00** Bisita gidatua lubakietara.
- **10:00** *Ardi latxaren bila* jolasa umeendako.
- **11:00** Gatzatu tailerra.
- **11:30** Gazta dastatzea.
- **12:30** *Artiletik harira* tailerra umeendako.
- **12:30** Burruntzian erretako eusko label bildots pintxoan banaketa.
- **13:00** Argazki lehiaketako sari banaketa.

Iritzi kontrajarriak gerakinari eman beharreko erabileraz

Premiazko mantentze-lanak egin beharra ikusten du Udal Gobernuak; oposizioak, aldiz, aurreztu egingo luke

L.Z. ELGETA

Aurreko asteko albistearen harira, EH Bilduk argitu du 2017an 256.884,05 euroko gerakina izan zela. "44.536,77 euro 2017an gauzatu gabe gelditutakoetara bideratu dira. Beraz, oraingoan, 212.347,28 eurotik 182.436 euro erabiliko dira. Hala, erabilgarri genuen gerakinaren %16 inguru —29.911,30 euro— utziko da, oraingoz, erabili gabe".

Osoko bilkuran, gerakinaren gehiengoa mantentze-lanetara bideratu izana kritikatu zuen oposizioak; uste dute garrantzitsua dela aurrezkien poltsa handitzen joatea. "Akaso, bost edo hamar urtera izango genuke diru kopuru bat bestelako proiektuak exekutatzeko", esan zuen Mikel Larreak. Hirigintza, industria eta Asentziara oinezkoen bidea aipatu zituen. Aurreikuspenak hobeto egiteko eskatu zuen opo-

sizioak, eta diru faltagatik aurrekontuan sartzeke gelditzen diren premiazko egitekoen berri emateko. "Kopuru hauek zehaztuta zeuden aurrekontua onartu genuenean".

EH Bilduk galdetu zuen ea zein gastu lerro kenduko luketen dirua aurrezteko. Erantzuna izan zen ez zirela horrelakoetan sartuko, baina onartu zuten denak direla beharrezkoak. Udal arduradunek adierazi zuten Ogasun batzordean ematen dela dagoen informazioa, eta alkateak gaineratu zuen prest zegoela udaletxeko zerbitzarian duen karpeta sarbidea emateko. Banan-banan galdetu zitzaion ea informaziorik ukatu zaien, eta ezetz erantzun zuten. Proposamenak eskatzen dizkio Udal Gobernu taldeak oposizioari. "Hilean Udalar bi ordu eskainita, ezin da gehiago espero", baloratzen dute.

Ekainaren 10eko giza katerako material salmenta herrian

Elgoibar eta Maltzaga artean egongo den 68. kilometrorra Elgetatik 200 lagun joatea da erronka. Hala, Elgetako Gure Esku Dago taldeko ordezkariak material salmenta egingo dute zeramika gelan barikuetan 19:30etik 21:00etara eta domeketan 12:30etik 14:00etara. Saretze-txartelak, zapiak, kamisetak eta autobus txartelak egongo dira salgai.

Ekainaren 2ko Bolari Eguneko bazkarirako txartelak salgai

Goiena komunitatea

Hiru txirilo / ELGETA

"Lehendakaria Saria eta Bolari Eguna egingo ditugu Elgetako bolatokian ekainaren 2an. Bazkaria 14:30ean izango da eta ondoren omenaldi ekitaldia eta sari banaketa egingo ditugu. Interesatuak jakin behar dute hilaren 12ra arte dagoela zabalik bazkarirako izen-emate epea".

40 neska-mutiko euskal dantzen ikastaroan

Eguaztenean eman zieten hasiera jaietako dantza ikuskizuna prestatzeko saioei. Lehen taldean, oraingoz, 30 neska-mutiko dantza izena emanda eta gazteen taldean, hamar lagun. Irati Kortabitartek gogorarazten du saioak eguaztenean izango direla, Espaloian, lehen taldearentzat 18:45etik 19:30era eta gazteentzat 19:30etik 20:15era.

OHARRAK

Emakume taldea

Batzar irekia martitzenean, hilak 8, 19:00etan, udaletxean.

Bisita gidatua

Domekan, 10:00etan, bisita lubakietara. 943 79 64 63 edo turismo@debagoiena.eus.

Ibaialde erakusketa

Ibaian ingurumen balioaz jabetzeko erakusketa hilaren 10etik aurrera buztin gelan.



Atzo egin zuten maiatzaren 12ko jai bereziaren aurkezpena, Espoloian. ARANTZAZU EZKIBEL

25 urte gehiago egiteko erronka

Bedelkarren 25. urteurrena ospatzeko jaia egingo dute hilaren 12an Espoloian; duela 25 urte merkataritza-gune handiak ziren mehatxu nagusi eta gaur egun, berriz, Internet bidezko salmentak. "Gure indarguneak beste batzuk izan behar dira", uste dute

Jokin Bereziartua BERGARA

Herriko komertzioen interesak defendatzea eta herria dinamizatzea. Bi zutabe nagusi horiekin jaio zen, 1993ko uztailean, Bedelkar Bergarako merkatarien elkarteak. 1994ko Gabonetan *Berrigara*-n jarritako iragarki baten argi irakur daiteke: *Elkartearen berri ematearekin batera, lehen mezua gure bezeroentzat izatea nahi dugu: Gabon hauetan zoriontsuak izan zaitzela eta pakea izan dezazuela*. Iragarkiak orduan Bedelkarreko parte ziren komertzioen zerrenda erakusten zuen, gaur egungoa baino zerrenda luzeagoa.

Gune handien kontra jaioa

Asko aldatu dira gauzak ordutik hona, baina ezin daiteke esan egoerak hobera egin duenik. 1993an merkataritza-gune handiak ziren mehatxu nagusi: "Gune

erraldoi haiek herrietara gero eta gehiago gerturatzen ari zirela ikusita, zerbait egin beharra zegoela ikusten zen. UNEDeko areto nagusian deialdi bat egin zen eta jendetza elkartu zen. Batzar hartan ikusi zen interes komunak zeudela; jendea batzen joan zen eta Bedelkar sortu zen", gogoratzen dute Bedelkarreko ordezkariak.

Hasierako urteetan merkataritza-gune handiak ziren mehatxu, eta gaur egun, "zalantza barik", Internet bidezko erosketak: "Lehenengo merkataritza-gune erraldoiendako ere meha-

txu bihurtu dira *online* erosketak; beraz, imajinatu komertzio txikiarendako nolako eragina izan dezakeen".

Gaur egun, ia herri guztietan, baita txikietan ere, dago merkataritza elkarte bat. Hala ere, Bedelkarreko arduradunek diote eroslearen profila ez dela batere gaztea: "Herriko komertzioan jende helduak edo nagusiak erosten du, bereziki. Gazteak Internetera begira daude, eta hori ez da seinale hona, herri honen etorkizuna direla jakinda".

Horri aurre egiteko formula magikorik ezean, Bedelkarrek espezializazioaren eta zuzeneko salmentaren alde egin jarraituko du: "Geroz eta errazagoa da Internet bidez erostea, eta horren kontra ezin da joan. Gure indarguneak beste batzuk dira: gertuko tratua, aholkularitza, produktua ikusi eta probatzeko aukera..."

ZUZENKO MUSIKA, LUNTXA ETA ZOZKETA BEREZI BAT IZANGO DIRA JAIALDIKO PROTAGONISTAK

"Etorkizunean 'online' ere egon beharko dugu"

MAITANE AZKARATE
BEDELKARREKO PRESIDENTEA



Presidente lanetan bi urte egin ditu dagoeneko Azkaratek.

Erantzukizun handia da Bedelkar ordezkatzeko?

Hasiera batean, idazkariak animatu ninduen, lan handia ez zela esanez. Gero konturatu nintzen lana egon badagoela.

Zeintzuk dira erronka nagusiak epe motzera?

Herriko jendea bertako dendak ezagutzera ematen segitzea. Herri txikietan hiriburuetakoa anonimotasun puntu hori falta

da, eta jendeak dendara sartzeko izan ohi duen erreparoa gainditzea da helburua. Hori hala izateko, gure dendak jendea gerturatu behar dizkiogu.

Nola egin aurre Interneti?

Saiatu nintzen *online* salmenta martxan jartzen, baina pertsona baten ia zortzi orduko lana behar da horretarako. Bakarrik egonda, ezinezkoa. Etorkizunean, *online* ere egon beharko dugu, negozioak gizartearen eskaereta egokitu behar direlako.



UNEDeko areto nagusia bete egin zen eratze batzarrean. UDAL ARTXIBOA

1993ko uztaileko eratze batzarra

Merkataritza-gune handien mehatxuaren aurrean batzar berezi bat egin zen UNEDen. Jendetza batu zen bilera hartan, Bedelkar izango zenaren lehen harria bihurtzeraino. Egun ere egoera ez da erraza, baina duela 25 urte inork gutxiak espero zuen Bedelkar dena sortuko zutenik.

Urte hauetan guztietan antolatutako diren ekintzen artean, 2013an sortutako Bergara Bizi ekimenaren fruituak nabarmendu behar dira; moda desfileak, esaterako, oso landuak bezain arrakastatsuak izan dira. Beste ekintza batzuk, ordea, bergararren egutegian daude markatuta: zozketak, mauken azokak, Gabonetako kanpainak, beherapenak...

Jaia hilaren 12an, Espoloian

25. urteurrenko jaia Espoloian izango da, 19:00etatik 23:00etara.

"Bergarar guztiak gonbidatu gura ditugu. Bezero leial izatea eskertu nahi diegu, eurei esker betetzen ditugu eta 25 urte". Denda batzuek dagoeneko apainketa berezia jarri dute jaiaren berri ematen, eta egunean bertan musika, luntxa eta zozketa bat izango dira protagonista. DJ Elvis Caino, Azkaiter Pelox, Mery May eta Maitane igoko dira oholtzara. Gainera, 300 euroko abonua bat zozketatuko dute astean zehar Bedelkarren erosketaren bat egiten dutenen artean.

Urteurrena ospatzera eta egoitza berriaz gozatzera

'Elementala'-k 90 urte bete dituela eta hurrengo ikasturtea egoitza berrian abiatuko dutela ospatzeko, Miguel Altunak ospakizun berezia antolatu du ikastetxetik pasatu direnei begira ekainaren 9rako; izena ematea komeni da maiatzaren 11 baino lehen

Jokin Bereziartua BERGARA

Aurtengoa izango da *Elementala*-ren azken ikasturtea Ibargarai kalean, 2018-2019 ikasturtea egoitza berrian abiatuko dute eta. Aspaldiko behar bati erantzutea dator egoitza berria, eta, itxaronaldia luzea izan den arren, Miguel Altuna Lanbide Heziketako arduradunak gogotsu eta ilusioz daude lekualdaketakarako.

Hasieran, 26 ikasle; egun, 547

Bergara aitzindari izan da Euskal Herrian lanbide heziketari dagokionez; horren erakusle da, esaterako, 1850eko irailaren 4ko Errege Dekretuaren aginduz, lau industria eskola sortu zirela penintsulan, Madrilan, Bartzelonan, Sevillan eta Bergaran. Hasierako urte gorabeheratsu batzuen ondoren, 1928ko azaroan, Bergarako irakaskuntza-patronatuak, Udalarekin eta Diputazioarekin lankidetzan, bere gain hartu zituen Seminarioko zenbait lokal eta han kokatu zuen *Bergarako Escuela Elemental de Trabajo y Profesional Textil* izeneko ikastetxea. Garai haietan eskolak egunez eta gauez ematen ziren, langileek ere joateko aukera izan zezaten. Ikasketa-planak barnean hartzen zuen ofizial industrialen eta maisu industrialen atala. Ikasleak 12 urterekin sar zitezkeen



Errege Seminarioko lan eskolako mekanika-lantegia. MIGUEL ALTUNA LANBIDE HEZIKETA

oinarrizko eskolara (*Elementalera*), eta urteko matrikularen kostua 20 pezetakoa zen. Lehenengo promozioan 26 ikasle matrikulatu ziren eta 1933an 167ra iritsi zen kopuru hori.

Gutxira heldu zen gerra, eta irakaskuntza jarduna eten egin zen erabat; 1944ean ekin zitzaion berriro, eta orduan ireki zen *Escuela de Trabajo y Profesional Mecánico Textil* eskola, Ibargaraioko egungo egoitza zaharrean. Urteek aurrera egin ahala matrikula kopuruak gora egin eta leku arazoak sortu ziren; 1965eko

abenduaren 13an, *Elementala*-ren pabiloi berria inauguratu zen. Gaur egun, 547 ikasle dituzte.

Ekainaren 9ko bazkarirako deia

Ibargaraioko egoitzan 74 urte egin ostean, *Elementala*-ri merezitako agurra eman gura diote ekainaren 9an, bertatik pasatu diren ikasle, irakasle zein bestelako langile guztiekin bazkari bat eginda. Izena emateko, www.maltuna.eus-en, 943 76 70 49 zenbakira deituta edo egoitzara jo beharko da maiatzaren 11 baino lehen. Frontoian egingo dute bazkaria.



NIRE USTEZ

MIGUEL LAZPIUR

Ezin isilik egon

Bost lagunek nerabe bat indarrez hartu eta bortxatu egin zuten 2016ko sanferminetan. Merezitako zigorrak ez dute jaso... ez dut ulertzen.

Sexu abusutzat edo bortxaketatzat hartu, jakina, zigorrak guztiz ezberdinak dira. Definizio falta hori hain garrantzitsuak diren gaitan... ez dut ulertzen.

Gobernuaren bozeramaile Iñigo Mendez de Vigok zalantzan jartzea eraso sexuarekin lotutako delituak kode penalean ondo jasota dauden edo ez... ez dut ulertzen.

Epaitegi Goreneko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidentek gaitzetsi izana *Manada* epaitu duen auzitegiari batzuek egindako kritikak... ez dut ulertzen.

Justizia ministroa eta epaileak ika-mikan ibiltzea... horrek bai egiten dio kalte justiziarekiko konfiantzari eta beste guztiari... hori ere ez dut ulertzen.

Galdera bat egiten diot neure buruari: epaia bera izango zatekeen magistratu horien alaba edo biloba izan balitz biktima? Zer uste duzue?

Mariaren Lagundiko ikasleek Ainara Ortega elkarrizketatuko dute

Galdegazte saioaren laugarren denboraldia amaitzeko, Mariaren Lagundiko June Candelario, Mikel Peñin eta Jone Sanz ikasleek Ainara Ortega elkarrizketatuko dute. Batzuek izen ezaguna izango ez bada ere, musikari eta abeslari moduan ibilbide luzea du donostiarrek eta haren ahotsa oso estimatua da, besteak beste, jazz munduan. Horrez gain, ikasleek *Mami Lebrun* antzezlanaren inguruan ere galdetuko diote; izan ere, Kepa Errasti aktore aretxabalek protagonistetako bat duen obran ere hartzen du parte. Saioa osorik ikusi ahal izango da Goiena telebistan maiatzaren 8an, 21:30ean hasita.

Pentekosteetako herri bazkarirako txartelak, hilaren 10etik salgai

Maiatzaren 21ean San Martin plazan egingo den herri bazkarirako txartelak maiatzaren 10ean jarriko dira salgai Seminarixoko txarteldegian. Ondorengo egunetan Kultura Zerbitzuan eskuratu ahalko dira, 18:00etatik 20:00etara. Norbaitek alergia motaren bat badu, aurretik Kultura Zerbitzura deitu behar du (943 77 91 59). Txartelak 12 eurotan izango dira salgai, eta pertsona bakoitzak gehienez sei sarrera erosi ahal izango ditu; 690 lagunendako lekua egongo da. Bestalde, maiatzaren 18an egingo den haurrendako eta gurusoendako parrilladarako txartelak azokako izotz postuan eros daitezke dagoeneko, 6 eurotan.

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com

Proiektuak - Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak - Eskailerrak -
Leihak - Tarimak -
Egur lanak

21
K
KALITATEA
Enpresa Registrada N°90/625

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55



Lanbide Heziketa 2018-19

- . Mendekotasun Egoeran Dauden Pertsonen Arreta Egiteko Teknikaria
- . Gizarteratzeko Goi Mailako Teknikaria



Ate Irekiak

Maiatzaren 9an

17:30 ean



1.524.312 Atsegin dut

Espoloia Kalea, 1 - 20570 Bergara (Gipuzkoa)

Tel. 943 76 25 40

www.mlagundia.net



Gipuzkoako Erremonte Koparen finala, Bergaran

Finalerdiak gaur jokatuko dituzte, Aizarnazabalen, eta finala Bergarako Udal Pilotalekuan izango da, domekan (17:00). Federazioko ordezkari Jaime Agirrek ikuskizuna egongo dela aurreratu du: "Erremontista onenak daude txapelketan"

Xabier Urzelai BERGARA

Gipuzkoako Erremonte Kopa jokatuko dute egunotan Gipuzkoako hainbat pilotalekutan. Finalerdiak gaur jokatuko dituzte, Aizarnazabalen, eta domekan Bergaran jokatuko dute finala, 17:00etan hasiko den jaialdian –sarrera doan da–.

Jaialdia promes gazteen nor-gehiagokarekin hasiko da; hala, aurrez aurre izango dira Juaneña-Zubiri eta Ansa II.a-Zaldua bikoteak. Partidu horren ondoretik etorriko da Gipuzkoako Erremonte Kopako finala. Bergarako Udal Pilotalekuan aurrez aurre izango diren bi bikoteak gaur Aizarnazabalen jokatzeak diren finalerdietan erabakiko dituzte, eta hauek dira bikoteak: Matxin III.ak eta Jonek Seguro-laren eta Barrenetxearen kontra jokatuko dute finalerdietako bat, eta bestean, Uterga eta Agirrezabala Urrizaren eta Azpirozaren kontra lehiatuko dira.

"Ikuskizuna egongo da"

Aste barruan Bergaran egindako aurkezpenean, Euskal Erremonte Federazioko ordezkari Jaime Agirrek adierazi zuen Bergaran jaialdi bat antolatu duten bakoitzean jendeak erantzun egin duela: "Jende asko etortzea espero dugu. Uste dugu



Bergarako udal ordezkariak, erremontistekin eta Federazioko ordezkariekin. GOIENA

erremontea frontoi motzean oso polita dela. Izan ere, erremontea frontoi luzeetan jokatzen da, eta Bergarako Udal Pilotalekuan jokatzeak badiu berezitasun batzuk; batez ere, joko oso azkarra eta bizia izango dela. Ikuskizuna izango da".

"Jakinekoea da erremontea ikusgarritasun handiagoa behar duela, eta Bergaratik beste altxo bat jarri nahi dugu zabaltze prozesu horretan laguntzeko eta modalitate hau berriz indartzeko", adierazi zuen Elena Lete alkateak.

Ander Murua, finalerdietan

Bergara Hiria Txapelketa finalerdietan da jada, eta Bergarak ordezkari bat izango du txapelketaren fase erabakigarrian: Ander Murua. Maiatzaren 15ean izango du partidua, baina datorren martitzenean bertan jokatuko dituzte lehenengo finalerdiak.

Ohikoak ez diren musika estilo bi entzuteko aukera gaztetxean

El Desvan del Macho eta La Banda del Abuelo taldeek emanaldia egingo dute bihar, 22:30ean, gaztetxean

A.E. BERGARA

Kartzela zaharrean kontzertua eskainiko dute El Desvan del Macho eta La Banda del Abuelo taldeek. Joan den urteko ekainean bertan behera geratu zen El Desvan del Macho gaztetxean egin behar zuen emanaldia. Orduan eskaini ez zuten kontzertua orain eskainiko dute; eta lagun izango dute La Banda del Abuelo. Bi taldeak arrasa-tearrak dira.

Emanaldia gaztetxeak eta Angiolillo liburutegiak elkarlanean antolatu dute.



J.G. Izcue. CANTABRICO MUSICAL

El Desvan del Macho

El Desvan del Macho 1989an sortutako taldea da. Taldeari zentzua, nortasuna eta, finean, izana J.G. Izcuek ematen dio. Euren estiloa definitzea zaila da; izan ere, apustu arriskutsua egin dute musikaren munduan.

J.G. Izcuek idazteko eta espre-satzeko oso modu berezia dauka, eta horrek jarraitzaile fidelak ekarri dizkio.

La Banda del Abuelok *Rockan-rola mailu bat* da diskoa aurkeztu zuen iaz. Disko horretako abestiak eskainiko dituzte.

Musika Eskola barrutik ezagutzeko aukera egongo da bihar

Musika Eskolak ate ireki jardunaldia egingo du bihar, zapatua. Herriko haur, gazte eta helduei zuzendutako ekintza izango da. *Musikaz gozatu nahi duzu?*; galdera horrekin animatu nahi dituzte herritarrak musikaz gozatzera eta, bide batez, Musika Eskolan egiten dituzten jarduerak ezagutzera. Ate irekiak 11:30etik 13:30era

bitartean izango dira. Modu horretan, herritarrek Musika Eskola barrutik ezagutzeko aukera izango dute: instrumentuak probatzeko aukera egongo da, eta baita taldean jotzeko aukera ere. Horrez gainera, 12:00etatik 13:00etara 4 eta 5 urte bitarteko umeendako tailerra egingo dute. Hala, adin tarte horri bideratutako eskaintza ezagutzeko aukera izango dute bai txikiak eta baita gurasoek ere. Matrikulazio epea ekainaren 15era arte dago zabalik.

MUSIKAREKIN GOZATU NAHI DUZU?

ETOR ZAITEZ MUSIKA ESKOLA EZAGUTZERA!!!

HAUR, GAZTE ETA HELDUENTZAT

12:00etatik 13:00etara
4 eta 5 urtekoentzat
tailerra

ATE
IREKIAK

MAIATZAREN
5 EAN

11:30etik 13:30era

"Nagusi aktiboak sustatu gura ditugu"

MIGEL ANGEL LIZARRALDE LANDATXOPEKO PRESIDENTEA

Datozen hiru urteetan Migel Angel Lizarralde izango da Landatxopeko presidentea. Elkartearen egoeraz, erronkez eta pentsioen auziaz ere jardun du GOIENArekin

Maidar Arregi ANTZUOLA

Ilusioz eta gogotsu jaso du Migel Angel Lizarralde antzuolarrak herriko erretiratuaren elkarteak presidente kargua. Hirugarren adin aktibo baten aldeko mezua eman gura izan du Lizarralde.

Nola hartu duzu elkarteak presidente karguaren testigua?

Ilusioz hartu dut erronka hau. Taldea ezagutzen dut, eta lanerako prest dagoen talde ona da. Proposamena etorri zitzaidan, eta animatu egin naiz.

Aurten egingo dituzuen ekintzak antolatuta daude?

Bai, eta, hain zuzen ere, horiek aurrera eramatea izango da orain eginkizunetako bat. Aurtengoa aurrera eramatea, alegia. Adibidez, ate joka datorren San Isidro jaietan kukumarro lehiaketan parte hartuko dugu elkarteak kideok.

Zein da Landatxoperen egoera une honetan?

Ona. Herrian dauden 65 urtetik gorakoen %84 inguru dira Landatxopeko kide. Une honetan, 353 bazkide ditugu, eta horietatik %58,64 emakumezkoak dira. Bailara mailako elkarleen artean kide gehien dituen elkarteetako bat da, hain zuzen ere.

Hirugarren adinekoendako elkartzeko eta konpartitzeko gunea da. Halaxe da, bai. Gainera, gizar-teko beste esparru batzuetan gertatzen ez dena gertatzen da elkartean: gaztelaraz bizi direnak euskaraz bizi direnekin elkartu eta komunikatzen dira askotariko ekintzetan parte hartuz.

Herritar aktiboak sustatzen dituzue. Egun, 65 urtera sasoi onean iristen dira herritarrak; alde psikikoa eta fisikoa mantendu egin behar dira. Nagusi aktiboak gura ditugu sustatu.

Herri Lagunkoia ekimenarekin bat egiten aitzindariak izan zarete.

Herri eroso eta hobe baten alde lan egin dugu eta oso garrantzitsua da horri eustea. Antzuolako herrian egindako lana



Migel Angel Lizarralde, Landatxopeko bulegoan. MAIDAR ARREGI

"PROPOSATU BERRI DUTEN PENTSIOEN IGOERA HAU BI URTERAKO GOZOKI BAT BESTERIK EZ DA"

eredu hartu dute Eusko Jaur-laritzakoek eta bideoa grabatu dugu egiten dugun lanaren berri emanez.

Pentsioen alde borrokan diharduzue. Bai; bi urterako proposatutako igoera hau gozoki bat besterik

ez da. Borrokan jarraitu behar dugu, sakondu behar den gai estrukturala delako; irtenbidea ez da eta partxeak jartzen ibiltzea.

Testigantzen bloga abian duzue.

Asmoa da Udalarekin elkarlanean herriko ondarea jasotzea eta zabaltzea. Oraingoan, Jose Inazio Garitano ari da atletismoaren inguruko informazioa batzen.

Borondatezko lana da oinarri.

Bai; ekarpena edo laguntza emateko prest dagoenari, esan, Landatxope elkarteak ateak irekita dituela beti.

2018rako ekintzak

Apirilean egin du Landatxope elkarteak urteko batzar orokorra. Bertan, 2017ko ekintzen balantze positiboa egiteaz gain, 2018an egingo diren jardueren berri eman zuten. Hala, maiatzeko San Isidro jaietarako kukumarro lehiaketan parte hartuko dute aurten erretiratuek; herriko jaietan, urteroko bazkaria egingo dute. Gastronomia lehiaketa, karta txapelketa, txistor eta gaztaina erre jana ere antolatuko dituzte, besteak beste.

Baina herriko proiektuetan ere parte hartzeko konpromisoa hartu dute. Adibidez, herriko ondarea eta memoria historikoa jasotzeko ekimenean ere badihardute lanean herriko erretiratuek.

Urte osoan egiten dituzten ekimenak ekarri gura izan dituzte gogora: abesbatza, Antzuola Lagunkoia, luzaketa saioak...

Intxaurrandietaren eta Errazkinen aurkako epaiketa aztergai

'Angula ustelak' hitzaldi zikloak Orlanen, 18:30ean, egingo du geldiduna erraustegiaren epaiketaz jarduteko

Maidar Arregi ANTZUOLA

Maiatzaren 8an, Ainhoa Intxaurrandietak -GHKko lehendakari ohia- eta Igor Meltxorrek -ikertzailea eta idazlea- *Angula ustelak* izeneko hitzaldia eskainiko dute. Intxaurrandietak eta Errazkin apirilaren 12an epaitu zituzten Madrilan, 2013an erraustegia gelditzeagatik. "Epaiketa pasa da, eta orain, maiatzaren 10ean joango dira abokatuak ondorioak ematera, epaiketaren egunean eman gabe geratu baitziren. Orain, zain; ondorioak eman, eta ea zer dioen sententziak. Kontuan izan behar da eskatzen digutena 100 milioi eurotik gertu egon daitekeela; beraz, zer gertatuko den zain", azaldu dio GOIENari Intxaurrandietak.

Auzia erabat politikoa dela salatzen dute: "Juridikoki guztia ondo egin genuen, abokaturik onenak izan genituen gure inguruan, hartu behar ziren erabaki guztiak hartzeko. Baina, ohiko epaitegietan salaketa jarri ordez, Madrilgo Kontu Auzitegira eraman dute gaia. Han, gure epailea Margarita Mariscal de Gante izan zen, Aznarren Justizia ministroa izandakoa, PPkoa. Argi dago EAJk eta PSEk Madrilgo PPko epaile baten esku utzi nahi izan dutela EH Bilduko bi kideren etorkizuna: kez-kagarria iruditzen zaigu". Erraustegia ez dela bideragarria ere badio: "Osasuna eta ingurumena kaltetzeaz gain, erraustegia gaindimentsionatua zegoen eta eraikitzeko proiektua sinatu zutenek

eta ontzat eman zutenek bazekiten hori. EAJko eta PSEko ku-deatzaileen arabera, hondakinak beste herrialde batzuetatik ekarri behar genituen Gipuzkoan erretzeko, eta, hala ere, kontratuak blindatu egin zituzten".

Angula ustelak izena hitzaldian kontatuko duten pasarte batetik dator: "SWAPak -maileguaren interes finkoak- sinatu zituzten unean, 5,6 milioi euro galdu genituen gipuzkoarrok eta dena 100 bat milioi euro galduko ditugu erabili ez den mailegu bat estaltzeko -erraustegia egin izan balitz, mailegua, interesak eta SWAPak ere ordaindu beharko genituzkeen; egoera berean geundeko, alegia-. Hori *ospatzeko*, EAJ eta bankuko kideak angulak jatera joan ziren eta gipuzkoarrok ordaindu genuen faktura 6.000 eurokoa izan zen".

Jasotako babesa

"Guretzako, oso garrantzitsua da jakitea ez gaudela bakarrik. Hartu genituen erabakiak ez dira inoiz gure mesedetan izan, herritarren mesedetan izan dira, eta hori horrela ulertu dela ikus-teak poza ematen du. Elkartasun mezuak leku guztietatik iritsi zaizkigu. Ez soilik EH Bildutik. EH Bilduren oinarri sozialetik harago doa. Auziaren kontra eta babesa adieraziz ardura instituzionalak dituzten EAJko eta PSEko kideen mezuak ere jaso ditut; azkena, PSEko arduradun instituzional batena", argitu du Intxaurrandietak.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJKA HARATEGIA

Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34



Arantzazura bidean dagoen harrobiaren ikuspegi orokorra. O.E.

Harrobia handitzeko mamua uxatu egin da

EAEko Lurralde Antolamendurako Batzordeak ontzat eman du Gomiztegiko harrobia ez handitzeko Oñatiko Udalak hiri antolaketa arauetan egindako aldaketa. Erabakia pozik hartu dute Udalean, ustiatzen duen enpresak helegitea jar dezakeen arren

Oihana Elortza OÑATI

Arantzazuko harrobia handitzeko eskaera egin zuen hura ustiatzen duen Aridos Aloña enpresak duela hiru urte, eta, harrezkero, Oñatiko Udalak hainbat pauso eman ditu hori galarazteko. Debagoieneko zenbait eragilek babestutako Arantzazu Defenda Dezagun herri plataforma ere sortu zuten herrian egitasmo horren kontrako iritzia emateko. Handitzearen kontrako lanak bere bidea egin du eta Eusko Jaurlaritzak ontzat eman du Oñatiko hiri antolaketara arauetan egindako aldaketa, udalbatzak, aho batez, 2017ko urtarreleko osoko bilkuran hartutako erabakia.

Gaur egungo mugen barruan

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu Batzordeak onartu egin du aldaketa hori, Udalarri arrazoiak emanez, eta horrekin bukatu da harrobia handitzeko eskaeraren prozesuaren bide administratiboa. "Egia da

bide judiziala gelditzen dela oraindik. Enpresa ustiatzaileak erabaki hori errekurritu dezake eta epaitegietara joan, baina erabakia administrazio goreneko sailak hartutakoa da eta zaila da epaile batek hori bertan behera uztea", azaldu du Mikel Biain alkateak.

Puntu horretara iritsita, beraz, esan daiteke Arantzazura bidean dagoen Gomiztegiko harrobia ez dela handituko, harrobiaren ustiapena gaur egungo mugen barruan egingo dela bakarrik. "Jaurlaritzaren erabakia pozik hartu dugu, bai. Pisu handia du horrek. Lurralde Antolamendurako Batzordeak hartutakoa da eta horrek Ingurumen Sailaren, Ur Agentziaren, Ondare Sailaren

UDALAK EGINDAKO ARAU ALDAKETAK USTIAKETA EREMU BARRUAN SOILIK AHALBIDERATZEN DU

eta Industria Sailaren iritzia eskatu ditu erabakia hartu aurretik. Azkena ez beste guztiak handitzearen kontra azaldu dira. Albiste ona da, bai", dio Biainek.

Harrobia handitzeko proiektuaren asmoa 2015eko martxoan ezkerer dator. Harrezkero, asmo horren kontrako mozioak, adierazpenak eta alegazioak jarri ditu Oñatiko Udalak, Jaurlaritzarekin bilerak egin ditu eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan ere azaldu zuten egoera zein den. Udalbatza osatzen duten alderdi biak, EH Bildu eta EAJ, handitzearen kontra azaldu izan dira, eta arauak aldatzea adostu zuten. Hiri antolaketako arauak onartu zirenetik udalez gaindiko hainbat arau onartu dituzte; Aizkorri-Aratz natur parkearen izendapena, bertako natur baliabideak antolatzeko plana eta kontserbazio bereziko eremu izendapena, besteak beste. Hori guztiori kontuan hartuta hiru artikulua aldatzea onartu zuen udalbatzak.

Euskal udalerrien eredu propioa izango dute aztergai gaur

Udalbizi egitasmoaren lehenengo jardunaldia da, eta herrietako esperientziak azalduko dituzte

O.E. OÑATI

Gaindegiares Udalbizi egitasmoaren lehen jardunaldia egingo dute gaur, egubakoitza, Oñatin, bertako udalarekin batera. Tokiko iraunkortasunaren euskal ereduaz jardungo dute.

Adibideak

Egun osoko egitaraua antolatuta dute. 09:00etatik 16:00etara bitartean herrietako esperientzia ezberdinen inguruan jardungo dute kultura etxean egingo dituzten hitzaldietan. Hiru gai nagusi landuko dituzte, adibide

praktikoak aipatuz: metabolismo demografikoari eta jarduerak ekonomikoari eta enpleguari buruzko hitzaldiak goizean izango dira eta arratsaldean gai bakararra landuko dute: mugikortasuna eta zerbitzuen eskuragarritasuna. Oñati erdialdeko mugikortasun egitasmoa izango da, hain zuzen, tarte horretan azalduko duten adibideetako bat. Santurtzik, Lasarteko, Baionako edo Figueresko esperientziak izango dira egunean zehar ezagutuko dituzten beste batzuk.

Euskadi Lagunkoia ekimena Oñatira ekartzea gura du EAJk

Programa hori Oñatin jartzeko eskaera egin dio alderdi jeltzaleko udal taldeak Gobernuan dagoen EH Bilduri

O.E. OÑATI

Euskadi Lagunkoia ekimenaren helburua "edadeko pertsonentzako herri lagunkoia eta egoiak bultzatzea" dela dio Oñatiko EAJk prentsa ohar batean, eta gaineratu du berriz eskatu diola Udal Gobernuan dagoen EH Bildu alderdiari programa hori Oñatin ezartzeko. Oharrak dakar EAEko 50 herri baino gehiagok egin dutela bat ekimen horrekin; besteak beste, Debagoienean, Aretxabaletak, Eskoriatzak, Antzuolak eta Arrasatek. "Udalen erronka nagusia

da politika eta proposamenak egungo gizarte heterogeneora egokitzea, non lehen aldiz elkarrekin biziko diren lau eta bost belaunaldi ere", diote jeltzaleek. Eta gaineratu dute: "Oñati programako kide egiteko, Udalak bat egiten duen hitzarmena besterik ez litzateke behar".

Euskadi Lagunkoia *Age-Friendly Cities, Ciudades Adaptadas a las personas mayores* programan oinarritzen da eta Osasunaren Mundu Erakundeak sustatutako egitasmoa da.

Proposamenak jasotzeko bi saio datorren astean

Herriarrek datozen bi urteetako aurrekontuetarako proposamenak egiteko saio irekiak egiten hasiko dira datorren astean. Astelehenean, maiatzak 7, gaztelekuan izango da eta 10ean, Eltzian. Saio biak 18:30ean hasiko dira.

Oñatiko udalbatza osatzen duten bi alderdiek, EH Bilduk eta EAJk, apirileko osoko bil-

kuran berretsi egin zuten partaidetzako aurrekontuen gaineko konpromiso politikoa. 500.000 euro gorde dituzte 2019rako eta 2020rako herriarrek egindako proposamenetan inbertitzeke.

Irailaren 9a

Datorren urteko irailaren 9a jaieguna izango da Oñatin. San Migel eguna domeka tokatzen da 2019an, eta, horren ordez, Arantzazuko Amaren eguna jai izatea erabaki zuen, aho batez, udalbatzak azken osoko bilkuran.

Jatorri askotariko umeak integratzeko programa

Udalak orain dela hamalau urtetik hona eskaintzen du hainbat jatorritatik Oñatira bizi izatera etortzen diren umeak eta nerabeak integratzeko zerbitzua; Txipistin izena jarri diote horri, eta, egun, 66 neska-mutikok eta hiru hezitzailek hartzen dute parte

AMAIA TXINTXURRETA OÑATI

Hainbat jatorritatik Oñatira iristen diren umeak eta nerabeak herrian integratzeko helburuarekin sortu zen Txipistin programa. Izena berria da, baina zerbitzua bera duela hamalau urte jarri zuen martxan Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailak. Dena dela, azken hiru urteotan gora egin du Oñatira etorritako 16 urtetik beherakoak kopuruak, eta zerbitzua indartu eta hirugarren hezitzaile bat kontratatu du Udalak. Gaur egun, 66 neska-mutikok hartzen dute parte Txipistin programan. Jatorriei dagokienez, gehienak arabiarak eta Hego Amerikatik etorritakoak dira, baina badaude, esate baterako, Txinatik edota Afrikatik etorritako neska-mutikoak ere.

Helburuak

Hiru helburu nagusi ditu zerbitzuak: lehenengoa da euskara informala lantzea, ume horiek normaltasun osoz komunikatu ahal izan daitezen euren lagunekin eta baita kalean ere; euskara akademikoa lantzea da bigarren helburua. Ikasketetan hizkuntza ez jakitea oztopo bat izan daitekeenez, eskola porrotari aurre egin eta horretan lagundu ahal izateko adin tarte bakoitzari zuzendutako arriketak egiten dituzte; eta hirugarrena inklusioa bultzatzea da. Hala, euren adineko gainontzeko neska-mutilekin harreman naturalak izan ditzaten sustatzen da, herrian guztiz integratu daitezen.

Hiru taldetan banatuta

Etorkin guztien seme-alabei eskaintzen die Udalak Txipistin programan parte hartzeko aukera hori. Eskola orduetatik kanpora ematen den zerbitzua da, eta haurrak eta nerabeak talde txikitik banatzen dituzte euren adina eta euskara maila kontuan hartuta.



Programan parte hartzen ari diren hiru neskatila, Igor Tome hezitzailearekin. A.T.

HELBURUA DA EUSKARA INFORMALA ETA AKADEMIKOA LANDU ETA HERRIAN INTEGRATZEA

Hiru talde nagusi bereizten dira: lehenengoa Oñatira iritsi berrien taldea da. Euskara maila apalena duten haurrek eta gazteek osatzen dute. Ludikotasunetik ahozko euskara maila egokia eskuratzea eta inklusioan pausoak ematea da talde horren helburu nagusia. Maddi Txintxurreta da bertako parte-hartzaileen hezitzailea, eta Bide Barrieta kaleko euskaltegian egiten dituzte saioak; eguraldi ona egiten duenean, kalean ere egiten dituzte ekintzak.

6 eta 9 urte bitarteko umeen taldea da bigarrena. Egunerokotasunari aurre egiteko euskara maila egokia duten haurrak daude talde horretan. Ikasketetan aurrera egiteko, euskara maila akademikoa lantzen dute eta euren adineko neska-mutikoekin harreman naturalak izatea sustatzen da, nagusiki.

Igor Tome da horien hezitzailea eta San Juan kaleko bulegoan izaten dituzte saioak.

9 eta 16 urte bitarteko taldea da hirugarrena. Gaztelekuak eskaintzen dituzte horien saioak eta Amaia Goitia da hezitzailea. San Juan kaleko bulegoan eskaintzen diren saioetan bezala, nagusiagoen talde honetan ere ikasketetan aurrera egiteko euskara maila akademikoa lantzen dute, eta gaztetxoak herrian integratzea dute helburu.

Etorri berriekin diharduen Txintxurretak adierazi du hasieran "zaila" izaten dela eurekin komunikatzea, baina Tomek gaineratu du hasierako "shock" egoera horretatik pasa ostean, "polita eta aberasgarria" izaten dela taldean nola integratzen diren eta euskara zein azkar menperatzen duten ikustea.

Jarraipena

Ikastetxeekin ikasturte hasieran kokapen bilera bat egiten dute hezitzaileek, umeen egoerak ezagutzeko, eta hiru hilean behin ebaluazio edo jarraipen bilera egiten dute elkarrekin. Horietan jasotako informazioa, gainera, gurasoei helarazten diote.



NIRE USTEZ

ALAZNE GURIDI

Neke-sendalaria

Goizeko 7ak baino lehen, ohearen erdiguneko grabitatearen erakarpina izugarria dela egiaztatzen dut egunero. Kilkir digitalaren hotsak lanerako ordua dudala esaten dit, baina gehienetan entzungor egiten diot eta maindire leun artean bilduta, azken orduko lo gozoa egiten dut. Xabier Lizardiren poesiaren hitzetan honelakoa da ohea: *Neke-sendalaria, buru-argitzailea, lanaren saria, amestegi guria, nahigabeen azkaia, nagien nausia...*

Lotan gauden bitartean, ametsaren eta errealtatearen mugan, errenak arin-arina dantza egiten du, itsua laguntasun gabe hara eta hona ibiltzen da eta hitz-motelari hitz-jarioa dario. Beldurraren gauean, zezenaren hankapetik eta gaiztoaren sabeletik irten ezinda ere ibiltzen gara, malkarrean beherako bidea bilin-boloka egiten dugu eta maite ditugunen zorigaitzak izerdia eta negarra eragiten digu.

Ai, ama, zein ederki ezagutu eta zaintzen gaituen lau hankako amets-habiak! Eskerrik asko eta musu bat zu asmatu zintuenarentzat!



EIDER ETXEBARRIA

Bizipoz programaren bukaera

Zahartze aktiboa bultzatzeko helburuarekin sortutako Bizipoz programaren ikasturte amaierako aurkezpena egin dute astean Eltzian. Hamahiru emakumek eta bost gizonezko hartu dute parte. Teknologia berrien eta ekonomiaren zortzi tailer izan dituzte eta bi proiektu garatu dituzte: martxa nordikoa eta lehen ikasturtean hasitako *Artearekin hazten* proiektua.

Odol ateratzea egingo dute arratsaldean MUKo fakultatean

Maiatzeko odol ateratzea egingo dute gaur, egubakoitza, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintzako Fakultatean. Odol emaillek 17:00etatik 19:00etara bitartean izango dute aukera bertara joan eta odola emateko. Bertara joan ahal izango dira dagoeneko emaille direnak eta baita ere lehenengo aldiz eman gura duten herritarrek.

Txantxiku Ikastolaren eguna ospatuko dute bihar, zapatua

Goizean, 11:00etatik aurrera jolasak eta tailerrak egongo dira umeendako, Txantxiku Ikastolaren eguna ospatzeko. Arratsaldean, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Borobilean* ikuskizunaren bi saio eskainiko dituzte Zubikoako pilotalekuan; 16:30ean eta 18:30ean. Sarrerak salgai daude 8 eurotan Txokolateixan eta ikastolako idazkaritzan.



Zalaparta eta Kalañatasaray taldeak elkarren aurka jokatzen Azkoagainen. GOIENA

Finalak jokatuko dituzte, lagunartekoak izanda ere

Herriko beterranoen txapelketaren denboraldia zapatuan bukatuko da, Kopako eta Ligako finalak jokatuta. "Ilusioz" eta "gogoz" jokatuko dituzte sailkatuek, baina inork ez du etxean gelditzeko asmorik San Migel Txiki jaietan, finala jokatzeagatik

Oihana Elortza OÑATI

Bihar, zapatua, jokatuko dituzte herriko beterranoen txapelketako finalak, Azkoagainen. Sasquash eta Zalaparta egongo dira aurrez aurre Ligakoan, 16:30ean, eta Txuskos eta Kalañatasaray Kopakoan, 14:30ean.

Irabazi

Ligako finalak Kopakoak baino pisu handiagoa du eta ilusio bereziarekin jokatuko du Zalapartako Jon Igartzabalek, denboraldi "ez hain ona" eginda sailkatu baitira. "Gorabeheratsua izan da denboraldia guretako. Pozik gaude lortutakoarekin, eta irabazteko asmoarekin jokatuko dugu partidua. Lehiatua izango dela iruditzen zait, talde gogorra da eta aurkaria. Baina lagunak ere izango ditugu animatzen, eta ea, ba, irabaztea lortzen dugun".

Sasquash taldekoak, baina, helburu bera dute. "Hamar urte ditu gure taldeak eta bigarren aldiz iritsi gara ligako finalera. Lehenengoa galdu egin genuen,

eta ea, ba, bigarren irabazten dugun. Egia da eurak gu baino gazteagoak direla eta fisikoki ondo daudela, baina gu ere saioan gaude, oso denboraldi erregularra egin dugu eta indarrak parean izanda partidu berdindua izango dela uste dut", dio Gorka Lopez de Okarizek.

Ohikoa den moduan, Kopako finala izango da jokatzen lehen. Hor ere, irabaztea izango da talde bien helburua. "Aurretik birritan jokatu dugu finala eta bietan irabazi dugu. Ea hirugarrenean ere horrela den. Sekulako ilusioarekin jokatuko dugu, denboraldian behetik gora joan gara eta. Sorpresa emateko prest gaude", dio Txuskos taldeko Eneko Ugartek.

LAGUNARTEKO TXAPELKETAKO FINALAK DIRA ETA GIRO ONA EGONGO DA AZKOAGAINEN

Kalañatasaray taldearen kontra jokatuko du Txuskos taldeak, eta horrek ere badaki finalera heltzea zer den. "Azken bost urteetan heldu gara edo Ligako edo Kopako finalera. Beraz, badakigu zer den, badugu esperientzia, eta ea horrek laguntzen digun emaitza ona lortzeko. Baina besteek ere irabazi gurako dute eta...", dio taldeko Iñigo Zubia jokalaririk.

San Migel Txiki jaiak

Finalak jokatuko dituzten lau taldeen nahia da bakoitzak jokatuko duen norgehiagoka irabaztea, baina beterranoen txapelketa lagunartekoa da, eta hor bat egiten dute denek, horri ematen diote garrantzia. Gainera, San Migel Txiki jaiak izanda, jakitun dira ez direla etxean geldituko, finalagatik. Agian, lehenago erretiratuko direla bai, baina gaur gauean kalean ibiliko direla ere bai. Baldintza beretan jokatuko dituzte, beraz, partiduak, lagunartean.

Musika eskolako 26 lagun doaz Europako musika jaialdira

Hilaren 8tik 13ra Herbehereetako Sneek herrian izango da eta hiru emanaldi egingo dituzte oñatiarrek

O.E. OÑATI

Herbehereetan egingo da, datorren astean, Europako musika jaialdia, eta Oñatiko Jose de Azpiazu musika eskolako Folk taldeak hartuko du parte bertan. "Herbehereetara nork joan gura duen galdetu genien ikasleei, eta animatu direnekin sortu dugun taldea da Folk. Bateria, panderoa, trikitia, txirula... instrumentu ezberdinez osatutakoa da", dio Arantzazu Bikuña irakasleak.

Maiatzaren 8tik 13ra izango da jaialdi hori eta autobusean egingo dute bidaia Oñatiko mu-

sikariek. "Donostiako, Errenterriako eta Azkoitiko musikariekin batera joango gara, lau autobusetan", dio Bikuñak. Jose de Azpiazu musika eskolako 26 lagun joango dira eta hiru emanaldi egingo dituzte han. Pieza alaiak prestatu dituztela dio Bikuñak: "Aldapan gora, Errezenituzten, fandangoak, arin arinak...".

Duela bi urte Donostian egin zen Emusik jaialdiaren modukoa da Herbehereetako, eta Donostian kontzertuak egingo dituzte asteburu honetan, hura gogoan.

Gimnastek erakustaldia egingo dute domekan

Ikasturte amaierako erakustaldia egingo dute gimnasia erritmikoko gaztetxoek domekan, 11:30ean, Zubikoan. Ikasitakoa senideei eta lagunei erakusteko saioa izango da. "Musika ez da faltako eta benetako gimnasten moduan arituko dira ikasleak, jantzi distiratsuekin, ilea goian batuta eta makillatuta", dio entrenatzaileak, Lide Osinagak.

Plazatik Gaztetxera-ko finala jokatuko du Urko Arregik

Plazatik Gaztetxera bertso lehiaketako finalean izango da Urko Arregi, beste bost bertsolariekin batera. Ondarroan jokatuko da finaleko saioa, maiatzaren 12an. "Eguna iritsi bitartean entrenamendu batzuk egingo ditut, eta ea ondo ateratzen den gero saioa", adierazi du Arregik. Saioa 18:30ean hasiko da; goizean, bertso-poteoa egingo dute.



ALOÑA MENDI SASKIBALOIA

Lanak emaitza ona ekarri du

Denboraldia ez dute bukatu oraindik, baina dagoeneko ligako txapeldunak dira Aloña Mendiko saskibaloiko infantil mailako neskek. Denboraldiko lehen zatia buelta eman, eta bigarrenaren lortutako emaitza onek bihurtu dute txapeldun. Saskibaloian gozatu egiten dutela erakutsi dute gaztetxo horiek, eta horrela jarraitzeko asmoa dute.

"Hiru taldeak batu izana oso positiboa izan da"

LORE ETXEANDIA LEINTZ ARIZMENDIKO JOKALARIA

FUTBOLA Euskal Ligan egin duen lehenengo urtean, aretxabaletarra ligako 'pitxitxi'-a izan da. 23 gol sartu ditu, baina ez du uste taldean ezinbesteko jokalaririk dagoenik

Xabier Urzelai ARETXABALETA

Leintz Arizmendik ligan egin dako 52 goletatik ia erdia Lore Etxeandiak (Aretxabaleta, 1995) sartu ditu (23 gol). Kategoría berrian debuta egin duen jokalaria izanda, ez dago batere txarto, ezta Leintz Arizmendik lortu duena ere, kontuan izanda denboraldi hasieran elkar eza gutzen ez zuten jokalarik kuadrilla batu zela. Euskal Ligan jarraituko du taldeak.

Aurreikusi baino gutxiago sufritu duzue?

Ez pentsa sufritu ez dugunik. Egia da ez garela azken jardunaldira arte mailari eusteko puntuengatik borrokan ibili, baina neurri handian izan da gure atzetik zetozenek liga amaieran kale egin dutelako. Estutu izan balute...

Euskal Ligara igotzeko talde berria sortu zenuten Mondrak, UDAk eta Arizmendik. Kanpotik begiratura, badirudi erabaki ona izan dela.

Bai, eta barrutik ere jokolariok iritzi berbera daukagu. Egia da hasieran arraro sentitzen gine-la denok, ez genuela elkar eza gutzen, eta apur bat kosta egin zitzaigula...

Mondra eta UDA batu izana, esaterako, jakinda klubaren artean pike historikoa dagoela... Apustu ausarta izan zen.

Bai [Barre], baina jokolariok berehala utzi genituen kontu horiek alde batera. Iaz, partiduetara aldaketarik egiteko ia aukera barik joaten ginen; aurreten, jendea deialdietatik kanpo geratzen zen, jokalarik asko geundelako. Egoera hori bizitzea izugarria izan da guretako.

Esan dugu taldearen golen ia erdia -%44- zuk egin dituzula. Taldeak Etxeandia dependentzia dauka?

[Barre] Ez, ez. Egia da gol asko sartu ditudala, eta neu ere harrituta geratu naiz, baina ni egon izan ez banintz, nire taldekideen artean sartuko zituzten gol horiek. Iaz, antzerako zerba



Lore Etxeandia, eskuman, baloia gidatzen. I. SORIANO

"NI EGON IZAN EZ BANINTZ, NIRE TALDEKIDEEEN ARTEAN SARTUKO ZITUZTEN GOL HORIEK"

gertatu zitzaidan. Denboraldi hasieran golak sartzen hasi nintzen, baina ondoren lesionatuta egon nintzen denbora luzez, eta taldekideek sartu zituzten golak. Pentsa, mailaz igo ginen.

Tituentrenatzaileak joan den astean Goiena telebistan brometan esan zuen ea udan zenbat talderen eskaintzak iristen zaizkizun.

Bueno, ikusteko dago hori. Iaz Gasteizko Aurreratik etorri ziren bizpahiru jokalarirengana, eta egia da emakumezkoen futbolearen mugimendua egoten dela. Oraingoan, ez diot horri garrantzi handirik ematen.


Oraingoan, futbola burutik kentzeko asmoarekin?

Ez pentsa, irailera arte luzea egingo zait. Datorren astean Madrilera goaz taldekideok, emakumezkoen Lehenengo Mailako Atletico Madrilera eta Levanteren artekoa ikustera.

Gimbertek Aldairi gol ikusgarria

Emakumezkoen Lehenengo Mailako 28. jardunaldian, Vanesa Gimbert bergararra (Athletic) eta Oihana Aldai aretxabaletarra (Zaragoza) izan ziren aurrez aurre.

Bada, ligari bi jardunaldi geratzen zaizkio, eta egoera erabat ezberdinean daude bi talde horiek. Zuri-gorriak hirugarren daude ligan eta Zaragozakoak, mailari eusteko lehian. Bada, aste bukaeran Aragoikoek ezustekoa eman, eta 2-1 irabazi zioten Athletic. Hori bai, gutxirako balio izan bazuen ere, bizkaitarren gol bakarra Vanesa Gimbertek sartu zuen, eta oso ikusgarria izan zen, gainera. Areaz kanpoko jaurtiketa baten aurrean Aldaik ezin izan zuen ezer egin.



Where The Wild Things Play filmaren fotograma bat. GOIENA

Mendi Tourrek geldialdia egingo du martitzenean Arrasaten

MENDIA 2018ko Bilbao Mendi Film Festival-eko onena eroango dute Amaia Udal Antzokira, hilaren 8an (19:30)

X.U. ARRASATE

Besaidek eta Arrasateko Udalak, elkarlanean, kirol jarduerekin harremana duten ikus-entzuzeko onenak eroango dituzte martitzenean Arrasateko Amaia antzokira (19:30-21:00, 5 euro). Normalean, muturreko kirolak abiapuntu hartuta egindako filmak izaten dira, nazioartean sarituak izaten diren lanak.

Lau film erakutsiko dituzte

Where the Wild Things Play (4 minutu), *Song for the Nomad* (6 minutu), *Safety Third* (28 minutu) eta *Mountain* (73 minutu) dira

Amaia Udal Antzokian erakutsiko dituzten lanak.

'Mountain', lan poetikoa

Lehenengo biak film laburrak dira. *Safety Third* eskaladan oinarritutako ia ordu erdiko lana da eta *Mountain* pelikula poetikoa da (Willem Dafoe), mendi tontorren edertasuna omentzea helburu duen lana. Australiako Chamber Orkestraren musika bandarekin osatuta dago eta iazko Donostiako Zinemaldian estreinatu zuten. Bilbao Mendi Film Festival-en epaimahaiaren aipamen berezia jaso zuen.



IMANOL SORIANO

Ointxe! Araskikoak txapeldun!

SASKIBALOA Euskadiko kadete mailako txapelketa irabazi zuten domekan Arrasateko Ointxe! Araski taldeko neskek. Iturripen jokaturako Lauko Finalean, zapatuan Easoren kontra finalerdiak gaititu eta domekan Loiola hartu zuten mendean (60-52). Final ederra izan zen ikusteko, markagailuan atzetik joanda etxeok partiduari buelta eman zioten eta.

Bi derbi geratzen dira ligari agur esan aurretik

FUTBOLA Lau jardunaldi geratzen zaizkio ligari, eta, horietako bitan, bailarakoen arteko derbia izango da. UDAk eta Bergarak elkarren kontra jokatu dute domekan eta datorren asteburuan arrasatearrak eta aretxabaletarrak izango dira aurrez aurre

Xabier Urzelai ARRASATE

Lau jardunaldi geratzen dira Ohorezko Erregional mailan, eta, egia esateko, Debagoieneko taldeei dagokienez, saltsa handiagoa dago kategoria bat behe-rago, Erregional Preferentean.

Mondra (53) eta Bergara (50) liga ahalik eta goren amaitzeko helburuarekin dabilta. Ez dute urte batere txarra egin, ezta gutxiago ere –Bergara iritsi berria da kategoriara, eta Mondrak entrenatzaileak estreinatu zituen liga hasieran–, baina koska bat falta izan zaie aurreal-dekoen borrokan ibiltzeko. Mahoneroek lehenengo itzuli ikusgarria egin zuten, iazko bolada onari jarraipena eman zioten eta lider egon ziren, baina abenduan oxigeno barik geratu ziren, eta ordutik hona lau partiduko baino ez dituzte irabazi.

Mondra erregularragoa izan da –Ordizian jokatu dute, zapatuan, 17:00etan–. Urte osoa goialdeko postuetan egin dute arrasatearrek –bosgarren postuaren bueltan–, baina Jorge Davilaren mutilei azken bultza da falta izan zaie; otsaila ez zen ona izan –hiru berdinketa eta porrot bat–, eta hori du aurrealdean egon gura izateak, bolada txar txikiena garesti ordaintzen dela. Bada, Mondraren eta Ber-



UDA eta Bergara aurrez aurre Ibarran, 2015eko derbian. J. JARANTZABAL

ARETXABALETAK ETA BERGARAK ELKARREN KONTRA JOKATUKO DUTE DOMEKAN IBARRAN (16:30)

gararen artean hiru puntuko aldea baino ez dago. Laugarren dagoen Hernani 5 puntura dago eta podiumeko postuak 7 puntura daude; aukeran, urrunegi, 18 puntu jokoan geratzen diren txapelketa baterako.

Aretxabaleta erdialdean

UDA beste urte batzuetan baino makalago ibili da. Aretxabaletako taldeak baja garrantzitsuenak izan ditu, eta hori igarri egin da berdegunean –batzuek erre-tiroa hartu dute eta beste batzuk taldez aldatu dira–.

Baina mailari eusteko adina puntu batu dituzte, eta azken jardunaldi hauetan –derbiak tarteko– Velez de Mendizabalen mutilek urtea txukundu gura dute. Bada, domekan dute lehenengo aukera, mahoneroen kontra (Ibarra, 16:30).

Emakumeen Bira Aramaioko auzoetatik pasatuko da

ZIKLISMOA Aretxabaletak hartuko du hirugarren etapa; ibilbide ikusgarri eta teknikoa prestatu dute UDAkoek

X.U. ARRASATE

Emakumeen Bira egingo dute maiatzaren 19tik 22ra bitartean, eta aurtengoa, lehenengoz, Emakumezkoen UCI World Tour barruan egongo da. Bada, hirugarren etapa –maiatzak 21, astelehena– Aretxabaletan hasi eta amaituko dute.

Birako etapa luzeena izango da (122 kilometro), eta bezperan Agurain eta Gasteiz artean egingo duten erlojupekotik ondo errekupekatzen ez denak zailtasunak izango ditu, gorabehera handiko etapa izango da eta.



Ziklista Deskargan, iaz. GOIENA

Etxaguendik eta Azkoagatik

Lasterketa 15:30ean hasiko dute, Aretxabaletan, eta, kilometro gehienak bailaran egingo badi-tuzte ere, Arlaban igo eta Kruzeta jaitsiko dute, Legutiotik bueltan. Kuriosoena da, baina, etapak Aramaioko lurretan ki-

lometro dezente egingo dituela, eta, besteak beste, ziklistak Etxaguengo bidegurutzera igoko direla eta Arexolatik bueltan jaitsiko direla Ibarrara. Eta handik Aretxabaletara joango dira, baina Azkoagatik eta Untzillatik pasatuta.

SASKIBALOA Hiruko torneo antolatu du LEK-ek biharko

Leintz Eskola Kirolak eta Ointxe! elkarteak elkarlanean antolatu dute biharko Hiruko Saskibaloio Torneo, eta kontua da antolatzaileek Leintz bailarako 400 neska-mutiko batzea aurreikusten dutela. Saskibaloio topaketa Arrasaten egingo dute, urtero moduan, Jose Maria Arizmendiarrrieta plazan (10:00etan hasita).

AUTOMOBILISMOA Gorlako Igoera badabil motorrak berotzen

Astebete geratzen da Gorlako Igoerako 27. ediziorako –maiatzak 12–, eta bailarako pilotuak azken prestaketak egiten dabilta Bergarako lasterketara begira. Mendiko lasterketako egutegiko bigarren lasterketa izango da Gorla –apiril erdian izan zen Opakoakoa–, eta bailarako hurrengoak ekainaren 23an izango da, Udanan.

Mailari eusteko borrokan dabiltzanak

Erregional preferenteko atzealdeko postuetan talde asko daude jaitsiera postuetatik ihes egin guran, eta bi jardunaldi hauetan borroka estua izango da.

Aretxabaleta eta Antzuola dira estutasunetan dabiltzanetako bi, eta etxean jokatu dute biek. Antzuolak Lagun Onak hartuko du bihar (16:30, Estala), eta Aretxabaletak Mondra izango du kontrario Ibarran (18:15).



Antzuolaren eta Ikasberriren arteko partiduko irudia. GOIENA

ARETO FUTBOLA Mailari eusteko aukera barik dago Aretxabaleta

Aretxabaleta UDAk esperientzia aberasgarria eta, neurri berean, gogorra bizi izan du maila nazionalan egiten dabilen urtean. Hiru jardunaldi geratzen zaizkie, baina aretxabaletarrak sailkapeneko azken postuan daude, hamar puntu batuta. Domekan Basaurin jokatu dute (18:00), atzealdeko postuetan dagoen Soloarteren kontra.

FUTBOLA Eibarren jarraituko du Andoni Azkargortak

Jose Luis Mendilibar entrenatzaileak Eibar zuzentzen jarraituko du beste urtebetez, eta Zaldibarkoarekin batera haren gertuko lantaldeak ere jarraituko du. Talde horretan dago bailarako futbol talde gehienetan lan egin duen Andoni Azkargortak. Antzuolakoarendako laugarren urtea izango da Eibarko talde nagusian.



Antzuolako trikitilariak eta pandero joleak Herriko Plazan, eguaztenean. XABI URZELAI

Trikitilarien eta pandero joleen harrobia, batuta

Antzuolako trikitilari eta pandero joleez gainera, Bergarakoak, Aretxabaletakoak, Arrasatekoak, Oñatikoak, Eskoriatzakoak, Aramaiokoak, Soraluzekoak, Zumarraga-Urretxukoak eta Bermeokoak elkartuko dira bihar egingo duten XIV. topaketan

Aitziber Aranburuzabala ANTZUOLA Oñatiri lekukoa hartuta, Antzuolan egingo dute bihar, zapatua, Debagoieneko XIV. Trikitixa Eguna. Helburua trikiti eta pandero doinuak kalera ateratzea da, eskolen arteko harremanak sustatzeko eta bataren zein bestearen ezagutzak eta lan egiteko modua partekatzeko.

2008-2009 ikasturtean egin zuten azkenekoz Antzuolan Topaketa, eta Debagoieneko herri guztietatik pasatuta egokitu zaie berriz ere Zumarraga-Urretxuko Sekundino Esnaola musika eskolako antzuolarrei anfitrioi lanak egitea. Udalaren, herriko lantegien eta komertzioen laguntzarekin, Antzuolako ikasleen

gurasoak eta Edurne Iturbe irakaslea urrian hasi ziren jaialdirako prestaketa lanetan. "Bazkaria eta beharrezko azpiegitura, kartelak, babesleak aurkitu... denetik egin dugu. Oso gustura ibili gara, eta oso eskertuta gaude Udalak eta herriko lantegiek eta komertzioek emandako laguntzagatik. Biher ere burubelarri ibiliko gara: bazkarian zerbitzari lanetan, kanpotik datozen taldeekin gidari lanetan... Gogotsu gaude biharko", azaldu du Nagore Dos Santosek, guraso taldeko kideak.

273 lagun elkartuko dira

Zumarraga-Urretxuko Sekundino Esnaola musika eskolako

zuzendari Edurne Iturbe astero joaten da Antzuolara trikiti eta pandero eskolak ematera. Haren esanetan, halako topaketek "eskolan egiten dutenari zentzua ematen diote. 273 lagun elkartuko gara bihar, maila eta adin ezberdinetakoak; izan ere, eskola bakoitzak bere berezitasunak ditu: Antzuolan, haurrak bakarrik ditut nik ikasle, baina Bermeokoak ere gonbidatu ditugu, eta horiek 40 urtetik gorako musikariak dira guztiak", dio Iturbek.

Puntako trikitilariak, berbetan

Kalejira eta kontzertuez gainera, Huntza taldeko Josune Arakistain eta Itsaso Elizagoien

Egitaraua

- **10:00** Ongietorria eta hamaiketako eskolako patioan.
- **11:00** Josune Arakistain eta Itsaso Elizagoien trikitilarien hitzaldia, Torresorua aretoan.
- **12:00** Kalejira.
- **13:00** Trikitilarien eta pandero joleen saioa, Zurrategi plazan.
- **14:30** Bazkaria, eskolako patioan.
- **18:00** Gazteen taldeen emanaldiak, Herriko Plazan.
- **20:00** Bide Batez taldearekin erromeria, Zurrategi plazan.

trikitilarien bizipenak entzuteko aukera ere izango da Torresorua aretoan egingo duten hitzaldian." Garai batean, txapelketetan lehiatzen nintzen, eta gaur egun epaimahaikide izaten naiz; aspalditik ezagutzen ditut Arakistain eta Elizagoien. Intresgarria iruditu zitzaigun erromeriez gain, bestelako musika taldeetan ari diren trikitilariak ere badaudela erakustea; hau da, trikitia eta panderoa beste erregistro batean erakustea. Orain dela hiru urte Zaldibarko txapelketa irabazi zuen gaur egun arrakasta handia duen Huntza taldeko Arakistainek; Etxalarko Elizagoienek ere txapelketa askotan jardun du, eta gaur egun, Galiziako Carlos Nuñez musikari ezagunaren taldeko trikitilaria da. Oso pozik daude bihar gurera etortzeko".

Film ezagunen soinu bandak jazz ukituekin, Seminarixoa

Iñaki Salvadorren piano doinuaren gainean abestuko du Ainhoa Zubillaga mezzosopranoak

A. A. BERGARA

Pantaila handiak XX. mendean ezagun egin zituen "abesti ederritariko batzuk" jasotzen ditu Iñaki Salvador piano-joleak eta Ainhoa Zubillaga mezzosopranoak 2010ean Bilboko Arriaga antzokian estreinatu zuten *Zinemako ahotsak* emanaldiak.

Bihar, zapatua, Seminarixoa eskainiko dute, 19:00etan hasita. Sarrerak zortzi eurotan eros daitezke leihatilan.

Jazz eta musika klasikoa

Eskarmentu handia dute musikagintzan Donostiako bi musikariek: jazz estiloan erreferente da bereziki pianoarekin eta soinuarekin jarduten duen Salvador; eta hainbat disko grabatuta dituen opera kantari eza-guna da Zubillaga.

Elkarrekin egiten duten kontzertuan, musika klasikoa eta jazz uztartzen dute. Askotariko konpositoreek egindako film ezagunen soinu bandekin osatu dute erreperitorioa; hortxe daude, besteak beste: *The Sound of Music* –gazteleraz, *Sonrisas y lagrimas*–; *The Wizard of Oz*; *Some like it hot* –gazteleraz, *Con faldas y a lo loco*–, *Breakfast at Tiffany's* –*Desayuno con diamantes*– eta *Chicago*.

ELIKATU

GOIENA TELEBISTA

MAIATZAREN 4AN, EGUBAKOITZEAN, 21:00ETAN

MAIATZAREN 6AN, DOMINGOAN, 14:00ETAN

ELIKADURA ARDATZ DUEN SAIOA

NAIARA URIARTEREN ESKUTIK ERREZETA OSASUNGARRIAK ETA GOIATZ ARANAK GARAGARDOA EGITEKO PROZESUA ERAKUTSIKO DIGU.

goiena
Zu hemen zaude.





Ibilbide luzea duen Oskarbi musika taldeak kontzertua egingo du Arrasaten. OSKARBI MUSIKA TALDEA

Udaberriko Musikaldia zikloko azkena, domekan

1966an jaio zen Oskarbi musika taldeak kontzertua eskainiko du Landarbaso abesbatzarekin etzi, domeka, San Frantzisko elizan, 20:00etan; bakarkako saioa egingo dute, lehenengo, eta elkarrekin abestuko dituzte, gero, Oskarbiren kantuak

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Euskal kulturaren pizkundea izan zen 60ko hamarkadan eta Oskarbi haren emaitza dela dio taldeko kide Joselu Trekuk. "Kantu herrikoiak berreskuratuta eta guk geuk sortutakoak eskaintzea izan da, eta da, gaur egun ere, gure helburua. Lehenengo hamabost urteak eromena izan ziren; urtean 60 kantaditik gora ematen genituen Euskal Herri osoan, eta disko pila bat grabatu genituen. Geroago, mantsoaldi bat izan genuen, bost bat urte kantatu gabe egon ginen, eta 1990ean berriz ere heldu genion gure bideari".

Gaur egun, hamar kide dira: hasieratik ari diren Iñaki Ma-

ritxalar eta Joselu Treku ia ibilbide osoan bidelagun izan dituzten hainbat lagunekin batera, eta azkeneneko urteetan batu zaizkien musikari gazteak.

Arrasaten, askotan kantuan

Taldeak sortu eta pare bat urtera, Ez Dok Amairu-ra hurbildu zen Oskarbi, eta elkarrekin kantaldiak eskaini zituzten lau urtez. "Gogoan dut Benito Lertxundi-rekin egin genuela behin Eskola Politeknikoan; hamar bat kantaldi egin genituen Arrasaten. Lagunak genituen han eta gustura joaten ginen".

Poesia berria eta kantu herrikoiak polifoniarekin uztartzen ditu Oskarbi; Bitoriano Gan-

diaga izan dute autore kutun, baina istorio bitxi asko kantatu dituzte: "Arrasateko historialari Esteban Garibaik jaso zuen *Lasturko Miliaren eresia* izeneko etziko kantu zerrendan dugu. Arrasate ondo deskribatzen duten XVIII. mendeko bi emakume bertsolariren bertsoak dira, hileta baten abesten zituztenak. Ez zeukan doinurik, eta Erdi Aroko musika jarri genion; gutxitan abestu genuen, eta, hainbat moldaketa eginda, Arrasaten eskainiko dugu domekan".

Errepertorioa hiru zatitan banatu dute: "Landarbasok berea egingo du, lehenengo; ondoren, guk gurea; eta elkarrekin Oskarbiren abestiak, borobiltzeko".

Kaleko Urdangak musika taldea, Fermin Muguruzarekin kantuan

Irailean aterako duten 'Nortasuna' bildumako 'Biolentzia 1984' abestiaren bideoklipa grabatu dute elkarrekin

A. A. BERGARA

Bergarako hainbat kide dituen Kaleko Urdangak taldeak Iruñean grabatu zituen abesti berriak, abenduan. Irailean argitaratuko dute bilduma osoa, eta datorren astean aurkeztuko dute, aurre-

rapen moduan, hiru kanturekin osatu duten binilo laburra; datorren egubakoitzean kartzela zaharrean izango dira.

